



AZPIEGITURAK &gt; AP-1 AUTOBIDEA

# Gasteizera joan-etorri gehiago dago AP-1 dagoenetik

**KOMERTZIOA** Gasteizko merkataritza-guneek egiaztatu dute bailarako jende gehiago doala eta denbora gehiago geratzen dela

**BAILARAN** Ibarreko merkataritza-guneek diote ez dutela AP-1en eraginik igartzen, hura ireki baino lehen adina jende dabilela

LEIRE KORTABARRIA &gt; BERGARA

Eibar-Gasteiz autobidea osorik zabaldu zutela hilabete baino gehiago pasa da, eta hura eraiki zuten erakundeek –Gipuzkoako eta Arabako foru aldundiek– esan arren gutxienez beste urte eta erdi edo bi urte beharko direla erabiltzaileek euren ohiturak finkatu arte eta, hortaz, autobidea zenbat eta zelan erabiltzen den behin betiko jakiteko, lehenengo balorazio positiboa egiten dute biek, eta orain arteko datu batzuk ematen dituzte: "AP-1ean egunero 8.000 ibilgailutik gora dabilta, eta batezbesteko hori autobidea ireki eta lehenengo faseko aurreikuspenekin bat dator", dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Bidegi enpresa publikoko Oscar Rekaldek.

Zati erabiliena Bergara-A-8 da, egunero batezbesteko 14.000 ibilgailurekin; bigarren, Bergara-Arrasate (10.000); Eskoriatza-Luku (7.500); Arrasate-Eskoriatza (6.500) eta azkenik, Luku-Gasteiz (3.700; Arabako Foru Aldundiak dioenez, kopuru hori aurreikusten zen, zati hori "batik bat barru-erabilerarako delako").

Arlabandik edo Gatzagatik trafikoa murriztu den galdetuta, Arabako Foru Aldundiak datu zehatzak eman ditu: Arlabango portutik 11.000 ibilgailu pasatzen

**Arduradunak pozik daude AP-1 zenbat erabiltzen den; hala ere, errepide zaharrera bueltatu dira asko autobideak ordainsaria duenetik**

**Gorbeia eta Boulevard saltoki handiek eta haien inguruko dendek igarri dute ibarretik gehiago goazela, eta batzuek ibarrerako kanpainak hasi dituzte**

ziren egunero, eta Gatzagakotik, 12.000; orain, 4.500 pasatzen dira, eta gainerako 7.500 ibilgailuak AP-1era bideratu dira. Datu horiek tramu osoari dagozkie.

**GORBEIA ETA BOULEVARD**

Gasteizko Gorbeia eta Boulevard merkataritza-gune handiak debagoiendarren helmuga dira aspalditik, eta haiek arretaz jarraitu dute AP-1 ireki ondoko epea; eurendako emaitza onak izan ditu, Gorbeia gerentekak, Jose Luis Camiok, dioen bezala: "Galdeketa egiten ditugu noizean behin, bisitariok nondik datozten jakiteko, eta Debagoieneko jende nabarmen gehiago etortzen dabil. Horrez gain, luzaroko geratzen direla ere ikusi dugu".

Boulevard da Gasteizko beste merkataritza-gune handia, eta hango ordezkari Patricia Sanzek esan digu saltoki horretan ere sumatu dutela AP-1 zabalik dagoenetik aldaketa. Ikerketa zehatzik ez dute egin, baina adierazle bitxi bat dute: "Euskaraz berba egiten gehiago entzuten dugu bezeroen artean, eta hori adierazgarria da nondik datozen". Sanzen esanetan, "beherapenak hasi zirenetik ere asko" igarri dute debagoiendarren etorrera handiagoa; eta, Gorbeian bezala, han ere "egonal-



Gasteizko Gorbeia merkataritza-gunea, eta autoz betetako aparkalekua, martitzenean.

di luzeagoak edo egun pasa" egi-tera joaten direla konturatu dira. Horri kasu eginez, "Debagoieneko dugun presentziari eutsiko diogu, eta handik datorrigun informazio-eskaerari erantzun- go diogu. Gure publikoaren %20 kanpokoa da, eta Debagoiena gure zonalderik garrantzitsuenetako bat da", gaineratu du Sanzek.

Gorbeian zein Boulevarden, barruko dendetan eta zentro horien inguruan dauden tamaina ertaineko dendetara –Gorbeia- ren kasuan, Brico-Depot, Decathlon, McDonalds...; Boulevarde-

nean, Media Markt, Leroy Merlin...– joaten da jendea; eta nabarmendu dute denda ertain horiek egiten dituzten eskaintza berezietara propio joaten direla gero eta gehiago bailarakoak.

Decathlon-eko arduradun-eko, preziatuak dira ibarreko bezeroak: "Debagoieneko bezeroen kuota %5etik ia %10era pasa da. Oso bezero interesgarriak dira guretako; kirolzaleak eta, batez ere, mendizaleak dira. Batez besteko erosketak otzara altuagoa da beste bezeroena baino", dio Jon Hernaez arduradunak.

DATUA

14.000

IBILGAILU

Bidegiren datuen arabera, Bergara-A-8 da gehien erabiltzen den AP-1eko tramua: batez beste, egunero 14.000 ibilgailu dabilta. Bigarrena Bergara-Arrasate da: 10.000 ibilgailu egunero.

DATUA

%65

IBILGAILU GUTXIAGO

Arabako Foru Aldundiaren arabera, Arlabandik 11.000 eta Gatzagatik 12.000 ibilgailu zebiltzan egunero, eta orain, 4.500; hortaz, batez beste, %65 jaitsi da erabilera.

**Bizitzaz betetik, ZUTAZ betetik.**

Zerbitzu guztiak zure eskura.

Moda, osagarriak, kirola, elektronika, elikadura eta etxerako gailuen 150 establezimendu baino gehiago, 4.000 doaneko aparkaleku eta aisialdirako eta ostalaritzarako gune zabal bat. Merkataritza-eskaintza ezin hobe honek, zerbitzu hoberekin hornituta egoteaz gain, Vitoria-Gasteizko El Boulevard Merkatal Gunea bilakatu du familia osoak gozatzeko gune paregabe.

www.el-boulevard.com  
Bezeroarenganako Arreta: 945 155 440  
15 minutura



GOIENKARIA

**IBARREKOOI BEGIRA**

Komertzio batzuk pauso bat hara-  
tago joan dira: ibarreko bezero-  
endako propio prestatu dituzte  
kanpaina batzuk, edo horretan  
dabilta. Hala, MediaMarkt etxe-  
ko tresna elektrikoaren saltzaile  
handiak denda dauka Boulevard  
merkataritza-gunearen inguru-  
an, eta han aurreratu digute  
AP-1etik doazenei begira pro-  
mozio bereziren bat egiteko  
asmatan dabilta, nahiz eta  
oraingok mamituta ez daukaten.

Gorbeian dagoen Carrefour  
supermerkatua izan zen AP-1

aintzat hartzen zuen promozio  
bat eskaintzen lehenengoa. Bada,  
orain, beste bat dute abian: Etor  
zaitez doan izenarekin, uztaile-  
aren 31ra arte, Carrefourera joa-  
teko bidaiako ordainsaria itzuli-  
ko diote bezeroari, baldin eta  
60 eurotik gorako erosketa egin  
badu eta ordainsaria ordaindu  
izanaren txartela aurkezten  
badu. Promozio hori egitea era-  
baki dute, hain zuzen, AP-1  
kobratzen hasi zirenetik behe-  
rakada igarri dutelako: "Eskoria-  
tzako zatia doakoa zenean, jen-  
de askoz gehiago etortzen zela

ikusitua genuen. Kobratzen hasi  
zirenetik, alde handia igarri  
dugu. Egia da Aste Santuan ire-  
ki zutela, bestalde. Hala ere,  
errealitatea da kobratzearekin  
batera bisitari kopurua jaitsi  
egin zela", diosku Gorbeia-  
ko Carrefour dendako zuzendari  
Patxi Sotok.

Gasteiz hiriko merkatariek  
ere Debagoienari begira presta-  
tu dute *Gasteiz, Erosketen Hiri-  
buru* delako kanpaina, eta Gas-  
teizko alkate Patxi Lazkozek  
Debagoieneko bisitariak aipatu  
zituen aurkezpenean: "Milaka

lagun etortzen dira Deba ibarretik,  
eta komertzio aldetik era-  
kargarri izan behar dugu", eta gai-  
neratu zuen Debagoieneko eta  
Debabarreneko 83.000 laguni  
zuzenduta dagoela kanpaina  
berria. Horren bidez, hainbat  
sari lor daitezke. Argibide gehi-  
ago turismo bulegoan jaso daite-  
ke (Loma Jeneralaren plaza, 1).

**"EZ DUGU ASKORIK IGARRI"**

Gasteizko merkataritza-gune  
handi zein txikiak arduradu-  
nak pozik daude, hortaz, AP-1  
zabalik dagoelako eta debagoien-  
dar gehiago eta maizago joaten  
direlako hara. Horren beste alde  
Debagoieneko merkatariek ematen  
dute. Hala ere, batzuek onura izan  
dena besteendako ez dirudi kalte  
larriegi izan denik. Hala, Arrasateko  
Ibai-Arte merkatarien elkarte-  
ko Arantxa Arantzabalek honako  
diosku: "Ez dugu askorik igarri.  
Hemengo jendeak betidanik izan  
du Gasteizera joera. Autobideak  
ekarri du hara lehenago iristea,  
bestetik ez; gainera, ordaindu egin  
behar da". Arantzabalek alde on  
posible bat ere ikusten dio: "Behar-  
bada Gasteizko jendea etorri-  
ko da gurera!" Bergarako Mar-  
keliñe dendan ere iritzi bereko-  
ak dira, baina haxe ere gaineratzen  
dute: "Seguru asko, jende gehiena  
lehenago bidetik joango da,  
autobidetik baino gehiago".

Azken dendari horrek arrazo-  
i pixka bat baduela ere ematen  
du, segun eta nori galdetzen  
zaion.

Hala, zalantzan jarri barik  
autobidea asko erabiltzen dela,  
errepide zaharrak ere zirkulazio  
handia duela esaten du Eskoria-  
tzako alkateak, Pedro Lasaga-  
basterrek: "Eskoriatzako tartea  
ireki eta oraingok doan egon zene-  
an, errepidea zeharo hutsik geratu  
zen, ia-ia abandonatuta. Baina  
kobratzen hasi zirenetik, berriz  
itzuli dira gidariak". Joan-  
etorri horiek ikusteko leku ezin  
hobean kokatuta dagoen Maulan-  
da jatetxe-ko Itziar Arroiabek  
haxe gaineratzen du: "Ez da  
autobidea ireki aurretik bezala,  
baina hala ere badabilta auto-  
ak, batez ere, eguraldi ona dago-  
enean; urtegi-joateko hemendi-  
k joaten dira, ez autobidetik.  
Kamioiak eta furgonetak bai,  
gutxiago dabilta".

Horiek oraingo garraio eta  
kontsumo joerak dira, AP-1 ireki  
eta gutxira; hemendik bi urtera,  
behin-behineko kontu edo ohitu-  
ra bihurtu diren ikusiko da.

**"Hasierako balorazioa oso ona da, bai erabilera aldetik, bai komunikazio eta segurtasun hobekuntza aldetik"**

Oscar Rekalde > Bidegi

**"Aurreikuspenen barruan daude orain arteko datuak, baina bi urte behar dira esanguratsuak izan daitezen"**

Miguel Angel Rodriguez  
> Arabako Foru Aldundia

**"Galdeketa egiten ditugu, eta asko igo da Debagoieneko bezeroen kopurua; gainera, luzaroago geratzen dira"**

Jose Luis Camio > Gorbeia

**"Autobidearen eragin handirik ez dugu igarri: Gasteizera joateko ohitura duenak lehen ere joaten zen"**

Arantxa Arantzabal > Ibai-Arte

**"Kobratzen hasi zirenetik, errepide zaharretik jende gehiago dabil berriz; batez ere, eguraldi ona dagoenean"**

Itziar Arroia > Maulanda jatetxea

## KONTUAN HARTZEKO

**Debagoieneko merkatariek ez dira autobidearen beldur**

Bailarako merkatariek, AP-1 ez da mehatxu;  
horretan, galdetutako dendari guztiak iritzi berekoak  
dira, edozein herritan. Arrasateko Troko dendako Mari  
Cruz Gartziazen esanetan, "betiko martxan gabilta;  
konturatu ere ez gara egin autobidearekin. Gasteizera  
joateko joera onartuta daukagu".

Autobidea ireki aurretik ere, Debagoieneko  
merkatarien elkarteek badihardute ekintza bereziak  
egiten: joan den aste bukaeran, Bergaran beherapen

azoka egin zuten, kalean; Arrasaten ere horren ohitura  
hartu dute; eta Oñatiko Txanda elkarteak abian dauzka  
zenbait promozio Txanda txartela dutenendako.

Oñatiko alkate Lourdes Idoiak dio "denbora  
txiki-egia" pasa dela balorazioak egiteko. "Ondo  
kudeatuz gero, autobidea ona da; abantaila da Gastei-  
zera agudoago joan ahal izatea. Bestalde, Oñatiko  
merkatariek oso ekimen onak dituzte, eta bezeroak  
asko zaintzen dituzte".

Hurbiltasuna  
Konfiantza  
Betidanik Zurekin  
Eskaintza Zabala  
Especializatua



Profesionala  
Moderno  
Kalitatea  
Bezeroarenganako  
arreta berezia

Arrasateko Merkataritza eta Zerbitzuak  
165 Establezimendu zure eskura

**Arrasate Bizirik!**

AZPIEGITURAK &gt; PARTAIDETZA

# Azkoitia-Urretxu errepiderako proposamenak jasotzen ari dira

Irailaren 1era arte aurkeztu ahalko dira GI-631 errepidearen ibilbidea berritzeko iradokizunak

Bergara eta Antzuolako udaletxeetan daude buzoiak; Diputazioaren webgunean ere aurkez daitezke

MIRIAN BITERI &gt; BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, inplikaturako udalek eta Mondragon Unibertsitateak Urretxu-Azkoitia errepide (GI-631) zatiko ibilbidea zehazteko herritarren parte-hartze prozesuarekin dihardute. Herritarren parte-hartze prozesua gidatzen duen Mondragon Unibertsitateko Luxio Ugartek eta Bergara eta Antzuolako alkateak, Agurne Barrusok eta Pedro Iturbek, hurrenez hurren, agerraldia egin zuten atzo Bergaran.

Parte-hartze prozesua bi zatitan egongo da banatuta: batetik, Antzuola, Azkoitia, Bergara, Urretxu eta Zumarragako 18 urtetik gorako biztanleen artean 50 herritar hautatu eta haiekin lan saio batzuk egingo dira; bestetik,



Ezkerretik eskumara, Antzuolako alkate Pedro Iturbe, Bergarako alkate Agurne Barruso eta MUko Luxio Ugarte.

M.B.

errepide zati horren gainean proposamenak aurkezteko postontziak daude. Horren harira, atzoko agerraldian jakinarazi zuten postontziak dagoeneko zabalik daudela. Ugartek azaldu zuen bi postontzi mota daudela: presentziala, udaletxeetan dagoena; eta birtuala, <http://www.gipuzkoa-partehartzen.net/gi-631> webgunean dagoena.

## IRAILAREN 1ERA ARTE

Ideiak aurkezten dituztenei hizlari deituko diete. Horiek izango dira aurkezten diren iradokizun eta proposamenen bozeramaile lanak egingo dituztenak; parte-hartzaile taldeei, proposamen horiek eztabaidatu, aztertu eta azken txostena idazteko behar duten informazioa eta argibideak emango dizkiete. Txostenak aurkezteko

epea irailaren 1ean amaituko da. Barrusok, horren harira, ingurune horretan bizi direnei parte-hartze gonbita egin zien.

Parte-hartzaileen aukeraketari dagokionez, udaletako ordezkariak iragarri zuten dagoeneko prest dituztela zerrendak eta irailan hasiko dutela galdetzen. Antzuolak hiru herritar izango ditu eta Bergarak bederatzi.

## A GRIPEA

# Bailarako sei ume, Sopelako udalekuan

Bergarako eta Oñatiko neska-mutikoek ez dute A Gripearen sintomarik

M.B. &gt; BERGARA

Jaurilaritzako Osasun Sailak martitzenean azaldu zuen Ikastolen Elkarrekin antolatutako Sopelako udalekuan A Gripearen agerraldi "arina" atzeman dutela. 20 izan dira kutsatutako neska-mutikoak, 11 eta 15 urte bitartekoak.

Udaleku horretan Bergarako eta Oñatiko hiruna neska-mutiko zeuden. Haiek, baina, ez dute sintomarik eta, hortaz, oraingoz, behintzat, ez dira A Gripez kutsatu. Dena den, etxera itzuli dira guztiak.

Sopelan egondako neskatila baten gurasoek hauxe esan digute: "Alabak ez du inongo sintomarik eta, beraz, ez dugu inongo neurrik hartu behar izan. Dena den, etxean dago. Hasieran udalekuan jarraitu nahi zuen, baina gero, ume asko etxera bueltatzen zirela ikusita, hark ere etxera etorri nahi zuela esan zigun".

## HARTU BEHARREKO NEURRIAK

Bergararraren esanetan: "Jaurilaritzako Osasun Sailetik esan digute bizimodu normala egiteko eta, sintomarik azalduz gero, hainbat neurri hartzeko". Horren harira, aipatu dute umeak "gripe normala" izango balu bezala jokatzea; haren logela ondo aireztatzea; paperezko zapiak behin erabili eta ondoren zakarrontzira botatzea; edo eskuak askotan garbitzea".

ESANAK

**"Bizimodu normala egin eta sintomarik agertuz gero, gripe normala izango balu bezala jokatzea esan digute"**

Bergarako neskatoaren ama

**"Hartu beharreko neurrien artean, anai-arrebak izanez gero, haurrak logela ezberdinetan jartzea dago"**

Bergarako neskatoaren ama

Ile apaindegia  
Edertze aretoa

Germaine de Capuccini produktuak

**Laser bidezko depilazioa**  
Informa zaitez!

Ondo pasau  
Antzuolako jaixetan!

Sagasti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

lantegia: Kalebarren 4  
Saltokia: Herriko plaza  
943 76 64 35  
**ANTZUOLA**

Jai zoriontsuak  
antzuolar guztioi!

**Nerea**

Zorionak antzuolar guztioi!

659 57 50 97  
Kalebarren 13 ANTZUOLA

OKINDEGIA  
GOXOTEGIA  
DAZTAKETA  
KROISSANTEGIA

ANTZUOLARRAK,  
ONDO PASAU  
JAIXETAN!

**ALTZARTE**

Kalebarren 18 • Tel.: 943 76 62 94 • Antzuola



Jorge Bengoa aretxabaletarra, Iruñeko plazako pizzeria baten uztailaren 6an.

GOIENKARIA

JAIK > SANFERMINAK

# "Txupinazoa plazatik ikusi nuen Radio Euskadiko esatariekin"

Jorge Bengoa aretxabaletarrak txupinazoa bertatik bertara ikusi zuen, sari bati esker

**LEIRE KORTABARRIA > ARETXABALETA**  
Lehiaketazalea, parte-hartzailea eta zorteduna da Jorge Bengoa aretxabaletarra –berak dioenez, "batez ere, zorteduna"–: irradian eta egunkarietan hainbat lehiaketatan jokatu izan du, eta sariak ere askotan irabazi ditu. Orain azkenekoa, Sanferminetako hasierako txupinazoa Iruñeko Udaletxeko plazan bertan ikustea; eta hantxe egon zen, plazako pizzeria bateko beiratean txupinazoaz bertatik bertara gozaten. Hantxe zeuden ere Radio Euskadiko esatariak, zuzenekoan egiten; izan ere, Bengoak Radio Euskadiren lehiaketa baten irabazi zuen Sanferminetara joatea:

"Sanferminetako eskaileran –urtarrilaren 1ean, otsailaren 2an...– mezua bidali behar zen, zozketa baten parte hartzeko. Nik otsailean irabazi nuen saria".  
Aita eta biok joan ziren Iruñera. "Gustura" ibili zirela esan digu Bengoak; hala ere, ezin izan zuen gura adina gozatu, izan ere, "domekan gauz lan eginda nengo eta zuzenean joan nintzen Iruñeara; txupinazoa ikusi genuen, luntxa eman ziguten eta 14:00etan hartu genuen bueltako autobusa", azaltzen digu.  
Horrekin eta guztiarekin, "giroa asko gustatu" zitzaioela esan digu. Aurretik, beste urte baten Iruñeko lagun batzuekin

egondakoa zen Sanferminetan, "baina aldameneko kale batetik ikusi genuen txupinazoa, plazan ezinezkoa da-eta".

## TOURRA IKUSTEN PARISEN

Lehendik ere hainbat sari irabazitakoa du Jorge Bengoa. "Sari potoloena Indurainek irabazi zuen azken Tourreko bukaera, 1995ekoa, Parisen ikustea izan zen, eta han lau eguneko egonaldia". Kiroletako arropa, 750 euroko txekea –"pezetak zirenean"– eta bestelakoak ere irabazi izan ditu.  
Parte-hartzailea dela, hortaz, ezin ukatu; "kirolarekin zerikusia duen dena gustatzen zait", esaten du. Hala ere, "azkenaldian, telefonozko mezuetan gero irabazten dudana baino gehiago gastatzen dudala iruditzen zait", aitortzen digu umore onez.

## etxeko leihotik



Iban Arantzabal > iarantzabal@goiena.com

## Bihotzez eta buruarekin jokatzeko momentua

Aste honetan gorputzak gauza bakarraz jardutera bultzatzen nau. Ez daukat beste irudirik buruan, ez daukat beste sentimendurik. Atzean geratu dira jai giroko orduak, kantuak, dantzak eta abarreko ipuinak. Garrantzia galdu dute denek, antolatutako ekintza guztiek eta bakoitzak. Ezin kendu burutik domeka iluntzea.

Idatz nezakeen segurtasunaz, zaintzaz, zortez, kasualitatez, algodoizko munduez edo Bermeoko portuaz... baina zertan laguntzeko? Horretarako hobeto isilik.

Ni akordatu nintzenerako jendez lepo zegoen plazatxoa: denok begira, denok urduri, denok lagundu guran... baina zerbaitez konturatu banintzen, izan zen laguntzarik onena handik desagertzea zela. Ez zegoen zereginik, ez zegoen atzera bueltarik. Profesional ez garenok ez genuen laguntzerik, eta egitekotan, kalte baino ez genuen egingo.

Gorputzak eskatzen dit bai gertatutakoaz idaztera, baina ez bihotzak, ez buruak. Bihotzak ez, ze bakarkako momentuetarako gordetzeko hautua egin dut eta negarrak orduantxe du lekua; buruak ez, ze gertakarioz sinpleegi, azalekoegi eta zuhurtzia gutxirekin jardutea izugarritzko akatsa dela diosta buru makal honek.

Gaurkoa ere ez da jardunerako egun on bat. Gorputzari kale egin, bihotzari kasu eta buruz jokatzeko eguna da.


**"Simple, azaleko eta zuhurtzia gutxirekin jardutea izango litzateke"**

**> Kafea hartze hutsa edo lagunekin elkartzea nahikoa dira burua martxan hasteko. MailukadakaNekez egon daiteke bat prestatua horrelakoetarako. Ez dago ahazterik eta gainditu gura badugu ere ahaztu barik gainditu behar.**

**> Ez dago herritar bat gertakari honek barruak mugitu ez dionik. Jaien amaiera inork gura ez zuen eran etorri zen. Herri txikietan denok gara lagun edo ezagunak eta horregatik ere elkartasunak handiagoa behar du izan: aitzakiarik gabekoa.**

## Lanbide Heziketak lanarekin lotutako formazio eskaintza ezagutarazi zuen

Debagoieneko zortzi ikastetxek, udaletako enplegu zerbitzuek, Lanbidek, Inemek eta Mankomunitateak Lanbide Heziketarekin lotutako eskaintza ezagutarazi zuten atzo, eguna, egindako Debagoieneko Lanbide Heziketako Erakusleihoan. Arrasateko Kulturaren egin zuten, goizez eta arratsalde, eta egun osoan joateko aukera izan zuten interesatuek. Helburua izan zen lanarekin lotutako formazio aukerak zuzenean interesatuei jakinaraztea.



OIHANA ELORTZA

IKASKETAK > HIZKUNTZAK

## Eibarko Hizkuntza Eskolan matrikula egin daiteke

Debagoienari Eibarko eskola dagokio, eta urteko matrikula 66 euro kostatzen da

Hizkuntza Eskolak (Irun, Donostia eta Eibar), eta Debagoienari Eibarko dagokio. Krisi garai honetan, biztanleek zerbitzuaren berri jakin behar lukete", diote arduradunek.

Urteko matrikula 66 euro da. Alemana, euskara, frantsesa eta ingelesa ikasteko aukera dago, astean 4 orduko eskolak jasoz. Eskola arratsaldez dira, eta hainbat hizkuntza eta mailatan, goizeko ordutegia ere badago. Sorterriko lektoreen laguntza, material mailegua... ere eskaintzen dute. Argibideak: [www.eoieibarheo.net](http://www.eoieibarheo.net).

L.K. > BERGARA

Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialean uztailaren 7tik 24ra eta irailaren 1etik 7ra artean egin ahal izango da matrikula ofiziala, eta hango arduradunek Debagoieneko ikasleak animatu nahi dituzte izena ematera: "Gipuzkoan hiru baino ez dira

Gipuzkoako Gizarte Politikako foru diputatuak dioenez, Gipuzkoako adingabe etorkinen %90 ari dira aprobeztatzen emandako baliabideak: "Esko-

latuta daude eta bizi proiektua egiten ari dira gure artean". Debako harrera etxean dauden adin txikikoak dira salbuespena.

Maite Etxaniz > Gipuzkoako Gizarte Politikako foru diputatua

# "Diputazioa da harrera etxeetan dauden umeen aita eta ama"

ENEKO AZKARATE > BERGARA

**Bi urte daroatza Maite Etxanizek Gipuzkoako Foru Aldundian. Gizarte politiken ardura dauka. Postu arduratsua da berez, baina azkenaldian Batzar Nagusietan hainbat galdera erantzun behar izan du, adin txikiko harrera etxeen harira.**

**Debako adin txikikoendako harrera etxea albiste izan da; txarrerako, beste behin. Zer gertatu da?**

Beste istilu bat, sute txiki bat. Debako harrera etxea da errekurtsio zaila, bertan daudenak zailak direlako; eskura jarri zaizkien baliabide guztiak ez dituztelako aprobeztatuta nahi izan eta horregatik daudelako Deban. Beste harrera etxe batzuetan dauden adingabeen gainerako %90 ari dira aprobeztatzen emandako baliabideak; eskolatuta daude eta bizi proiektua egiten ari dira gure artean.

**Adin txikiko zenbat harrera etxe daude Gipuzkoan?**

Dauzkagu 37 zentro adin txikikoendako Gipuzkoan banatuta. Horietatik, 13 dira kanpotik datozenak batzeko eta gainerako 24ak dira bertakoendako. Debagoienan hiru daude: batetik, Bergaran, bertako oinarritzko programarako zortzi plaza dituen zentro bat dago; bestetik, Arrasaten daude bi zentro: batean, kanpokoendako oinarritzko programan daude zortzi adin txikiko eta beste zentro batean daude beste sei lagun, emantzipaziorako programak. Hala ere, behin 18 urte bete, ibilbide ona egin dutenean, eta haiek nahi badute, beste aukera bat ematen zaie, lanerako bideratzen laguntzen zaie, bakarrik bizi-

tzen laguntzen zaie, ikuskatze txiki batekin, eta horiendako beste etxe bat dago Arrasaten.

**Harrera etxe ezberdinak daude, hortaz.**

Bai. Kanpokoei dagokienez, urgentziarako daukagu bat, Donostia inguruan: behin Gipuzkoara etortzen direnean, gura ekartzen dituzte ertzainek edo udaltzainek. Legez hala tokatzen delako geuk hartzen ditugu. Ondoren, fiskaltzara bideratzen da eta hor auzi-froga bat egiten zaie adina ezagutzeko, dakarten dokumentazioa aztertuz. Baina batzuetan ez dute dokumentaziorik ekartzen. Hori eginda, fiskaltzak erabakitzen du adin txikikoak diren ala ez. Adingabeak badira, gure babesa hartzen dute. Gero, dauzkagu beste sei etxebizitza oinarritzko, behin urgentziatik igarota, eskolatzen direnerako.

ETORKINAK

**"Adin txikiko etorkinak aukera bila datoz eta %80k aukera hori aprobeztatzen dute"**

HEZIKETA

**"Guraso askok ezin ditzakete umeak normaltasunean hezi, eta autoritate falta eta horrelakoak sarri ikusten dira"**

Beste hiru terapeutiko, bereziak, droga kontsumitzen dutenendako edo beste jarrera arazo batzuk dituztenendako, Debakoak bezala; eta beste hiru, emantzipaziorako. Hauek denak kanpotik datoztenendako. Eta bertakoendako, berriz, dauzkagu: 17 oinarritzko; beste bi urgentziarako, norberaren familatik atera eta berehala toki bat behar dutenendako; beste bi terapeutiko, jarrera eta kontsumo arazoak tratatzeko; beste terapeutiko bat, arazo psikiatrikoak tratatzeko; beste bat erreformatik atera eta neurri legalak bete behar dituztenean, geuk hartzen ditugulako etxe berezi batean; eta gero, beste bat, emantzipaziorako. Guztira, 24. Hala ere, esan behar dut Gipuzkoako umeendako badauzkagula harrera familietan neska-mutiko piloa hartuta. Gure sareetan dauzkagunez gain, Gipuzkoako beste familia batzuetan daude 204 adin txikiko. Beraz, argi dago, datuak ikusita, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean daudela adin txikiko asko. Hori oso kezagarria da.

**Nahikoa dira zentro horiek?**

Momentuz bai. Bi urteotan esfortzu handia egin dugu eta uste dut adingabeendako harrera etxe sarea osatu dugula. Fenomeno berria da eta legez obligatuta gaude zerbitzu edo tutoretza hori eskaintzera. Bi urtean hamar etxebizitza zabaldu ditugu: etxeak erosi, egokitu, taldeak osatu, begirale edo hezitzaile taldeak osatu eta trebatu... Ikusten dihardugu bertakoekin arazoak areagotzen ari direla eta babesgabeak izateko gero eta arrisku handiagoa dutela. Eta gure umez ari naiz e...



Maite Etxaniz GOITBko platoan, *Magazinea*-rako saioa hasi aurretik.

**Zergatik handitu da adin txikiko arazoa bereziki azken urteetan?**

Gure gurasoek eskaintzen ziguten beste denbora ez diegu eskaintzen guk gure umeei. Gizarte honen individualismoaren eta gure haurrak hezteko moduaren arazoa da: elkartasuna, elkarrekin jolastea... Herrietan-eta ez horrenbeste; gehiago da arazoa gure urbanoetan, hiri handietan. Guraso askok ezin ditzakete umeak normaltasunean hezi, lanagatik-eta, eta autoritate falta eta horrelakoak sarri ikusten dira.

BALIABIDEAK

**"334 milioi euro kudeatzen ditugu, urtero, gizarte politiketan Gipuzkoan"**

BEHARTSUAK

**"Ezin dugu onartu Gipuzkoan, horrelako errenta maila handia duen lurraldean, egotea oinarritzko beharrak ase gabe dauden pertsonak"**

**Adin txikiko gehienak ze herrialdeetatik datoz gurerara?**

Marokotik gehienak, %90 esango nuke. Gero, Sahara hegoaldeetik ere badatoz, baina gutxiago: Senegal, Mali edo Ganatik, adibidez. Baina haiek oso perfil ezberdinekoak dira. Gero, asko dira Tangerko portuan beren aukeren zain denbora luzez egon direnak, oso baldintza gogorretan bizi izan direnak. Horregatik, guk haiei eskain diezaiekeguna asko da, nahiz eta oinarritzko gauzak izan. Ume horiek euren herrialdeetara dirua bidaltzeko itxaropenarekin datoz, baina hona heltzean ezin dute lanik egin eta kontraesan handietan murgiltzen dira... Umeak dira, nahiz eta esperientzia gogorra bizi izan hona etortzeko.

Bestalde, gure autonomia erkidegoa da bigarren destino nagusia, Kanariar uharterez gain, eta penintsula guztia zeharkatzen dute hona ailegatzeko... 12, 13, 14 urterekin bakar-bakarrik penintsula osoa zeharkatzea oso esperientzia gogorra da. Jendeak ulertu behar du adin txikiko horiek aukera bila datozela eta %80k aukera hori aprobeztatzen dutela.

**Zergatik datoz hona?**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan legea betetzen dugulako behar den moduan. Eskatzen dugu Atzerriarren Legea betetzea.



XABIER URTZELAI

### Ez dute betetzen legea beste autonomia erkidego batzuetan?

Ez dut hori esango, baina guk betetzen dugula badakit. Eta bistan da beste erkidego batzuetan ez dituztela guk adinako adin txikiko. Hori zerbaitegatik izango da.

### Harrera etxe horietan, hezitzaileekin arazoak izan dituzte adin txikikoak?

Une honetan, Debako harrera etxea, esaterako, oso zaila da kudeatzeko. Autoritate arazoak izan daitezke. Tratu txarren salaketa bat ere izan dugu. Baina

Deban ez da inor jotzen, ez da inor gosez edukitzen... Beste kontu bat da adin txikiko batek jarrera oldarkorra badauka, hori gelditu egin behar dela. Dena dela, salaketak bere bidea jarraitzen du eta ikusiko da zer gertatzen den. Ez dugu uste tratu txarrik izan denik, baina gu gara lehen interesatuak gauzak argi daitezen. Azken finean, gure umeak dira. Diputazioa da ume horien aita eta ama. Gure helburua da aita eta ama onenak izatea.

### Gipuzkoara adin txikiko etorkin asko datorrela-eta, haiei

### aurre egiteko legea aldatu beharra edo kupo bat ezarri beharra eskatu duzu. Zergatik?

Gustatuko litzaziguke kupak ezartzea Estatu mailan; bestela, zaila delako aurreikuspenak egitea. Jakin dezakegu hurrengo urteetan zenbat zahar izango ditugun, baina ez dakigu bihar zenbat adin txikiko etorriko zaizkigun eta horiek ondo artatzeko beharrezkoa da zenbat ume etorri behar zaizkigun. Zela edukiko ditugu ez dakit zenbat etxe hutsik edo ez dakit zenbat hezitzaile geldik, ume horiek etorriko zain. Gauzak ondo egiteko

programazio bat behar da. Etorriko zaizkigunak hartuko ditugu eta gustuz, gainera, konbentziturik gaudelako hori dela gure eginbeharra eta ume horiek aukera bat behar dutela, gehienek aprobetxatzen dutelako aukera hori. Gipuzkoak solidarioak gara, baina aurreikuspenak behar ditugu gauzak ondo egiteko.

### Aretxabaletako Urrats Gain zaharren egoitza berria zabalik da. Ekain hasieran zabaldu zuten. Zer moduz?

Ondo. Pixkanaka betetzen ari da, disfuntziorik egon ez dadin

eta langileak eta egoiliarrek ohitzen joan daitezzen errekurtsio berrira. 170 plaza ditu eta horietatik 102 daude Diputazioarekin hitzartuta. 67 egoiliar arruntendako, 30 bi unitate psikogeriatrikotan, eta beste bost, familiakoak-eta oporretara joan ahal izateko. Eta, gero dauzka beste 25 plaza eguneko zentrorako. Oraingoz, oso balorazio positiboa egiten dugu.

### Zenbat diru eskaintzen die Gipuzkoako Diputazioak gizarte zerbitzuei?

334 milioi euro kudeatzen ditugu, urtero, gizarte politikean Gipuzkoan. Horietatik, adin nagusikoak eta ezintasuna dutenak, aurrekontuaren %52 erosten dute. %26, gizarteratze eta enplegurako programak, eta %14, adin txikikoendakoak. Gainerako %8 planifikazio eta inbertsiorako erabiltzen da.

### Krisiaren eraginez, aurtengo aurrekontuetan murrizketarik izan da gizarte zerbitzuetan?

Gutxiago jasoko du Gipuzkoako ogasunak eta, ondorioz, bai udalei eta baita Jaurlaritzari ere, diru gutxiago ailegatuko zaie. Gure apustua da, edonola ere, gizarte zerbitzuetan orain daukagun diru kopuruari eustea.

### Krisiagatik eskari gehiago jaso dira premia dutenendako?

Bai, esaterako, oinarrizko errentan orain arte 5.000 lagun bageneuzkan, orain, ja, 7.000 eskaririk gora jaso ditugu.

### Gipuzkoako Caritasek ia ardatu zituen 19.000 lagun, aurreko urtean baino %36 gehiago. Oso datu esanguratsua da ezta?

Hala da. Gurekin egiten du lan Caritasek. 2 milioi euroko dirulaguntza ematen diogu urtero eta gure programa batzuk kudeatzen ditu. Caritas oso hurbila da premia larria duten pertsonendako. Herri batzuk aukeratu ditugu azterketa bat egiteko, jakiteko zeintzuk diren egoera larri horretan daude pertsonen beharrak, horiek asetzeko. Ezin dugu onartu Gipuzkoan, horrelako errenta maila altua duen lurraldean, egotea oinarrizko beharrak ase gabe dauden pertsonak.

Maite Etxaniz > Gipuzkoako Gizarte Politikako diputatua

## "Egoiliarrendako nahiko toki dago ibarreko egoitzetan"

E.A. > BERGARA

Gizarte Politikako diputatuaren esanetan, Debagoieneko zaharren egoitzetan 542 plaza daude.

Bergarako zaharren egoitza berria egin nahi du Udalak, Mizpirualde berri behar.

Ados gaude erabaki horrekin. Une honetan, egoitza kokatuko litzatekeen lursailarekin dago arazoa. Zain gaude.

### Zeinen ardurapekoak dira zaharren egoitzak?

Iaz azaroan onartu zen Gizarte Zerbitzuen lege berriak dio lehenengo arreta dela udalena eta bigarrena, espezializatuagoa, diputazioena. Jaurlaritzak beste konpetentzia batzuk ditu. Une honetan, argi daukagu zaharren egoitzen konpetentzia gurea dela eta mahai batean eserita gaude Eudelekin, Gipuzkoan dauden udalen ardu-



x.u.

rapeko 17 egoitzen etorkizunaz berba egiteko. Sintonia onean gaude eta iritsiko gara akordiotara. Bergarako zaharren egoitza berriaren kasuan, logikoa da pentsatzea geu egingo ginatekeela kargu egoitza berria eraikitzeaz, baina lehenengo Bergarako Udalak erabaki behar du non kokatu egoitza berria.

### Nahikoak dira Debagoienean dauden zaharren egoitzak?

Egoiliarrendako tokiaren gainean esan daiteke Debagoienean ondo zaudetela. Gizarte Zerbitzuen mapa eginga daukagu 2012. urteari begira, eta Debagoieneko aurreikusita daude 518 plaza. Une honetan, Aretxa-

baletakoa ireki berri, Debagoienean daude 542 plaza. Gipuzkoan beste eskualde batzuk okerrago daude.

### Arrasateko Iturbide egoitzako azpikontratutako langileen kontua zela dago?

Aste Santu inguruan amaitu zuten greba langileek, baina beste bost egoitzetan daude greban Gipuzkoan. Egoitza horietatik hiru dira udal egoitzak eta besteak Diputazioarenak. Langile azpikontratatuak eskatzen dute funtzionarioen soldata bera. Hor dago arazoa. Espero dut udazkenerako gauzak bere onera etortzea. 67 egoitza daude Gipuzkoan eta bost egoitzetan bakarrik daude horrelako arazoak.



zabalik

Diego Martiartu

## Kirolero

Norbait kirola egiten hasi dela entzuten dudan aldiro, bihotza uzkurto eta lurrera erortzen zait. "Han doa Kepa, beste gixajo bat galbidean sartuta", neure artean. Aspalditxo heroinan erortzen ziren haien berri izatean nola, halaxe kolpatzen nau kirolean hasi berriaren gaineko notizia tristeak. Gainbehera prozesua galopantea da, eta behin sartuz gero, atzerabidea oso da maldatsua, eta sorburura onik edo behintzat osorik itzultzea, kasik ezinezkoa.

Ikusten ditut Urkulun footing egiten, bizikleta gainean izerdi tantaka, edo haitzetan goraka, sufrikarioak eragindako plazer adrenaliniko horretan gozaten, eta odolak ziprztindutako xiringak etortzen zaizkit gogora, eta koilaratxoak, eta limoia... Ferixalekuko eskola osteko zoko-bazter dekadente hartan.

A ze itxura hartzen duten hezur-giharrak dantzan jarri eta bi edo hiru astera! Begiak gero eta zulozago, masailezurak gero eta ageriago, gizartetik gero eta bazterrerago... Ez gehiago txikiteorik, ez txuletarik, ez forniziorik, eta buruargitasunaren galera nabaria ("Galdu egin genuen, ez genuelako irabazi", Ronaldo dixit). Zer esan, amildegiaren ertzean salto egiteko imintziotan zorionsu ikusten duzun lagun horri? Eguneroko entrenoa, marka eta muga pertsonalak matxakatu, diziplina, lana, zainketa zorrotza eta halako erretolika kuartelarioa gogo-ezpainetan, zelan ez dira ba, behin mailatxo batera iritsita, auskalina baten amaraunean kate-atuko? Ikusten ditut tourrada ematen dabilzan hematokristo horiek Tourmaleta igotzen eta, konparazioan, askoz ere sanoagoak iruditzen zaizkit jairik jai dabilzan gaupasseroak. Sniff!

**"Heroinan erortzen ziren haien berri izatean nola, halaxe kolpatzen nau kirolean hasi berriaren gaineko notizia tristeak"**

usteak uste

Arrixtu Barruso

## Zelako gogorra den uztaila...

Uztaila hasi genuenetik uda usaina atzematen dut han eta hemen. Eskolako umeak oporretan, igerilekuak beteta, herrietako jaiak, kalean giro aparta eta lagun asko udako ordutegiarekin lanean. Zelako nekeza den sasoi honetan lanera joatea, ezta? Azken asteotan askotan entzun dut "oporrak behar ditut". Aitzakia ere izan daiteke gure lanean erlaxatzeko. Kontuak kontu, eta datu zehatzik ez dudan arren, esango nuke urtean lan gutxien egiten den hilabetea dela uztaila. Barkatu, Iban.

marrazkiz

Alex Ugalde



Entziero polita izan da, baina gogoan izan Hemingway zezenak kementsuak direla, eta sekula ez dago...

blog-top

## Datuak, nork bere mesederako

Joxe Aranzabal  
www.goiena.net/blogak/farao

Sasoi batean, denboran ez oso urruti, Vocento taldeko egunkariet titular handiak egiten zituzten azalean, Euskobarometroak ematen zituenean hainbat datu, kritiko izan zitezkeenak Ibarretxeren gobernuarekin. Gogotik baliatzen zituzten datuok aurreko lehendakaria jorratzeko.

Hori lehen zen. Gaur egun, berriz, dena da bakea, loria eta sosegua Patxi Lopezen gobernuarekin. Euskobarometroak dioela EAEn galdetutakoen artean %61ek ez dutela onartzen PSE eta PPren ituna? Askota *El Correo*-n aipamen txiki bat, behe-behean, ezkerreko zutabe txikian, beste baten azpian, hori bai, positiboa lehendakariarentzat. *DV*-n, noski, ezta aipatu ere azalean. Nagusilandian ere, txakurrak ortosik.

## Orain jakina da

Imanol Murua Uria  
www.berria.info/blogak/imanol

**Egunkaria**-ren auzi saioari buruzko albiste informatiboan, *El Pais*-en: "Orain jakina da, eta horixe adierazi zuen fiskalak akusazioa erretiratu zuenean, *Egunkaria* ez zuela ETak sortu, ez finantzatu ezta zuzendu ere, eta bandaren idearioa zabaltu ere ez zuela egin". "Ahora ya se sabe". Orain jakina da, orain?, duela sei urteko otsailaren 20 hartan *Egunkaria* ixteko arrazoirik ez zegoela, argudiorik ez zeukate. *El Pais*-ek ez du erabakitzen, baina erabaki dezaketenaren arrastoa eman dezake. Fiskala, gainera, behin-behineko artxiboa eskatetik behin betikoa eskatzera pasa da. Auzitegi Nazionaletik edozer etor daitekeela jakinda, onenean ere auzi ekonomikoak hor jarraituko lukeela ahaztu gabe... tunelaren bukaeran argia sumatzen hasi dira sumario nagusiko zazpi auzipetuak.

koplak

Eñaut Uriarte

## Hil da jainkoa

Bost urtekin hasi zan abesten pop izar bihurtu arte nahiz eta bizi izan dan beti pixkat mundutik aparte.

Jendia euzkittan beltza/ ipintzeko jartzen zan modu alaixan Michael Jackson oso gazterik azala txuritu nahixan.

Boleto asko jokatu dittu bere bizitzan barrena eta horrela tokatu jako dagon saririk txarrena.

Gauza da bera hil egin dala utzi gaittula betiko nahiz ta bere dantza mota hori bihurtu jakun mitiko.

Mugimendu azkar hoiek eta/ dantzak nik neuk dittut grabatuta ematen entxufe bati zegola konektatuta.

Berian bera onena zala iñun dudarik ez dago beraz munduak ba dauka/ orain beste mito bat gehiago.

## Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailletako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea), **Oinarriko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Ixaso Berezibar, Aintzane Muruamendiarrak **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00  
Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko  
JaurlaritzaGipuzkoako  
Foru AldundiaArrasateko  
UdalaBergarako  
UdalaOñatiko  
UdalaAretxabaletako  
UdalaEskoriatzako  
UdalaAntzuolako  
UdalaAramaioko  
UdalaElgetako  
UdalaLeintz Gatzagako  
Udala

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak**  
**diruz lagundutako aldizkaria**



# ALDEKO AURREZKIA ALDEAN




## Interesik gardenena.

Aurtengo udan, gozatu interesaz alde zurretik. Hondartzan nahiz mendian, etxean zein oporretan, baina beti ere teknologia, diseinu eta erosotasun handiko punta-puntako produktu berriak erabiliz. Aukera ezazu zeure interesa zeure ohiko bulegoan, Telekutzaren 901 333 555 zenbakian, kutxa.net-en edota kutxaren kutxazainetan.

## Aukeratu zer eraman

Zein lote duzu nahiago: entsalada-ontzia + 4 katilu, ala pitxerra + 4 edalontzi? Hobe kolore gorrian dekoratutako beirazko sorta osoa eramaten baduzu. Eta hondartzako eskuoihala baten (PRIVATAren 2 modelo edo Realaren modelo bat), hondartzako etzaulki baten edo kamera digital baten arteko aukera ere egin dezakezu. Kontsulta itzazu baldintzak.



zer nahi duzu bihar?

## Ez zarete zintzoak, PNV

**Pedro Iturbe, Patxi Olabarria, Mari Paz Ugalde, Andoni Azkargorta eta Mamen Jauregi**  
(Antzuolako udal gobernuko kideak)  
Antzuola

Antzuolako jaiak badatoz eta itxuran gutxi batzuek beraien betiko umore faltarekin jarraitzen dute; herritarren artean nahasmena sortu eta gaur egun udal kudeaketa mailan ematen ez diren konfrontazio faltsuak irudikatzen nahiarekin.

Hasieratik garbi utzi nahi genuke ez garelako inongo eztabaida publikotan sartuko eta hau izango dela deskalifikazio eta gezur lotsagabeen inguruan aterako dugun eskutitz bakarra; beraz, abantaila zuentzat, Antzuolako PNV. Ez gara zuen eskutitza puntuz puntu erantzuten hasiko, ez du horrenbeste merezi.

Agintaldia hasi genuenetik, gure "herri-programa" batzordeetara bideratu dugu, proposamen eta eztabaidak planteatuz, eta bertan parte hartzen duten herritarrek (PNVko zinegotziak ere) badakite batzordeak informatzaileak izatetik urrunago, hein handi batean, erabakitzaileak direla.

Baina, egia esan, ez hobeki esanda intenzionalitate maltzurrez betetako hitz multzoak. Edozer egin edota ez eginagatik kritikatuak gara; agintaldi osoa daramagu Udala era normalizatu eta harreman pertsonal normalizatu batzuetan oinarritu nahian, baina egia esan iraganak pisu handia du askorentzat.

Duela ez horrenbeste herri honen kontrako eta ezker abertzalearen kontrako apartheid politikoa kudeatu zenuten eta horrek itsutu zaituzte, eta politikan ezin ikusiek ez dute lekurik, PNV. Zuen idatziak ez gaituela harritu esan dugu, jadanik 2011n duzuelako burua, jadanik hurrengo hauteskunde munizipalatarako kanpainan zaudetelako eta hori ez da zintzo

jokatzea. 2007ko maiatzetik 2011ko maiatzera salto egin duzue aspaldi, Zapatero edo Rajoyri begira zaudete jada, ezker abertzalea zokoratzen esperantzarekin, boterea berreskuratzeko, apartheid politikoa berriz ere lotsagabe kudeatzeko.

Bien bitartean, besteok lanean jarraituko dugu, agintaldia ahalik eta txukunen bukatzen saiatuko gara, herritarrekin zintzotasuna erreferentzia izango delarik. Jakin ezazue 2011n instituzioetatik baztertuak baldin bagara, politika egiten jarraituko dugula, politika egiteko hamaika bide baitaude.

Azkenik, eta Antzuolako PNVk duen sinesgarritasun ezaren emaitza mahai-gainean jarri nahi genuke.

Edota PNVk Antzuolan dituen zinegotziak ez dute batzordeen funtzionatzeko modua oraindik ulertzen, edota beraien izenean plazaratutako idatziak ez da beraiek egin. Apustu egin behar bagenu, bigarren aukeraren alde egingo genuke.

## Mika esker!

**Jose Fernandez**  
(Oñatiko Anaitze Batzordea)  
Oñati

Oñatiko Anaitze Komitearen izenean, benetan eskerrak eman nahi dizkiegu Oñati eta Chateaubernarden arteko X. urteurrenean parte hartu zutenei. Oñatiko Udala, familiak, bizilagunak, Oñatz dantza taldea, Musika Banda, Aloña Mendi, eta zerrenda luze bat, bihotz-bihotzez, mila esker.

## Eskerrik asko!

**Julian Ugalde**  
(Beti Busti elkarte)  
Bergara

Lerro hauen bitartez, eskerrak eman nahi dizkiegu Bergarako San Martzialeko erromeria egunean, joan zen domekan,

kantina prest egon zedin lanean jardun zuten guztiei. Hasi, Bergarako Udaletik eta baita kantinara inguratu ziren guztiei; batez ere, edozein lan eskainita ere, beti prest dauden horiei. Eskerrik asko, guztioi, hortaz, Bergarako Beti Busti Piraguismo elkartekoen izenean.

## Etorkinak

**Nagore Lasagabaster**  
Arrasate

Adingabeendako Debako harrera etxean izandako istiluen harira, galderak: herrialde txiroetan hala-hola, egoera negargarri eta muturrekoenetan, bizi diren adin txikikoak zela birgizarteratu? Zela hezi? Zenbat diru bideratu? Krisi garaian, erakundeek diru gutxiago batu eta kudeatu dezaketenean, premia dutenen kopurua handitzen denean, zenbat bideratu adin txikiko horiek birgizarteratzeko? Herrialde aberatsok ordaindu beharreko ordainsaria? Ez dauka irtenbide erraza.

## Kulturateren inguruan

**Oihana Aranburu**  
(Arrasateko Kultura zinegotzia)  
Arrasate

Kulturateri buruz aurreko astean argitaratu zen eskutitzari erantzunez, egia da astelehenean larunbatera irekita egoten dela eta San Juanetan (herriko jaietan) itxita egon dela, urtero lez. Kulturateri buruz berria izanik, Udalak honen inguruko azterketa edo hausnarketa bat abiarazi du, bereziki herritarrei zuzendutako zerbitzua dela kontuan hartuta berau hobetzeko asmoarekin. Gauzak honela, uda honetarako udako ordutegia beharrez (goizeko jarduna soilik), goiz eta arratsalde zabaltzeko apustua egin dugu aurrenekoz.

Bestalde, orain dela gutxi galdeketa batzuk egin ditugu herritarren artean, horien ardatz nagusiak, ezagutza, erabilera eta horien balorazioa izan direlarik. Momentu honetan emaitzen zain gaude, aurrerantzean udako esperientziaren, galdetegiaren emaitzen eta jasotako kexuen balorazioa egingo da. Udal honek ohituraz konpromisoa du BAZen jasotzen diren kexu edo idatzieki erantzuna emateko, eta hauek kontuan hartzen dira, noski. Beraz, zure idatzia ere kontuan hartuko dugu.

Bukatzeke, zure ekarpena eskertu nahi dizugu, eta proposamen edo ekarpen berrietara irekiak gaudela gogoratu.

## Agustin Fernandezi erantzuna

**Mikel Errasti**  
Aretxabaleta

Kaixo, Agustin. Orain dela gutxi zuk bidalitako gutunari erantzunez, honakoa esan nahi nizuke. Agian, nire ezjakintasunak bultzatuta, asko harritu ninduen Kulturateri buruz zuk botatutakoak. Era laburrean esanda, gutxi gorabehera, ikasle askok ikasteko ordutegi murrizta dutela eta, gainera, azterketa garaian (San Juanetan) itxita egon zela zenion.

Bada, arrazoa daukazu. Baina errazena baloik kanpora botatzea dela uste dut. Ikasteko gelen gabezia egonda, zergatik ez dira azterketak egin behar dituzten ikastetxe edo unibertsitateak berauek zabaltzeaz arduratzen? Irtenbide erraza eta zuzena izango litzateke, ezta?

Nik ere gustura hartuko nuke, larunbat eta igande guztietan liburutegia zabalik egongo balitz (Internetik gestioak egiteko edo kultur aisialdi bezala erabiltzeko).

Zure gutunarekin jarraituz, Kulturateren gestio txarra eta

garestia egiten dela diozu. Ni ez naiz ekonomian aditua, baina horrela, besterik gabe, horrelakoak botatzea errazegia dela iruditzen zait. Gustura jakingo nuke zertan arrazoi-tzen zaren esango bazenit. Adibide zehatzak, mesedez!

Bueno, eta ez dakit herriko talde kulturalak oztupoak jartzen zaizkien. Baina hilerogoten diren liburu aurkezpen, hitzaldi, musika emanaldi, arte erakustaldi, tailer eta abarretan, nire uste apalean, Arrasateko talde kulturalak beraien txokoa dutela uste dut. Gainera, nire ustez, gauzak egin egiten dira. Gero, norberaren gustura dago parte hartzea.

Nik, agian, gustu simpleegiak izango ditut, baina dagoen programazio kulturalak edozein ase dezakeela uste dut. Ez didazu esango, dauden ekintza ugariaren artean, ez duzunik gustukorik aurkitzen? Horrela, bada, zer ikusten duzu faltan?

Ondoren Kulturateri garestia dela diozu. Bueno, eta horrela izango da, baina nire ustez, kultura, ikuspegi industrial simple batetik hartuta, beti izango da garestia. Agian, honek eskaintzen diguna kontuan hartuko bagenu, ez litzateke hain garestia irudituko. Gainera, nolako kontraesana. Garestia dela esan, baina eguneroko ordu gehiago zabaldu beharko litzatekeela diozu. Eta nola egingo zenuke? Dauden langileei orduak gehituta soldata berean?

Bueno, Agustin, ez da nire helburua polemikak sortzea. Gustura hartuko nuke zure kexuen iturria hobeto ezaguturazi eta argituko bazenit. Baina, era berean, kexaren bidez baino, zubi eraikitzaileak eta proposamenak erabilita egingo bazenu, eskertuko nizuke. Bukatzeko, gutun hau zureganako errespetu osoaz hartuko duzulakoan, agur terdi.

Post-data: arrasatearra ez naizen arren, Kulturateri izan ditzakeen gabeziak gainetik, arrasatear oro gustura egoteko modukoa dela uste dut.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



**Barrenkalea 33**  
20570 BERGARA



**Telefonoa:**  
943 25 05 05



**Faxa:**  
943 25 05 12



**Posta elektronikoa:**  
goienkaria@goiena.com

**Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!**

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEN GOIENKARIA V. LEHIAKETA



**Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak**



...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: [www.goiena.net/blogak/argazkiak](http://www.goiena.net/blogak/argazkiak)

### Baldintzak

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Debagoieneko edozeinek parte har dezake. (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Parte-hartzaileek gehienez bost argazki bidali ahal izango dituzte.
- Adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina eta telefonoa, eta argazkiaren deskribapen txiki bat.
- Astero argitaratuko dira ASTELEHENEN GOIENKARIAN.
- Urriaren Seko ASTELEHENEN GOIENKARIAN aditzera emango dira irabazleen izenak.

### Sariak

- 1. saria:** Olympus E-420 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- 2. saria:** Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n Astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne. Arrasate Bidaiak-en eskutik.
- 3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Laguntzaileak:



Harpidedun egiteko:

**943 08 10 50**  
Astelehenean egubakoitzera  
09:00etatik 18:00etara

# Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Aretxabaleta > 20-21 Oñati > 22 Eskoriatza > 23 Antzuola > 24 Elgeta > 25 Aramaio > 26 Gatzaga > 27



> OÑATI  
Usakon soroslea izango da hilaren 15ean hasita, bi hilabetez > 22



> ELGETA  
Ihes egindako txerria harrapatu nahian ibili zen Ertzaintza > 25



> ARAMAIO  
'Koadrilen arteko pikeek' arrakasta handia izan dute jaietan > 26



> LEINTZ GATZAGA  
Frontoia ixteko eta konpontzeko proiektua eginda dauka Udalak > 27

BERGARA > JENDARTEA

## Auzolandegietako gazteekin gustura pasatzen dute goiza Mizpirualden

### BIZIPOZA

Bederatzi boluntarioek laguntza eta, batez ere, bizipoza ekarri diete nagusiei

### ZALETASUNA

Gazte gehienek nagusiekin egotea gustuko dutelako eman zuten izena

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Bergarako Mizpirualde nagusien egoitzan bizipoz berria dago azken egunotan, bederatzi gazte boluntarioak eta euren hiru begiraleak egoitzako bizitzaren zati bihurtu direnetik, auzolandegi batzuen bidez. Joan den egubakoitzan ailegatu ziren, eta geroztik, astelehenetik egubakoitzera, goiza ematen dute Mizpirualdeko egoiliarrei lagun egiten eta eurendako ariketak aurrera eramaten laguntzen.

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak antolatu du auzolandegia, Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak antolatzen duen Auzolandegiak programaren barruan, eta Mizpirualden horrelako zerbait egiten den lehenengo aldia da.

Boluntario taldea zazpi neskek eta bi mutilek osatzen dute; gazteenak 18 urte ditu, eta zaharrenak, 26. Hiru bizkaitarrak dira; eta Huesca, Madril, Cuenca, Bartzelona, Teruel eta Cadizko bana dago.

### EUREN ERRITMORA MOLDATU

"Programa bat daukagu, baina azkenean nagusien beharretara eta euren erritmora moldatzen gara", dio Amets Meaza begiraleak. Hala, nagusiekin aisialdi ekintzak eta joko eta jolasak egiten dituzte; egunkaria irakurtzen laguntzen diete; psikomotritate edo memoria ariketak antolatzen dizkiete; paseatzera eramaten dituzte; eurekin berriketan egiten dute... Eguaztene-



Berriketarako eta memoria-jolasak egiteko batu ziren mahai inguruan egoiliarrek eta boluntarioak.

LEIRE KORTABARRIA

an, adibidez, mahai inguruan memoria eta hitz-jolas ariketak egiten eta kantuan harrapatu genuen Mizpirualdeko emakume taldetxo bat, hiru neskaen laguntzarekin; beste bi boluntario psikomotritate ariketak gidatzen zebiltzan; eta 11:00ak

aldera, terrazara eraman zituzten hainbat egoiliar. Den baino samurragoa ematen du, eta moldatzeko denbora behar izan zuten bai gazteek, bai eta egoiliarrek; baina orain poz-pez dabilta denok. Horrez gain, Amets Meazak dioen moduan, "boluntario-

ek bazekiten ze lan mota egin beharko zuten eta nora zetozen".

Auzolan mota hau egiteko arrazoiak askotarikoak dira, eta kasu gutxitan bakarrik dute zerikusia gazteak egiten dabilta ikasketekin; gehienetan, zaletasunak bultzatu ditu nagusiekin

lan egin nahi izatera, eta Euskal Herrira edo Bergarara, zehazki, etorri nahi izanak ere lagundu du, kasu batzuetan.

Bigarren arrazoi horren hari-arratsaldeak eta aste bukarak Euskal Herria ezagutzeko ematen dituzte: bisita gidatuak, Gipuzkoa eta Bizkaiko kostaldera irteerak, mendi irteerak, San Martzial egunean parte hartzea, euskal dantza errazak ikastea...

### GIZA-HARREMANA

Gazteak, pozik; eta Mizpirualdeko nagusiak, oraindik poziago, gazteak inguruan edukita eurak animatzen, laguntzen eta modu maitekorrean zirikatzen. Begiraleek diotenez, "lehenengo unean, arraro egin zitzaizkien eta gazte horiek nortzuk ziren galdetzen zuten, baina orain, faltan igartzen dituztenean bila joaten zatzaizkie". Mizpirualdeko koordinatzaileak, Alazne Irazabalek, beste alde on bat azpimarratzen du: "Egoiliar askok ezin dute irten, eta gazteok hemen egoteak kanpoko harremana gordetzen laguntzen die".

Oraingo taldea Bergaran izango da hilaren 14ra arte, baina pozak eta bizitasunak ez dute alde egingo Mizpirualdetik, hilaren 16an beste talde bat etorriko da-eta.

### EUREN HITZETAN



**Yaiza**  
Boluntarioa, Bartzelonakoa

"Gai sozialak gustatzen zaizkidalako eta Euskal Herrira etorri nahi nuelako eman nuen izena. Oso ondo pasatzen dugu boluntariook, eta egoiliarrek ere bai; oso dibertigarria da".



**Laura**  
Boluntarioa, Madrilgoa

"Batez ere amamarekin eta, oro har, nagusiekin egotea dut gustuko. Etxe ondoan gutxituendako zentro baten ere ibiltzen naiz batzuetan. Hemengo lana samurra egiten zait, ondo moldatzen naiz".



**Julen**  
Boluntarioa, Bilbokoa

"Bergaran gustura nago; oso giro ona dago eta jendea jatorra da. Nagusiekin marraztea, dominoan edo kartetan jokatzeko gustatzen zait. Aurretik arlo honetako ikastaro bat eginda neukan".



**Josean**  
Begiralea

"Gazteen begirale dihardut, eta lehenengo aldiz nagusiekin. Etxean aitaitarekin bizi gara eta primeran moldatzen naiz; gazteen ardura izateaz gain, nagusiekin egotea, berba egitea... gustatzen zait".

JENDARTEA &gt; BITERI PLAZA

# 'Gasolindegia' hor jarraituko du urtetan, dirurik ez dago-eta

Biteri plazaren parte-hartze proiektuaren bigarren bilerak bete du helburua: Udalak herritarren ekarpenak jasotzen dituen txostena izango du etorkizunerako

JOKIN BEREZIARTUA &gt; ARRASATE

Joan den martitzenean, hilak 7, egin zuten Biteri plazaren erabilera funtzionala aregotzeko parte-hartze esperientziaren bigarren bilera. Bigarrena, eta azkena. Izan ere, Udalak eta Siadeco aholkularitza enpresak -Aldundiak Kudeatuz programaren barruan aukeratutako aholkularitza enpresa- amaitutzat eman zuten parte-hartze egitasmoa. Ekimen berritzaile horren helburua lortu da dagoeneko: etorki-

zunari begira arrasatearren iritzi eta ekarpenak jasotzen dituen oinarritzko txostena izatea, hain zuzen ere. Hortik aurrerakoa Udalaren esku geratuko da.

**JASO, AZTERTU ETA IRITZIA EMAN** Bigarren bileran 12 herritarrek hartu zuten parte, lehenean izan zen parte-hartzearen herena.

Siadecoko kideek lehen bileran jasotakoaren sintesia aurkeztu zuten. Txosteneko lehen puntuan Biteri plazak iraganean izan zuen eta gaur egun hartzen duen funtzionalitatea azaldu zuten. Hau da: Biteri plaza erdigunean kokatua, estrategikoa eta enblematikoa da arrasatearrendako; herriko erakusleihoa da.

Bigarren atalean, berriz, egungo egoeraren inguruan egindako balorazioaren berri eman zuten: bi hitzetan, herritarrek ez dute batere gustuko. Azken atalean herritarren ekarpenak irakurri zituzten. Ondoren, Arkaitz Biain Euskara zinegotziak Uda-

laren jarrera eman zuen aditza; eta azkenik, bileran izan zirenia herritar guztiek euren iritzi eta ekarpenak plazaratu zituzten jorratu ziren gaien inguruan. Ekarpenean artean, Udalak bat edo beste nabarmendu zuen. Adibidez, ekitaldi jendetsuetarako karpak erraldoia jartzea.

**ESTALPEA, URTE ASKOTARAKO**

Ez dago dirurik, krisia Udalara ere heldu zen aspaldi. Beraz, Biteri plazaren proiektuaren barruan herritarren artean kexa gehien sortu dituen estalpea -itsusia eta erabilgaitza dela uste dute hainbatek- moldatzea inbertsio handiegia da. Udalak, gainera, erakita dagoen eta hain garestia izan den -362.000 euro izan zen estalpearen kostua- zerbait botatzeko dirua xahutzea ez du aurreikusten. Beraz, urte askoan zehar *gasolindegia* hor egon da.

Eta, epe motzera, gunearen segurtasuna bermatu eta plaza-ri bizitasuna ematea du helburua.



Lehen bilerako ekarpenen azterketa sintetikoa banatu zuen Siadecok.

J.B.

## UDALAREN JARRERA HERRITARREN PROPOSAMENEN AURREAN

> **ESTALPEA** Ez dago estalpea aldatzeko edo botatzeko dirurik, eta tamaina handiko moldaketa garestiegia da Udalarendako.

> **HORMA MUGIKORRAK** Horma finkoak jartzea garestiegia da, baina ekintzetarako mugikorrak jartzea begi onez ikusten dute.

> **SEGURTASUNA** Lehenetsunetako bat da, eta epe motzean jarriko da martxan. Altuera eta izkina arriskutsuak konponduko dituzte. Garibai kaleko zirkulazioa ezin da aldatu oraingoz, baina etorkizuneko, egun puntaletarako trafikoa desbideratzea ez da baztertzen.

> **GUNE BERDEAK** Egundak dauden lorategiak nahikoak dira, eta zuhaitzak ez dira jarriko.

> **ERABILGARRITASUNA** Umeen-dako jolaslekurik ez da aurreikusten, hainbat auzotan daudelako. Eserleku egokiak eta saltoki bat jartzea aztertu egingo da. Bestalde, Udalak agertoki mugikorraren aldeko apustua egiten du, finkoaren aurretik.

> **TABERNA** Udalak ez du ikusten taberna bat non jar daitekeen. Gainera, ondoko tabernak direla-eta, egungo araudiak ez du taberna berririk onartzen.

> **TRAFIKOA LURPERATU** Udalak ez du uste plaza erabat oinezkoa egiteko ondoko kaleetako zirkulazioa lurperatzeko proiektua egingarria denik. Teknikoki lan zaila da, plaza azpian hornidura hodiak daudelako.

SANJUANAK &gt; 'URREZKO DRAGOIA'

## Mikel Alonso eta 1992an jaiotako lagun taldea, saridun

J.B. &gt; ARRASATE

Argitu da misterioa. Berandu bada ere, badakigu zeintzuk diren 2009ko sanjuanetako *urrezko dragoiak*. Pluralean, bai. Izan ere, bi *urrezko dragoi* utzi dizkigute sanjuanek aurten. Jai batzordeak adierazi duenez, "asko kostatako erabakia izan da", baina azkenean erabaki dute: 1992an jaiotako lagun taldea eta Mikel Alonso -sariarekin zutik, ezkerrean- izan dira saridunak.

**"PARTE-HARTZEA, INPLIKAZIOA"**

Saridunek, jai batzordeak azalduenez, "jaietan erakutsitako parte-hartze eta inplikazioagatik" merezi izan dute hain garaikur preziatua. Eta parranda egiteak ere eman ditu puntuak, noski.

Azkenik, jai batzordeak *urrezko dragoiak* zoriondu gura izan ditu, "Arrasaten gazteria indartsu datorren erakusgarri" direlako. Bejondeiela, beraz, eta pres-ta dezatela 2010eko pregoia.



Mikel Alonso -zutik, ezkerrean-, 1992an jaiotako taldea eta jai batzordeko kideak, Santa Barbarako dragoiarekin. JAI BATZORDEA



OÑATI GARAJEA  
PEUGEOT ETXEKO TAILER OFIZIALA

Salmenta, mekanika, txapa eta pintura

Goribar auzoa 9, OÑATI  
Tel.: 943 78 13 50 • Faxe: 943 78 33 69  
garageonati@euskalnet.net

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



ZAHARBERRITZEAK  
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

**Erakusketa eta biltegia:**  
Kale txiki 3 behe (Musakola)  
Tel. eta faxe: 943 77 11 20

Leire Aperribai &gt; Ekin Emakumeak Elkarteko presidentea

# "Arrasaten ez dago etorkinendako Ekin elkartearen moduko zerbitzurik"

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

**Ekin Emakumeak Elkarteak etorkinunerako dituen egitekoen artean presidente aldaketa egin behar dute: Leire Aperribairen lekua hartuko du Errukane Aperribaik. Kargua utzi aurretik Leire Aperribairekin berbetan izan gara, Ekinen jardunaz eta urteotako ibilbideaz.**

**Lau urte presidente eta beste bost eman dituzu eragile; zela-ko ibilbidea egin du Ekinen urteotan?**

Lehenengo eta behin esan behar da Ekin elkartearen helburu nagusiak lortzeko daudela: emakumeon garapena eta emakumeok garatzeko baliabideak edo bideak ematea; eta emakumeon artean euskararen normalizazioa bultzatzea eta beste erakundeekin harremanak izatea. Hortaz, atzetik sartuko direnek badute beste hamar urterako-edo.

Helburu horiek oinarri hartuta, hamar urteotan landu ditugu hiru zutabe: bata da hainbat arlotan lan egin: kultura, aisialdia, ingurune soziala, osasuna eta hezkuntza; bigarrena da elkartearen lana eta eskaintza beste auzo batzuetara zabaltzea (Musakolara), eta azkenik, barne funtzionamendua hobetu.

Horrez gainera, bestelako ekimenak ere egin ditugu: kultura aniztasuna, osasun gida, neska gazteekin lotutako gaiak lantzen hasi gara... Baina Harrera Plana da gehien nabarmendu dena, azken urteotan herritarrendako harrera zerbitzu bilakatu dena.

**Zertan desberdintzen da Ekinen eskaintza herrian emakumeei zuzenduta dauden beste eskaintzekiko?**

Elkarte izaera dugu: herriko emakumeek osatutakoa, helburu batzuekin. Tartean, euskararen normalizazioa. Emakume batzuek marko erdaldunak aukeratu dituzte; baina beste batzuek euskalduna gura dute. Horiendako elkarte da Ekin.

Bestalde, aipatu behar da Arrasaten emakume mugimendua oso-oso motela dela orain. Bere garaian mugimendu feministak indarra izan zuen, baina orain, emakume mugimendu moduan ez dugu elkarerik. Bada go Ahotsak, baina horrek beste helburu batzuk ditu. Emakume Txokoa udal zerbitzua da. Guk garrantzitsu ikusten dugu elkarte izatea, norberaren burua garatu ahal izateko. Horrek ematen dizu, zelanbait, independentzia, autonomia, ekintzaile bihurtzeko. Eta hori da gure markoa: gura dugu emakumeok ekintzaile izatea eta apurtxo bat borrokatzea.

**Esan duzu Harrera Plana dela azken urteotan gehien nabarmendu dena; hori zer da?**

Hasi ginen lau urte dela, emakume etorkinekin lan egiteko. Ikusten genuen emakume etor-

kinak herritar bihurtzen direla eta elkarte moduan euren beharrei erantzun egin behar genitela, ahal den neurrian, euskara elkarte garen ikuspuntutik.

Ikusten genuen bazituztela behar batzuk eta, era berean, herritar moduan garrantzitsua zela guretako eta euren euskarara eta euskal kulturara gerturatzea; eurak ezagutzea, euskara erabiltzea –emakume euskaldunondako garrantzitsua da gure buruak ama hizkuntzan garatu ahal izateko–; baina euren ere garrantzitsua da beste kultura, emakume eta, azken batean, mundu batera gerturatzea.

Horrez gain, iaz egin genuen birplanteamendua. Etorri ziztaizkigun egoera bereziak bizi izaten zebiltzan herriko emakume batzuk (herritik kanpora bizi eta bueltatzean integrazioarekin arazoren bat dutenak-eta)... Azaldu ziren beste batzuk integrazio eta tratu txarren arazoekin... Egoera baloratu egin zen Udal Ongizate Sailarekin. Eta proposatu genuen etorkinekin egiten gabiltzana bertako emakumeekin ere lantzea. Gutxi dira hona datozen hemengo emakumeak; baina batzuk badaude, eta krisi honetan posible da halakoak gehitzea.

Bestalde, Arrasaten ez dago etorkinekiko halako harrera zerbitzurik, eta, momentuz, gizonzakei ere erantzun geniezaiekeela pentsatu genuen, eta horretan ere hasi ginen. Orain esaten dugu baztertze egoeran edo arriskuan dauden herritar guztiei zabalduko Harrera Plana dela. Urtebetean hala ibili gara, eta izandako esperientziatik egingandako balorazioa oso positiboa da.



Leire Aperribai azken lau urteotan Ekin elkarteko presidente izan da.

u.m.

**Etorkizunari begira, zeintzuk dira Ekinen helburuak?**

2007-2010 plana dugu; 2009ra arte gauza berriak egingo ditugu, ekintzak bideratu, eta 2010ean, balorazioa eta plangintza berri-rako proposamenak. Horrez gain, 2010ean elkartearen 15. urteurrena ere prestatu beharko da.

Hala ere, oro har, nahi dugu izan herriarendako eta herriarekin lan egiten duen elkarte. Garrantzitsuena da nahi dugula

izan elkarte bat non bazkideek eta bazkide ez direnek, emakume eta herritar moduan gogo, amets edo ilusioaren bat izaten badute, hori bideratzeko lekua aurki dezaten. Uste dugu, era berean, garrantzitsua dela lantaldeen bitartez funtzionatzea, lantaldeek izan behar dutelako euren egitasmoak aurrera ateratzeko tresnak. Jakina, lantaldean parte hartzen dutenek bat egin behar dute Ekinen filosofiarekin.

## HARRERA PLANA

## Harrera Planaren aurrekariak, arrazoiak eta ibilbidea

Harrera Plana da Ekin egiten dituen artean gehien nabarmendu dena. Akaso, praktikoa eta beharrezkoa delako; izan ere, etxean bertan ikusi eta ikasitakotik abiarazi zuten Harrera Plana: "60-70eko hamarkadan izan zen estatu barruko migrazioa. Hainbat emakume etorri ziren beste kultura batzuetatik, beste hizkuntza bat erabiltzen zuten guneeetatik, eta ez zen izan integrazioa; hori beharrean, segregazioa izan zen eta gure artean borrokan ibiltzen ginen. Eta ez genuen hori nahi; ikusten genuen emakumeok badugula nahiko arazo bestela ere kultura ezberdintasun horrengatik borrokan ibiltzeko; baditugu batu eta borrokatzeko arrazoiak, gure buruak garatu eta gure eskubideak eskatzeko, eta, emakume euskaldunon kasuan, hizkuntza eskubideak ere baditugu. Ikusten genuen garrantzitsua zela batzea eta ez banatzea.

### LAN ETA OSASUN ZERBITZUAK

Horri jarraiki, erabaki genuen etorri berriei edo urte gutxi zeramatzaten emakumei harrera egitea eta euren behar profesional, sozial, kultural, hizkuntza beharrei... harrera egitea. Eurekin harremanetan jartzen gara, Caritasen bitartez, batzuetan; Udalaren bitartez, beste batzuetan; edo eurak datoz gurean. Eta egiten duguna da Arrasateko edo bailarako zerbitzuak ezagutzera joan, lagunduko dietenak herrian integratzen. Adibidez: Langai, Inem, Kutxa Zeharo, Lanbide Hastapena... horiek direlako aurrenengo beharrak. Joaten gara, baita ere: bibliotekara, KZgunera, euskaltegiara... eta jo izan dugu beste elkarte batzuetara ere bai: Txatxilipurdira (askotan emakumeak haurrekin datoz edo gero

ekartzen dituzte), AEDra (batez ere, Zaharberri ezagutzen dute); Asfamogira (gurasobakarreko familien elkarte); ACABera (anorexia eta bulimiarren kontrako elkarte) eta anbulatorio, ospitale eta sindikatueta ere bai... Eurekin joaten gara eta ahal den neurrian gauzak tramitatzen ditugu (liburutegiko txartela, zitak hartu Langai/INEMen elkarrizketa egiteko...). Eta joan ginen proiektuari elementu gehiago sartzen: euskara eta euskal kulturaren inguruko ikastaroak, geriatrikoak... eta proiektua zabalteak eraman gaitu, baita ere, errealitate berrien ezagutzara eta, azkenean, hemengo emakumeak eta oro har, gizonak ere hartzera".



ETORKINEKIN Ekin elkarteko kideak etorkinekin egindako irteera batean.

EKIN

## BAZKIDEAK

## 400 emakume

Elkarte den neurrian, bazkideek osatzen dute Ekin. Bazkideak konpartitzen ditu sorburu bera duten euskalgintzako AED eta Txatxilipurdi elkarteekin. Guztira 870 bazkide dituzte, eta erdiak edo pixka bat gehiago emakumeak dira. "Bereziki 400 horiek dira gurekin lotura zuzenagoa dutenak", azaldu du Leire Aperribaik.

Oro har, urteotan Ekinen egindakoaren gaineko "balorazio positiboa" egin du Aperribaik, baina uste du, baita ere, "findu beharra" dagoela: "Gure izaerako elkarte bakarra garelako eta ildo markatu behar delako, estiloa, printzipioak..." Era berean, jendea animatu gura du "halako elkartetan parte hartzera", haren esanetan, "denok ditugulako ekarpenak egiteko eta ekarpen horretan gu ere aberasten garelako".

DANTZA &gt; 'SOKA' IKUSKIZUNA

# Soka-dantzaren tradizioa oinarri duen ikuskizun berritzailea gaur

Kukai dantza konpainia gipuzkoarrak 'Soka' izeneko ikuskizun dinamiko eskainiko du gaur Herriko Plazan, 20:00etan

JOKIN BEREZIARTUA &gt; ARRASATE

Arrasateko Udalak udari begira antolatu duen Udazabal ekimenaren barruan, Kukai dantza konpainiaren *Soka* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da gaur Herriko Plazan (20:00).

*Soka* bost dantzari eta bi perkusio-jotzailerendako pieza koreografikoa da, Kukai taldearen eta Pantxika Telleria koreografoaren arteko topaketaren fruitua. Ikuskizun dinamiko eta berritzailea da, kalea eta plaza ekinzagune dituen. Berritzailea da, baina, aldi berean, tradizioa du oinarri. Izan ere, soka-dantzan oinarritzen da; hots, garai baten gizartearen bateratzea eta parte-

Dantza ikuskizun paregabea da *Soka*, maila handiko dantzari eta musikariek interpretatua.

GOIENKARIA

hartzea irudikatzen zuen euskal dantzan. Hala, usadio zaharren dantza gaur egungo bihurtuko dute; beste begirada bat emanda. Begirada berria, gaurko gazte sortzaileen begietatik.

**PERKUSIOAREN ERRITMORA**

Dantzarien gorputz adierazpenek zuzeneko musikaren laguntza izango dute. Perkusioa izango da oinarri, eta bi musikariek instrumentu ezberdinak joko

dituzte. Dantzariak eurek ere perkusio lanak egingo dituzte emanaldiaren zenbait unetan.

Iñaki Telleria esperientzia handiko musikari gaztea arduratuko da saioaren alde musikala.

**MAILA HANDIKO DANTZARIAK**

Jon Maya da proiektuaren zuzendaria, eta, lehen esan moduan, ikuskizunaren koreografia Pantxika Telleriarekin batera sortu du. Dantzarien taldea osatzen dute Alain Mayak –zuzendariaren anaia gaztea–, Urko Mitxelena, Eneko Gilek, Nerea Vesgak eta Vanesa Castañok.

Kukai dantza konpainiak jatorri tradizionalako dantza ikuskizunak sortzen ditu. Eta, dantza tradizioa abiatuta, saio garaikideak sortzen dituzte. Talde gaztea da, baina dantzaren munduan esperientzia handia duena, aldi berean.

**ARRAKASTA HANDIKO KONPAINIA**

2001ean ekin zioten lanari, *Deidarra* izeneko koreografia aurkeztuta. Ordutik aurrera, hamai-ka lan egin dituzte, eta esanguratsuenak Ttantaka antzerki taldearekin elkarlanean ekoiztutako lanak izan dira: *1937, gogoren bidezidorretatik* (2002), *Otehi-zari biraka* (2005), *Hnuy Illa* (2008), esaterako. Lanok arrakasta handia izan dute Euskal Herrian, baina gure mugetatik kanpo ere ez dira oharkabean pasatu. Besteak beste, Argentinan, Txilen, Uruguain, AEBetan eta Erresuma Batuan izan dira.

Gonbita egina dago: goi mailako dantza ikuskizuna, ezberdina, Herriko Plazan bertan eta doan, gainera. Aitzakiarako tar- te gutxi gelditzen da, hortaz.


Gaur Los Cretinos taldeak Etxosten joko du; bihar New Jerseyko Hudson Falcons gaztetxean izango da

J.B. &gt; ARRASATE

3.60 aretoaren itxierak Arrasateko musika eskaintzan eragina izango duela ezin da ukatu. Itxierak, baina, ez du esan nahi arrasatearrak zuzeneko musika barik geratuko direnik. Aste bukaera honetan bertan bi kontzertu interesgarri izango dira: Los Cretinos laukotearena eta New Jerseyko Hudson Falcons taldearena.

**TABERNAKO GIROAN GUSTURA**

Esan bezala, Los Cretinos taldeak Etxoste tabernan joko du gaur (20:00). Garageko rocka egiten



New Jerseyko Hudson Falcons taldeak gaztetxean joko du bihar (22:30). GOIENKARIA

**MUSIKA > KONTZERTUAK**

## Musikak ez du etenik: herriko garage rocka eta AEBetako rock oldarkorra egunotan

dute, eta taberna giroan kontzertu izerditsuak ematea maite duen taldea da. Euskal Herriko txoko ezberdinetan zein atzerrian eskaini dituzte euren *crazy party*-ak. Londresen, esaterako, behin baino gehiagotan izan dira. Azken hilabeteotan baxu-jotzaille berriarekin dihardute: Jon Zabaletarekin, hain zuzen.

Bestalde, Arrasateko Dirty Acoustic Brothers taldeak ere kontzertua eskainiko du bihar Taupa tabernaren kanpoaldean (19:00). Punk-oi! ereserkien bertso akustikoak egingo dituzte.

**ARRASATE GUSTUKO DUEN TALDEA**

Zapatuan, Arrasate oso gustuko duen Hudson Falcons taldeak emanaldia egingo du gaztetxean (22:30). Esperientzia handiko taldea da, eta rock oldarkorra egiten dute, punk ukitu nabarmenekin. Taldeko gidari Mark Lins-

keyrekin ikuskizuna bermatuta dago; haren ahots urratua eta gitarra jotzeko era dira taldearen zeinu bereizgarriak. Talde amerikarraren aurretik diskoa atera berri duen Azpeitiko Friday's Crew taldeak joko du.

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa

Tel.: 943 79 76 58

ARRASATE



Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33

ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

KONTRATAK  
**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE



943 711768



X.U.

ATLETISMOA > ARRASATE KANPANZAR

# Errelebutan urrea eta beteranotan Gil onena

Arrasate Kanpanzar taldeko laukotea azkarrena izan zen Durangon egindako Euskadiko txapelketan, 4x400 metroko errelebu lasterketan

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE  
Joan den asteburuan Arrasate Kanpanzar atletismoko atletak Durangon eta Gasteizen izan ziren lehian; Bizkai aldean gazteak, eta Gasteizen beterranoak. Eta bi hitzorduetan jantzi zituzten urrezko dominak.

Durangon jokatu zuten Euskadiko txapelketan, 4x400 metroko errelebu proban Arrasateko mutilak izan ziren azkarrenak. Martin Davilak, Remi Diosdado, Josu Revuelta eta Markel Blancok osatu zuten laukotea, eta ez zuten izan kontrariorik.

4x100 metroko lasterketan, berriz, Iñigo Uribarren, Josu Revuelta, Chen Jian eta Iñigo Agirre izan ziren Arrasateko ordezkariak, eta hirugarren sailkatuta brontzea eskuratu zuten.

**EMAKUMEZKOTAN FALTA IZAN ZEN**  
Arrasate Kanpanzar taldeko jardunaldia borobiltzeko emakumezkoen domina bat falta izan zen. Eta gutxiatik ez zuten lortu Eukene Doronsorok, Oihane Urtzelaik, Uxue Bengoetxeak eta Amaia Otxoak osatutako laukoteak. Testiguaren azken entrega



Maria Jose Gil.

GOIENKARIA

## Udan, Gipuzkoako selekzioarekin

Ointxe! klubeko Mikel Atxa eta Alex Lorenzo kadeteak eta infantil mailako Iker Hernandez Gipuzkoako selekzioarekin izango dira hilaren 19tik 26ra bitartean. Gipuzkoako federazioak antolatu ditu entrenamendu saio horiek, Eibarren, jokalariek gazteak trebatzeko asmoarekin. Bestalde, Ointxe!-ko kadete mailako taldea Gasteizen izan da aste barruan, Gasteiz Cup txapelketarako gonbidatua izan da eta. Gorka Zurututza arduratuko da aurten talde hori zuzentzeaz.

> FUTBOLA

## Atzoko batzar orokorrean aurkeztu zuen Mondrak Patxi de Andres buru izango duen zuzendaritza

Mondrak atzo egin zuen batzar orokorra, eta bertan aurkeztu zuen presidente berri Patxi de Andresek zuzendaritza talde berria. Horrekin batera, aurreko urteko aurrekontuak onartzea eta aurtengo aurrekontua aurkeztea zen batzarraren helburua.

Datorren denboraldiari begira hasi dira jokalarien joan-etorriak. Andoni Amutxastegi UDAn fitxatu du eta Iker Lopezek Elgoibarren jarraituko du. UDAn ibili den Enrique Tena, berriz, Mondrara etorriko da, eta baita Unai Mutilba ere (Eibartarrak).

> MENDIA

## Besaideko mendiko bizikleta sailak irteera antolatu du uztailaren 25erako

Uztailaren 25ean Besaideko mendiko bizikleta saileko kideek irteera egingo dute Oñati aldera; hain zuzen, Araotzeko kanaletara. 09:00etan elkartuko dira Garibain, eta jatekoa eta edatekoa norberak eraman beharko du. Irteerarako izena eman gura dutenek mezua bidali behar dute [besaidemtb@hotmail.com](mailto:besaidemtb@hotmail.com) helbidera. Bestalde, domekan Toloño aldera egingo du irteera Besaidek, oinez.



Arrasateko 4x400 metroko errelebutako taldea, podiumean.

ARRASATE ATLETIKO


egitea falta zenean Arrasatekoak bigarren izan ziren, baina entrega hura lekuz kanpo egitearren kanporatu egin zituzten. Pena, zilarrezko domina eskuratuz gero jardunaldi bikaina izango zen-eta.

**MARIA JOSE GILEK, BERRIZ**

Beteranoak, berriz, Gasteizen izan ziren joan den asteburuan, Mendizorrotzan egin zuten Espainiako txapelketan, eta haiek ere ez ziren hankamotz ibili. Maria Jose Gilek, esaterako, 65 urtetik gorakoetan urrezko domina irabazi zuen 1.500 metroko lasterketan (6:32) eta 5.000 metroko lasterketan brontzea irabazi zuen (25:02). Hala, bi domina horiekin Arrasateko atleta beterranoak curriculum gizentzen jarraitzen du.

Maria Jose Gilekin batera Javier Mentxakak ere sekulako lana egin zuen, 50 urtekoen artean zilarrezko domina irabazita, eta 55 urtekoen artean lehiatu zen Cesar Diez zortzigarrena izan zen, 5.000 metroko lasterketan hura ere.

Oraingo asteburuan Arrasate Kanpanzar taldeko atletak ez dute atsedetik izango, Ordizian lehiatuko dira-eta bertan egingo duten challengean.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismok
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



Pello Goikoetxea, Agurne Barruso eta Gorka Aranegi hitzarmena sinatzen.



Etxeak eraikiko diren gunea, Tornilleria Deba zegoen orubea.

GOIENKARIA

bere ustez



Ainhoa Agirreazaldegia

## Azken egiak, isildu aurretik

**A**urreko batean esan nuen: 60 urtaro bete dira Debagoieneko euskarazko prentsan neure egiak azaldu nahian nabilenetik. Egiak, gezurrarekin ez ezik, isiltasunarekin ere usteltzen direla pentsatzen nuelako hasi nintzen idazten. Neure egiak esatea baino zailagoa zitzaidalako egia horiek isiltzea.

Etxekoek hala hezi naute: egiak ditut betazaletan iltzaturik, egiak eztarrian trabaturik. Egia horiek ematen didate arnasa batzuetan, itozten naute besteetan. Egia

**"Egia eder eta mingarrien artean bizi naiz, horiek dira nire motor"**

eder eta mingarrien artean bizi naiz, horiek dira nire motor. Ederrek indarra ematen didate, mingarriak alda daitezkeela sinesteko.

Hemen idazteko nire oinarritzko egiak izan dira, esaterako, Euskal Herriari lurra lapurtzen diola geografia tradizionalak, memoria historia ofizialak, askatasuna atzerriko justiziak, eta aberastasuna aurrerabide interesatuak. Egia itogarri horiei arnasa kentzen saiatzea baino ez zen nire ahalegina.

Mila esker nire egiak irakurtzeko tartea hartu duzuen guztioi. Gustura noa horietakoren batek min eman badi-zue. Eta besarkada estu bat, zuen/gure egiatik herrian egon ezin duzuen guztioi.

HIRIGITZA &gt; ETXEBIZITZA

# Uztailean hasiko dira San Lorentzoko etxeekin

196 libre, 52 tasatu eta gazteendako alokairu merkeko 86 eraikiko dituzte

MONIKA BELASTEGI &gt; BERGARA

San Lorentzo auzoan Tornilleria Deba lantegia zegoen orubea garatzeko hirigintza hitzarmena sinatu dute asteon Udalak, Kutxak eta Urartetxe promotoreak. Martitzenean izan zen sinadura ekitaldia eta han izan ziren Agurne Barruso, alkatea; Gorka Aranegi, Urartetxe ordezkarria; eta Pello Goikoetxea, Kutxako Etxegi XXI proiektuko ordezkarria.

Hitzarmen horri esker eraikiko ditu Urartetxek San Lorentzoko gunen horretan 196 etxebizitza libre eta 52 tasatu. Horrekin batera, Kutxako Etxegi XXI elkarteak lagundutako babes ofizialeko 86 etxebizitza ere eraikiko dituzte.

UZTAILEAN MARTXAN

Etxebizitzak eraikiko dituzten orubean aurrez lantegia egonez, eraikitze lanekin hasi

aurretik guneko kutsadura kendu egingo dute. Uztailean egingo dute hori eta eraikitze lanak irailean hasiko dira. Hain justu, etxebizitza libreetako hiru bloke –guztira bost izango dira– hasiko dira eraikitzen irailean: 49 bizitzako bloke bat eta 35 bizitzako bi bloke. Lanen lehen fase hori bi urteren buruan bukatuta egongo da: lehenengo blokea 2011ko uztailerako bukatuta egongo da; bigarrena, 2011ko

irailerako; eta hirugarrena, 2011ko abendurako.

Etxe tasatuei dagokienez, 2010ean hasiko dituzte eraikitzen, "merkatua aldeko egonez gero", Gorka Aranegi Urartetxe ordezkarriaren esanetan.

GAZTEENDAKO, ALOKAIRUAN

Babestutako etxebizitzaren kasuan, gazteendako alokairu merkekoak izango dira. "Tamainaren arabera, hileko 260 eta 300 euro arteko prezioa izango dute", Pello Goikoetxea Kutxako ordezkarriak sinadura ekitaldian azaldu zenez, eta logela bat edo bikoak izango dira. Bestetik, bost urterako alokatu ahal izango dira.

Gunearen urbanizazio lanak Urartetxe enpresak hartuko ditu bere gain. Hortaz, ingurunea urbanizatuta dagoenean hasiko dira babestutako etxeok eraikitzen, lehenengo faseko hiru blokeekin batera.

JAIK &gt; SAN KRISTOBALAK

# Auto bedeinkatzea gaur San Kristobalen

M.B. &gt; BERGARA

San Kristobal jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran Aldai-Egia auzoan. Gaur, egubakoitza, da San Kristobal eguna. Hala, 12:00etan, meza nagusia izango da ermitan eta meza ostean, autoak bedeinkatuko ditu Juan Kruz Mendizabal abadeak. Horrekin batera, erretiratuendako luncha ere egongo da eta, 23:00etan, Elizondoko JoxeAngelekin erromere-

ria. Bihar ere, zapatua, dantzaldia egongo da, 23:00etan, Kupela taldearekin.

Domekan meza nagusia izango dute berriz. 12:00etan izango da eta, gaur egingo duten moduan, meza ondoren autoak bedeinkatuko ditu Juan Kruz Mendizabal abadeak.

13:00etan Mari Jose Sardon harri-jasotzaileak erakustaldia egingo du.



Juan Kruz Mendizabal abadeak bedeinkatuko ditu autoak.

GOIENKARIA

trinmer  
telecomunicaciones

tdt  
televisión digital  
terrestre

## Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitetz TB digitalera.

**TRINMER 20 urte antenetan**

LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne


TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305  
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR  
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxe: 943 20 73 60  
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

## TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak  
Txitxizotzak  
Kazolatxoak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel.: 943 76 39 53

# MIZPILDI



# OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA



Oinatz Urbistondo > Txurrerixia kioskoko

# "Pena ematen digu kiosko zaharra lagatzeak, berrira pasatu arren"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Bideberriko berrurbanizazio lanak direla eta, Txurrerixia moduan ezagutzen den kioskoa desagertzeaz dago, nahiz eta negozioak jarraitu egingo duen. Hain justu, San Martin plazan egon den kioskoa erabiliko dute aurrerantzean. Kioskoa berritzearekin batera, haren arduraduna ere aldatu egingo da. Isabel Valle erretiratu egingo da eta haren alaba Oinatz Urbistondok segituko du familiaren negozioarekin.

## Noiz hasiko zarete kiosko berrian?

Aste bukaeran. Zapaturako martxan egon nahiko nuke, egin beharreko garbiketarik egin eta gauzak kiosko zaharretik berrira eramanda izatea ordurako. Kiosko zaharra bota egingo dute. Bideberriko lanak egiten diharduten langileek botako dute. Oso zaharra da eta ezin da lekuz aldatu.

## Pena emango dizue; izan ere, urte asko daramazue bertan familiak.

Duela 30 urte ireki zuen Migel Mendibilek, *Migel txurrerua*-k. Izan zuen kioskoa hiru edo lau urtez, eta izena, Txurrerixia, hortik dator. Gero hartu zuen gure familiak; amama Valenek. Eta amamak hartu eta gero egon ziren gure aita Javier eta izeba Arantxa.

Nahiz eta aitaren familiaren-gandik datorren kioskoa izan, aitak beste zeregin batzuk zituen eta nire ama Isabel Valle hasi zen kioskoan lanean izeba Arantxarekin batera. Denbora batera izebak laga egin zuen eta ama geratu zen kioskoarekin.

Bestalde, urbanizazio lanengatik izan ez balitz, guk ez genukeen kioskoa orain aldatuko. Ez da halakoetarako momenturik egokiena. Duela lau urte egin genuen eskaria Udalean aldatzeko, baina orduan ez zuen aurrera egin. Bestetik, pena handia ere ematen digu. Gure txokotxoak da, eta, bestea berria izan arren, ez du guretzat halako xarmarik. Berria Fraiskozuriko edukiontzien ondoan jarri dute, baina bizpahiru aste bakarrik egingo da



Oinatz Urbistondo, Txurrerixia parean.

MONIKA BELASTEGI

## "Urbanizazio lanengatik izan ez balitz, ez genukeen kioskoa orain aldatuko"

hor, urbanizazio lan guztiak bukatu eta behin betiko lekura eramanez arte, errepide ondora.

## Aurrera zuk izango duzu kioskoaren ardura.

Gehiago edo gutxiago, beti egon nahiz kioskoan, baina buru-

## "Aurrerantzean neuk izango dut kioskoaren ardura, ama erretiratu egingo da-eta"

belarri azken lau urteetan aritua naiz. Orain, ama erretiratu egingo da eta nik hartuko dut ardura.

## Txurroekin hasi eta zein izan da bilakaera produktu aldetik?

Txurroekin batera boladun izozkia ere saltzen zen hasieran.

PLAZAKO KIOSKOA

## Udalak erabaki du San Martin plazan kioskorik ez jartzea aurrerantzean

Aurrerantzean ez da kioskorik egongo San Martin plazan, Udalak hartutako erabakiaren arabera. Arduradunak kioskoa laga egin duela eta hartu du erabaki hori. Agurte Barruso alkateak azaldutakoaren arabera, hainbat arrazoi izan dituzte kontuan erabaki hori hartzeko: "Duela urte asko plazan kioskoa jarri zenetik hona soziologia aldatzen joan da. Gaur egun leku askotan saltzen da egunkaria, okindegiatan esaterako, eta gune horretan halako zerbitzua badago".

Beste arrazoi bat ere eman du alkateak: "Kontuan izanda Seminarioari pisuzko erabilera eman nahi zaiola, bada, fatxada parean kioskoa jartzea ez dugu egoki ikusten".

Baina poliki-poliki hori laga egin zen; izan ere, egunkariak sartzen hasi ziren, gozokiak, bestelako izozkiak... Gaur egun bazarra ematen du: egunkariak eta horrek ekartzen dituen operari eta promozioak -katiluak, liburuak, mahaitresnak...- aldizkariak, gozokiak, izozkiak... Eta, gainera, mugikorrek ere kargatzen ditut, eta baita Lurraldebus txartela ere.

## Zein dira kioskoan lan egitearen gauza onena eta txarrena?

Onena, jendearekin harremana eta inork agintzen ez dizula. Txarrena, oso lan lotua dela. Irabazten da lan egindakoaren arabera.

## Herrian geratu den kiosko bakarra zara.

Bai. Ez naiz batere pozten, plazakoari ez zaiolako ondo joan. Orain, hango berezoetako batzuk gurera datoz.

## Okindegiatan egunkariak saltzeak min egingo zizuen.

Bezere askorendako erosoa goa izaten jarraitzen du kiosko-erortzea, ez delako denbora galtzen dendara sartzen eta ezta ilaran ere.

## oharrak

TXOSNAK

### > Irailean, San Martin jaietan txosnak hartzeko deialdia egin du Udalak

San Martin plazan eta Seminarioko patioan jarriko dituen txosnak hartzeko deialdia da. Bergarako irabazi asmorik gabeko entitate edo elkarteek aurkez ditzakete eskariak. Epea bukatuko da uztailaren 24an, 13:30ean.

IRTEERA

### > San Joxepe elkarteok mendi ibilaldia eta irteera antolatuko dute

Mendi ibilaldia izango da hilaren 13an, Hendaia eta Donibane Lohizune artean. 08:00etan abiatuko dira autobus geltokitik. Bazkaria Hondarribiko Olatu jatetxean egingo dute. Hilaren 20an, berriz, ibilaldia egingo dute Garaio, Maturana eta Oatza artean. Bazkaria Oatza izango da. Izenematea da elkartearen bulegoan.

DEIALDIA

### > Kultura taldeendako dirulaguntzetarako izenematea zabalik dago

Irabazi asmorik gabeko taldeendako laguntzak dira. Eskaerok aurkezteko lekua da Udaleko Erregistro Orokorra, asteleheneetik egubakoitzera, 09:00-13:00 orduetartean. Oinarriak [www.bergara.net](http://www.bergara.net) webgunean eskura daitezke.

> LEHIAKETA

### Azokako paretarako grafiti lehiaketa deitu du Kultura Sailak

Helburua da azokan hutsik dagoen 7,05x8,2 neurriko paretan margotzea. Hala, lehiaketara aurkeztutako lanen artean epaimahiak aukeratu dute grafitia margotzeko dute egileek paretan horretan. Grafitiaren zirriborroa aurkeztuko da 34x29 cm-ko neurrian, formatu bertikalean eta euskarri gogorrean. Era berean, CDan ere aurkeztu beharko da. Aurkezteko azken eguna da hilaren 27a, kultura etxean edo [kultura@bergara.net](mailto:kultura@bergara.net) helbidean.

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA

BIZKOTXOAK. ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

**Larrañaga**

San Pedro, 9 - Telefono. 761051

R. S. I. 209374 - SS

**BERGARA**

**ARRI**

Industri hornidura  
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA  
Tel.: 943 76 19 04  
Faxa: 943 76 43 03  
Sakelakoa: 656 78 64 84

**ARANE**  
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.  
BERGARA  
Tel.: 943 76 74 09  
670 483 903

MUSIKA &gt; 'OSTIRAL MUSIKALAK'

# Molde guztietako emakumeen kezkak

Mamassita Pro taldeak kontzertua emango du gaur, 22:30ean, Espoloian, eta eskarmentu handiko lau emakume musikariek osatzen dute



Ahotsa, baxua, perkusioa eta bibrofonoa izango dira protagonista.

GOIENKARIA

ARANTZAZU EZKIBEL &gt; BERGARA

Molde guztietako emakumeen kezkak, sentimenduak eta buruhausteak islatuko dituzte Mamassita Pro taldeko emakumeek gaur Espoloian. 2008. urtean emakumeen urtearen harira

sortutako taldea da Mamassita Pro. Eskarmentu handiko lau emakumeek osatzen dute taldea: Carmen G. Diez, Amaia Cantero, Virginia de la Casa eta Maria Jose Estivariz da Silvak. Ahotsa, baxua, perkusioa eta bibrofonoa

izango dituzte taula gainean gaur lagun musikariek.

#### ABESTI EZAGUNAK

Bortizkeriaren aurkako mezuak adieraziko dituzte Tina Turnerren *I don't wanna fight* gaiarekin, adibidez; eta gizakiaren ahultasuna, oster, Stingen *Fragile* gaiarekin.

Beste gai batzuek errebeldia eta gizartearen hipokrisia dituzte hizpide. Mamassita Pro proiektuak emakumeen ikuspuntua azaldu nahi du, musika estilo jakin bati jarraitu behar barik.

#### ABESLARI BIKAINAK

Proiektuko partaideak eskarmentu handiko emakumeak dira. Cantero Betagarri eta The All-nighters taldeetan ibili da. Gaur egun Gasteizko Riff musika eskolan da irakasle. De la Casak, oster, Ruper Ordorika, Doctor Deseo eta Eric Clapton musikariek egin du lan. Maila bikaina duten abeslariak dira.



Beste batzuetan ez bezala, oraingoan kalean abestuko du Orfeoiak.

GOIENKARIA

MUSIKA &gt; ORFEOIA

## Aspaldiko ohiturak berreskuratzeko asmoz, musika kalera aterako dute

A.E &gt; BERGARA

Bergarako Orfeoiak kontzertua emango du bihar Domingo Irala kalean, 20:00etan. Lehenengo aldia da Orfeoia kalera ateratzen dena, eta, Aitor Biain zuzendariaren berbetan, helburua Orfeoia entzutera joaten ez den jendearengana iristea da. "Kontzertu berezia izango da. Asmoa da kantua kalera ateratzea. Lehen, ohitura handia zegoen kantuan ibiltzeko, eta giro hori berreskuratu gura dugu. Bestalde, Orfeoia entzu-

tera elizara edo antzokira etortzen ez den jendearengana iritsi gura dugu, euren giroan, trago bat hartzen dabiltzan bitartean", azaldu du Biainek.

Abesti herrikoiak abestuko dituzte, kalean abesteko modukoak: *Isil-isilik dago*, *Hegoak ebaki banizkio*, *Kalian gora kalian behera...* eta baita kantu espiritualak eta irlandarrak ere. Kontzertuak ordu erdi iraungo du, eta biharkoarekin denboraldia amaitutzat emango du Bergarako Orfeoiak.



# IRURAK MARGOAK

## DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak  
Moketa eta sintasola  
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak  
Harea zorrotada  
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984

Faxa: 943 76 09 32

**FUTBOLA** > IPINTZAKO TXAPELKETA

## Hamaika Jintxi eta River Santana, finalerako sailkatuta

Gaur, egubakoitza, jokatuko dute bi talde horiek ligako finala, 19:30ean, Ipintzan

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Ipintzako futbol txapelketa iritsi da azken txanpara, eta gaur, egubakoitza, arratsaldean jokatuko dira 11nako futboleko finalak, bai ligan, baita kopan ere.

Kopako finala 18:00etan jokatuko dute Beticup eta Indargorri taldeek, eta ondoren etorriko da ligako finala, Hamaika Jintxi eta River Santana taldeek jokatuko dutena (19:30). Astelehenean eta martitzenean jokatuko zuten finalerdiak. Astelehenean, Hamaika Jintxiren eta Lajuvereren partidua penaltietan erabaki zen, eta martitzenean River Santanak 3-0 irabazi zion Txokokuak taldeari.

tu zituzten finalerdiak. Astelehenean, Hamaika Jintxiren eta Lajuvereren partidua penaltietan erabaki zen, eta martitzenean River Santanak 3-0 irabazi zion Txokokuak taldeari.

**EMAKUMEZKOAK, BIHAR**

Emakumezkoen txapelketako finala bihar, zapatua, jokatuko dute, 12:00etan. Atzo ziren jokatzeokoak finalerdiak, eta baita beteranoen finala ere.



River Santanak ezker hegaletik min egin zion Txokokuak taldeari.

x.u.

**ZIKLISMOA** > LOKATZA TXIRRINDULARI TALDEA

# Sumofic taldeko Xabier Arantzeta Euskadiko txapeldunorde izan da

Mendaron egin zuten Euskadiko txapelketan Antzuolako ziklista bigarrena izan zen, Apalategiren atzetik

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Zapatuan egin zuten Mendaron gazte mailako Euskadiko txapelketa, eta tropeleko gizon indartsuenetakoa zela erakutsita Xabier Arantzeta (Sumofic) bigarren helmugaratu zen.

Lasterketa hasieran 15 laguneko ihesaldia sortu zen, eta bertan zegoen antzuolarra. Kalbarriko lehenengo igoerak lasterketa apurtu zuen eta bigarrenak berriz, lasterketa erabaki. Kalbarriko bigarren igoeran Arantzeta, Intziarte (AZetxe) eta Apalategi (AZetxe) izan ziren indartsuenak. Apalategik jaitsieran alde egin zuen, garaipena eskuratzeke nahikoa. Helmugan bigarren Arantzeta izan zen.



Arantzeta, Mendaron, tropelaren buruan.

LOKATZA

**KADETETAN, HODEI OROBENGOA**

Arantzeta lorpene ez zen asteburuko bakarra izan, kadete mailan Hodei Orobengoa bigarren izan zen eta Tolosan egin zuten Amaroako XII. sarian. Altzo lehenengo aldiz igo zutenean sortu zen eguneko ihesaldia. Lau ziklis-

tak osatu zuten ihesaldia, eta tartean zen Sumoficekoa. Orobengoa eraso egin zuen Altzoko bigarren igoeran, baina harrapatu egin zuten. Esprintean Unai Jaurregi (Belca) izan zen azkarrena eta Orobengoa (Sumofic) bigarren helmugaratu zen.

**BICIPRECISIÓN IGARTUA** BERGARAn, Zubieta kalean 943 76 11 21  
Sei hilabetetan ordaintzeko, interes barik!

Uztailan 2010eko  
gama dendan

LAPIERRE™



[www.lapierrebikes.es](http://www.lapierrebikes.es)

**Errepideko bizikletetan eskaintzak:**

	LEHEN	ORAIN
* Pinarello FP5 Centaur	2.900 €	2.090 €
* Cervelo S1 Shimano Ultegra karbonozkoa	2.400 €	1.800 €
* Cervelo R3 Sram Red	5.980 €	3.990 €

Goka Zero 8 Centaur *	1.650 €
Goka One.1 Centaur *	1.650 €
Goka Knife Centaur *	1.650 €

\* OPARIA: Ride On Goka kotoizko bi galtzerdi kita + Goka Sport betaurrekoak (3 lente gehiago) + Goka Tuno eskularru motzak + Goka Xprint errepiderako kaskoa + Goka mahuka motzeko maillota + Goka udarako tirantedun kulotea

cervélo



[www.cervelo.com](http://www.cervelo.com)

**Mendiko bizikletetan eskaintzak:**

	LEHEN	ORAIN
* Orbea aluminiozkoa freno hidraulikoarekin	700 €	475 €
* Orbea aluminiozkoa freno hidraulikoarekin Master	980 €	699 €
* Goka Desert Deore osoa	990 €	639 €
* Goka Alpine SLX osoa	1.100 €	738 €
* Orbea aluminiozkoa	--	239 €
* Orbea alma karbonozkoa	2.200 €	1.500 €

Autoan Thule bizikleta-eramatekoa Lehen:750 € **Orain: 360 €**  
Parrillak, alforjak... zure bidaietarako aukerak

Inaxio Garro &gt; Alkatea

# "Udako oporrak hartu aurretik gobernuan aldaketak egon daitezke; lanean gabiltza"

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABALETA

Bi urte daramatza alkate lanetan Inaxio Garrok. EAekin osatu zuen Udal gobernu Aralarrek, baina azaroan gobernu uztea erabaki zuten EAko zinegotziek. Ordutik gutxiengoan gobernatzen du.

## Zelakoak izan dira bi urteok?

Positiboak, kontuan izan arren zein egoeratan gauden Udalean: boto gehien eskuratutako alderdia Udal kudeaketatik kanpo eta udalbatza egoera desegonkor, deseroso eta injustuan. Bestetik, egoera ekonomikoak hainbat kontu baldintzatuko ditu, lehengo diru iturri batzuk agortu egin direlako eta beste batzuk murriztu. Hala ere, agintaldi hasieran proposatutako proiektuak eta jokatzeko erak bideratu ahal izan ditugu. Hau da, ahal bezain modu argi eta zabalenean jokatzeko herritarrei begira. Horregatik sortu dugu *Arratabe* udal aldizkaria eta Arku-pen informazio panela jarri dugu.

## Horren ildotik herritarren parte-hartzea bilatu duzue?

Bai, parte hartzeko herri dinamika bultzatu ditugu. Hemen sartzen dira 2007an egindako Hirigintza Plan Nagusiaren aurrerakina, 2008ko Euskararen Plan Estrategikoa eta orain landutako Kulturaren Plana. Aldundiak bideratutako Kudeatuz programarekin ere bat egin dugu.

## EAK gobernu utzi izanak baldintzatu du Udalaren jarduna?

Aralarren jarduna baldintzatu du, ardura eta lan karga areagotu dizkigulako. Eta Gobernu Batzordea gutxiengoan utzi zuen, indar barik, eta aberastasunean



Inaxio Garro alkatea, udaletxean duen bulegoan.

MIRARI ALTUBE

ere galdu egin dugu -beste ikuspuntu batzuk izateko aukera-.

## Gutxiengo horri irtenbideren bat emateko asmorik baduzue?

Udako oporrak hartu aurretik gobernuan aldaketak egon daitezke, horretan gabiltza lanean eta ildo eta helburu batzuk adostuta ditugu. Gehiago finkatu behar ditugu helburu horiek.

## Eta egoera ekonomikoak baldintzatuko du Udalaren jarduna?

Hurrengo urtetarako herstu-

**"Metodologia proposatu dut hurrengo urtetarako austeritate plana bideratzeko"**

**"Zorpetze tasa txikienetakoa dugu eta kirol etxearen proiektuak aurrera egin du"**

ra edo austeritate plana bideratzeko metodologia proposatu dut Ogasun Batzordean. Kirol etxearen proiektuaren eraginez, beste inbertsio batzuk kontu handiz egin beharko ditugu. Zorionez, zorpetze tasa txikienetakoa duen herria da gurea, %1etik behera, eta egoera horrek kirol etxearen proiektuarekin aurrera egiten utzi digu. Okerrenean ere, Udalaren zorpetze %12koa izango da, eta ordainetan kirol instalakuntza osatu, dotore, moderno eta erakargarria izango dugu.

**Langabezia %11n dago herrian, eta gero eta familia gehiago egon daitezke egoera larrian.**

Bai, horregatik austeritate planak ez dio eragingo ongizateari eta ahalegin handia egingo dugu beharrezko horien eraginean iristeko.

**Gainera, hainbat enpresak herri-rik alde egin dute. Enpresei laguntzeko modurik baduzue?**

Mankomunitatearekin gabiltza lanean, herriko enpresen egoera zelan hobetu aztertzen. Momentuz zirriborroa daukagu eginda.

**Burukomina eman dizuen beste kontu bat autobidea izan da.**

Bai, autobideak eragindako lurren jabeekin bilera asko egin ditugu, baita Bidegiko Borja Jaurigirekin ere. Autobidearen lanen ondorioz sortutako kalteak murrizteko agindutakoa ez dabilta betetzen eta jabeak haserre daude.

**Zaharren egoitza berria zabalik dago, baina ez dakit pozik dauden herritarrek...**

Urats Gainen zeuden 12 langileak berriantze sartzea lortu dugu eta pozik daude. Egoiliarren pena handiarekin joan dira eta galdu egin dute erosotasun eta askatasunean; lehen beste malgutasun bat zuten eta, orain, kontrol zorrotzagoa. Ingurua ez dute txukuna, baina etxeen eta autobidearen lanak bukatutakoan polita geratuko da.

**Lausitta ingurua diozu...**

Bai, lan asko jasan behar izan dituzte azken urteotan eta ahalegin berezia egingo dugu ingurua txukuntzeko: altzari berriak, ume parkeak aldatu eta bertako etxeen aurrealdeak garbitu.

## GAINERAKO ALDERDIEN BALORAZIOAK

Lore Martinez

EUSKO ALKARTASUNA

### "Udal kudeaketan deskoordinazio handia dago"

"Orain jasaten ari garen krisi ekonomiko egoeran, Udalak aurreikuspen eta ardura gehiago eduki beharko luke. Esate baterako, kirol etxearen proiektuaren errebisioa eskatu genuen, kostua gutxitu aldera, proiektuak suposatuko zuen zuloagatik eta beste gauza asko aurrera eroateko dirurik ez zelako egongo. Esan eta izan.

Udaleko kudeaketan deskoordinazio handia dago, gauzak egiteko eta antolatzearen eranda. Ez da etorkizunean pentsatzen, beti epe motzerako irtenbideak ematen dira. Intentzioak bakarrik ez du ezertarako balio".

Arritxu Oliden

EAJ

### "Ahuleziak jotako hiru kidez osatutako exekutiboa dago"

"Udalaren jarduna motelitasunak markatzen du. Ondo engranatu bako koalizio gobernuak ez zuen jakin izan martxa hartzen, eta apurketa ostean, ahuleziak jotako hiru kidez osaturiko exekutiboak geratu da herria. Norabide garbi barik, ekimen berri gutxi eta, batez ere, eraginkortasun ahalmen eskasa. Bi urteotan gauzatutako proiektuak, gehiengo zabalean, aurreko agintaldian erendako landareen fruituak dira. Eta guk pozik ikusten dugu epe luzerako ikuspegiak egindako lanak herriarentzat bide segurua eta onak finkatzen dituela. Berdin jarraituko dugu: arduratsu lanean, krisialdi egoera estu honetan inoiz baino gehiago".

Ainhoa Sagarribai

PSE-EE

### "Udalak duen erroka nagusia da kirol etxea egitea"

"Duela hilabete batzuk EAK gobernu utzi zuen. Geroztik Aralarrek du bere gain zama guztia. Udalak duen erroka nagusia da kirol etxe berria egitea. PSE-EE proiektuaren alde agertzen da, baina honek eskaintzen digu Egonkortasun Plan Finantzario bat burutzea. Krisi egoera ezin dugu ahaztu; erakundeek diru gutxiago izango dute. Aurrekontuan, Enplegu Poltsa eta Enpleguaren aldeko Plan Muzipala egitea lortu genuen, enpresen eskaerak ezagutzeko eta herritarrek jakiteko zein irteera dituzten. Gobernu Zentralak, E-Planaren bitartez 1.160.000 euro inbertituko ditu herrian; Udalak zituen hiru proiektu beteko ditu".

Tomas Fernandez

EZKER BATUA-BERDEAK

### "Aurrekontuaren kudeaketaren zain gaude"

"Lehen urteko balorazioa positiboa izan zen: ongizatera bideratutako aurrekontuen igoera... Nahiz eta zerbitzu publikoen kudeaketaren gaineko ezberdintasunak izan.

Aurtengo balorazioak argi-ilunak ditu; ongizatera bideratutako aurrekontuen igoera mantentzen da baina iluntasuna Udal gobernuaren ahuleziak dakar. Hala ere 2009ko aurrekontuaren kudeaketaren zain gaude, guk proposatutako partidak daudelako: etxe sozialak kuartel zaharretan eta lehengo zaharren egoitzarendako planteamendu bat. Lehenetsuna izan beharko lukete, eta kudeaketan Udal gobernuari lagun egiteko gertu gaude".

Anjel Bergaretxe

KARGURIK GABEKO HAUTETSIA

### "Demokrazia eta legitimitate falta dira aipagarrienak"

"Bi urteko balorazioa egitean, jakina, gauzarik aipagarriena, demokrazia eta legitimitate falta da, eta egoera aldatzen ez den bitartean salatzen jarraituko dugu. Bestalde, azken urteko gauzarik kezagarriena gobernu taldearen haustura izan da. Ondorioz ikusten ari gara zera da: alde batetik gobernu ahul bat (beraien eruz, neurri batean), eta bestalde, oposizioko alderdiak, herri interesen alde laguntzeko baino, egoeratik nork bere etekin ateratzeko gertuago. Horri guztiari krisiaren eragina erantzen badiogu, egoera batere ona ez dela esan genezake. Gu, behintzat, arduratuta gaude".

# ANTZUOLAKO JAIAK 2009



JOSETXO ARANTZABAL



Reyes Catolicos 15  
GASTEIZ

## EUSEBIO GONZÁLEZ MARTÍN

Bach doktorearen Lore-Terapia

Akupuntura eta Laserpuntura SU-JOK

Akupunturako meridianoen analisi energetikoa (GDV sistema)

PSIKOLOGOA

**JAI ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIEI!**



Aiherra kalea 3, behea ezk.  
ANTZUOLA

Tel.: 605 76 93 46  
[eusebiogm@euskalnet.net](mailto:eusebiogm@euskalnet.net)

## alkatearen agurra

## Ondo pasa Antzuolako jaixetan!



Pedro Iturbe

**P**asatu dira 365 egun, eta berriro ere Antzuola jaixetan! Pozik eta gogoz hartuko ditugu aurten ere, jakina, baina zenbait lagun eta herritar jaixak gozatu ezinean dira, gaixotasun edota hainbat arazo tarteko. Horiekin guztiekin gogoratuko gara aurten ere, baita Eltzikortarekin ere, 4.380 egun erbestean eman baititu honezkero.

Urte guztian krisia gora, krisia behera ibili garen honetan, haize freskoen beharrrak itotzen gaitu; algara beharra daukagu eta, egia esan, jai garaian Euskal Herrian, krisiek sekula ez dute izan lekurik.

Haize freskoak aipatu ditut, eta aurten ere jaiak izango dute haize fresko eta berri-rik. Etorkizunera begira jarriko gara aurten-goan, eta alardearen aldaketak ikusiko ditugu: gure mairu berria ezagutzeko parada izango dugu, besteak beste. Etorkizuneko abiapuntua da, beraz, aurtengoa. Eskertu egin behar da alardearen biziberritzearen inguruan lanean ibili diren herritarren lana.

Herri nortasunaren emaitza behar du izan alardeak, gaur egungo Antzuolan oinarritua, herri balore eta herri koloreen ispilu, guztion ispilu. Aldaketaz hornituko da alardea, eta aldaketaren ateak zabaltzera

goaz datozen urteotan, antzuolarrak mundukide garelako eta besteek ere antzuolar bezala maite gaituztelako. Bada garaia gure arbasoek egin bezala, munduko hainbat eta hainbat Baldejunkera horietara abiatu eta gure beharra dutenak laguntzera joateko, izan badelako munduan behar gorrian bizi denik. Herrien arteko elkartasunez, gizon eta emakumeen arteko berdintasunez, kultura ezberdinen arteko miresmenez eta guztiok guztioi zor diogun errespetu eta aitortzaz, egin dezagun gizalegez dagokiguna eta gure arbasoek erakutsi zigutena.

Ondo pasa Antzuolako jaixetan!!!

## argazki zaharra

## Eskopeta hotsa, alardearen ahotsa

Mairuaren alardea jaietako ekitaldi nagusia. Antzuolan zeinek ez ote du ikusia?

Ikusia eta entzuna. Eskopetaririk gabe izango luke alardeak zentzuna?

Umeez eta helduek plaza betetzen zuten eta belarriak tapatu eta protagonistak inguratu; baina badaezpada jaietan hain ezagunak diren tiro hotsekin ez gortzeko belarriak ohi zituzten tapatu.

Aurten izango da hainbat aldaketa, baina, plaza baietz egon beteta.

Jose Luis Kortabarría, argazkiko kapitaina zuten aldatu, eta mairua, iaz agurtu ostean, aurten zeinek ordezkatu?

Antzuolarren galdera: alarde berria nolakoa izango ote da?

**Argazkia:** Antzuola 1900-1970.

Antzinako argazkien bilduma.

**Urtea:** 1960ko hamarkada.

**Testua:** Irati Agirreazaldegi



## TXOMIN GARAJEA

ZORIONAK  
GUZTIO!!

Mekanika orokorra

Tailer profesionala

IAT/ITVrako prestaketa

Lizarraga auzoa. ANTZUOLA. Tel.: 943 78 70 77



IGELTSEROTZA S.L.

## Ondo pasau jaixak!

ZAHARBERRITZEAK: Fatxadak • Bainugela eta sukaldea • Lokal komertzialak • Teilatuak

Kalegoi 9 -1 • ANTZUOLA

Tel./ Faxe: 943 76 60 89 • Sakelekoak: 615 76 56 50 / 615 76 56 51

E-posta: zabalosl@hotmail.com

EGITARRAUA

# JAIETAKO EGITARRAUA



EGUBAKOITZEAN, UMEENDAKO JOLAS PARKEA EGONGO DA HERRIKO PLAZAN.

## Eguena, 16

**12:00** JAIEN HASIERA. Kanpaiak, serpentinak, globoak... Alkate eta alkatesa txikien saioa.  
**0ndoren** Umeek UDALKUETAN GERTATUTAKO IKUSKIZUNA, Herriko plazan. BATUKADA kaleetan.  
**14:00** UMEEN HERRI BAZKARIA.  
**16:00** ZIRKOLATZEN, zirko ikuskizuna eta zirko tailerra gune hauekin: malabarrak, oreka kablea, oreka pelotoia eta akrobazia.  
**18:00** KALEJIRA, txistulari, trikitilari eta buruhandiek.  
**19:00** TXOSNAK zabaltzea Zurrategin.  
**19:00** SALBEA abesbatzarekin. Antzuolako abesbatzak Alfonso Ugarteren Salbea kantatuko du.  
**20:15** Oinarineko umeekin IKURRIN DANTZA. Besteak beste, aurtan dantza ikasten hasi diren umeen lehen saioa izango da.  
 - Antzuolako bandera eta ikurrina jasotzea.  
 - Udaltzaren aurrekua, Oinarinek lagunduta.  
**22:00** IZER, ALABIER ETA LUTXURDIO-rekin erromeria.  
**24:00** HONTZAREN JAITSIERA Kanpandorretik udaletxera. Txistulariei esker ona adierazi nahi zaie; horregatik, euren emango diote ongi etorria hontzari.

## Egubakoitza, 17

**09.55** TXEPLEROA jaurtiko da.  
**10:00** Txistulari taldearekin GOIZERESIA.  
**11:00-13:30** Umeendako JOLAS PARKEA plazan.  
**11:30** Meza nagusia.  
**11:30** Antzuolako 2. GASTRONOMIA LEHIAKETA pilotaleku txikian. Paella lehiaketa.  
**13:30** EPAIMAHAIAREN ERABAKIA eta paella lehiaketaren sari banaketa.  
**0ndoren** paella DASTATZEKO aukera.  
**16:30** MUS TXAPELKETA Zurrategin, txosna batzordeak antolatuta.  
**16:30- 18:30** JOLAS PARKEA Herriko plazan.  
**17:30** ALTXORRAREN BILA Zurrategin, txosna batzordeak antolatuta.  
**19:00** 1. mailako afizionatuen PILOTA PARTIDAK pilotalekuan. KALEJIRA Antzuolako trikitilari gaztetxoekin.  
**19:00** PONIAK ETA ZEZENTXOAK Zurrategin, Antzuolako trikitilari gaztetxoaren eskutik.  
**22:00** BIDE BATEZ-ekin dantzaldia Herriko plazan.  
**23:30** SUZKO ZEZENA.  
**24:00** BIDE BATEZ-ekin dantzaldia Herriko plazan.

## Zapatua, 18

**07:00** TXOKOLATE JANA txosnetan.  
**09:55** KANOIAK SUTZEA.  
**10:00** Txistulari taldearekin GOIZERESIA.  
**11:30** Bergarako bandaren KALEJIRA.  
**12:00** Kulki taldearekin JOLASAK Ondarren.  
**12:30** BERGARAKO BANDAREN kontzertua Zurrategin. Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque  
**19:00** Mairuaren alardea Herriko plazan ALARDE BERRITUA ikusteko aukera.  
**20:15** OINARIN taldearen saioa.  
**21:30** HERRI AFARIA Zurrategin, txosna batzordeak antolatuta.  
**23:00** KONTZERTUA Zurrategin.  
**23:30** SUZKO ZEZENA Herriko plazan  
**00:00-01:30** CÓCTEL LATINO taldearen saioa Herriko plazan.  
**00:30-02:30** Borondatezko ALKOHOLEMIA KONTROLA. Kontrola egin eta informazioa emango da.

## Domeka, 19

**07:00** TXOKOLATE JANA txosnetan. Goizaldean etxerako gogorik ez dutenendako.  
**11:45** SALDA jubilatuen eskutik.  
**12:30** ACORDES NAVARROS taldearen eskutik nafar jotak Herriko plazan.  
**18:00-21:00** DRAGOIALDE txarangaren saioa Herriko plazan eta kaleetan zehar.  
**19:00** PINTXO ETA SAGARDO SOLIDARIOAK Herriko plazan. Bildutako dirua Anelkarrek dituen proiektuak laguntzeko izango da.  
**21:00** LARRAIN DANTZA, Ondarreko gaiteroak lagun direla.  
**21:15** JOSELU ANAIK taldearekin erromeria Herriko plazan.  
**24:00etatik aurrera** TXOSNETAKO EDARIAK EURO BAKARREAN.  
**01:00** JAI BUKAERA Herriko plazan.




OINARIN TALDEKO DANTZARIAK.

**Aixa**  
frutategia

Buztinzuri 6 behea Antzuola  
Tel.: 943 78 62 69



JAI ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIOI!



*Gabilondo - Arregi*  
harategia - urdaitegia

Zorionak antzuolar guztioi!

KALEBARREN 5

943 76 62 90

ANTZUOLA

## MAIRUAREN ALARDEA

# Hainbat nobedade aurtengo alardean

**Mairuaren Alardea Biziberritzeko Taldeak hainbat moldaketa egin ditu alardean; 180 lagunek inguruk hartuko dute parte aurtengo ekitaldian**

EDU MENDIBIL

**Azken urteotan herritarren partaide-tza jaisten ari zenez, eta bestetik, gaurko egunera egokitzeko asmoz, hainbat berritasun izango dira aurten alardean. Hitzordua uztailaren 18an da, 19:00etan.**

**E**usko Ikaskuntzak alardearen gainean egindako ikerketaren ondorioz, Mairuaren Alardea Biziberritzeko Taldeko kideek zera ondorioztatu zuten: alde batetik, ikuspegi eta bizi-pen positiboak zituztela herritarrek alardearekiko;

eta bestetik, ospakizunarekiko lotura epeltzen ari zela, galtzeko arriskuan ere bazegoela alardea. Hainbat jende ez zen alardearekin identifikatzen, besteak beste ospakizun militarra zelako eta mairuak berak sinbolizatzen duen kultura gutxiesten zelako. Horrela, alardea eraberritzearen aldeko apustua egin zuten. Xabier Legorburuk martitzenean azpimarratu zuenez, "arrazoi eta motibazio ezberdinak direla medio, alardea egokitzeko borondatea izan zen sentsibilitate ezberdineko antzuolar multzo bat mahai baten inguruan bildu gintuena: udal ordezkariak, Mairuaren Alar-



Xabier Legorburu, Patxi Olabarria, Aitziber Goñi, Jose Luis Kortabarria eta Valen Moñux, martitzenean Olaranen emandako prentsurrekoan. E.M.

dearen Kultur Elkartea eta beste herritar askorenak".

#### LAU MOLDAKETA NAGUSI

Eusko Ikaskuntzaren aholkuak hartu zituzten abia-

puntu, eta lau izan ziren moldaketaren helburu nagusiak: mairuaren irudia duintzea (soldaduen buruzagiarekiko azaltzen duen mendekotasuna gain-

dituz); bigarrenik, diskurtsoa leuntzea (genero bietara egokituz esaldi berriak gehituz, hizkuntza eta kultura aniztasuna islatuz); bestetik, diskurtsoa historiarekin hobeto lotzea, anakronismorik egon ez zedin); eta, azkenik, eszenografia indartzea.

Nobedadeen artean, mairua Abderraman III.a bezala azalduko da karakterizatuta eta musika eta dantza gehiago izango dira, tartean Segurako alborada.

Era berean, diskurtsoa Antzuolako hizkeran esango da eta jantzi batzuetan aldaketak izango dira. Valen Moñuxen hitzetan: "Danborrada ukitua kendu egin diogu, *marzialidade* gehiegi eman barik. Azken baten, antzinako desfileen oroimena berreskuratzea da alardeen helburua". 180 lagunek inguruk hartuko dute parte aurtengo alardean. Edozein modutan, nobedade guztiak ez zituzten aurreratu. Nahiago dute sorpresa mantendu.

**Eusko Ikaskuntzaren aholkuak hartu zituzten abiapuntu**

**Mairuaren irudia duintzea da moldaketaren helburuetako bat**

**Bere 100. urteurrenean (1909-2009) Antzuolako EAJ-PNV-k jai zoriontsuak opa dizkizue.**

**GORA ANTZUOLA!**

Urteurreneko ospakizunak udazkenean egingo dira.



Ondarre, 9 ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 45  
Faxa: 943 78 71 16  
garitanocb@euskalnet.net

**JAI ZORIONTSUAK  
ANTZUOLAR GUZTIOI!**





**KONTZERTUA**

# Musikaz gozatzea helburu duen talde iruindar gaztea zapatuan

Diskoa grabatu berri duen Txurrustada taldeak kontzertua eskainiko du txosnetan; emanaldia 23:00etan hasiko da

JOKIN BEREZIARTUA

**Aurten ere txosnetan ez da zuzeneko musikarik faltako. Zapatuan, uztailearen 18an, Iruñeko Txurrustada taldea izango da. Nafarren rock doinuek dantzan jarriko dute jendea.**

**T**xurrustada taldea 2006ko maiatzean sortu zen. Iruñeko Iturrama institutua du jaioleku talde gazteak, asteen behin musika gelan elkartzen hasi eta gutxira sortu zen-eta taldea. Taldekide bakoitza bere kabuz hasi zen instrumentuak nola jo ikasten eta ordutik hona bilakera nabarmena izan dute.

Hiru urte hauetan 30 kontzertu inguru eskaini dituzte. Diskoa orain gutxi grabatu dute, eta aste batzuk itxaron beharko dute euren lehen lana esku artean izateko. Hala ere, musika taldeak adierazi duenez, disko berriko abestiak joko dituzte

Antzuolan. Hortaz, berezia izango da Antzuolako jailetan eskainiko duten kontzertua.

**EREDU KOMERTZIALETIK KANPO** Taldea ez da musika estilo batera mugatu eta euren abestietan rock, ska zein punk doinuak entzun daitezke. Hala, doinu alai eta dantzagarriak dira nagusi emanaldietan.

Bestalde, mota guztietako gaiak jorratzen dituzte, baina egungo munduaren desoreka eta Euskal Herriko egoera dira kantuetan gehien agertzen diren gaiak. Musika ez dute negozio moduan ikusten; esan dutenez, taldearen helburua da "eredu komertzialetik urrundu eta musikaz gozatzea".

**Disko berriko kantuak joko dituzte Antzuolako jailetan**



Txurrustada taldeko kideak, kontzertu batean.

TXURRUSTADA



## Ana Etxeberria

- Kirol masajista
- Osteopatia
- Esku terapeuta
- Akupuntura

**Jai zoriontsuak izan ditzazuela!**

Errekalde 6 behea ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 60 13

## MUSIKA

# Acordes Navarros taldearen doinu nafarrak plazan

Emanaldia egingo dute hilaren 19an plazan, 12:30ean

MIREIA BIKUÑA

**Acordes Navarros taldeak emanaldia egingo du domekan hilak 19. Ordu eta laurdeneko emanaldia egingo dute akordeo-jotzailearekin eta gitarra-jotzailearekin.**

**N**afarroako jotak izango dira protagonista jaietako domekan, hilaren 19an. Acordes Navarros taldeak emanaldia egingo du herriko plazan, 12:30ean. Ordu eta laurdeneko saioa egingo dutela esan digu taldeko sortzaile Oscar Hitak: "Gure erreperitorioa 75 minutu ingurukoa izango da. Jotak, pasodobleak eta zortzikoak kantatuko ditugu, besteak beste. Gainera, jotak banaka, binaka eta taldeka abestuko ditugu".

Bestalde, aurreratu digute jota bat euskaraz abestuko dutela. "Gure asmoa da euskara geroz eta gehiago erabiltzea. Baina une honetan gurekin dauden abeslariak ez dakite euskaraz, eta horrek

**Jotak, pasodobleak eta zortzikoak abestuko dituzte**

**Ordu eta laurdeneko emanaldia egingo dute**

asko zailtzen digu lana. Dena den, Gipuzkoa aldean emanaldiak egiten ditugunean, gutxienez jota bat euskaraz abesten dugu", dio Hitak.

Nafarroako jotak abesten dituzten taldeek erabiltzen dituzten jantziekin igoko dira oholtza gainera: praka, gona eta alkandora zuriak eta gerriko gorriak.

#### ABESLARI BERRIAK

Acordes Navarros taldea duela zortzi urte sortu zuten Luis Miguel Claveriak eta Oscar Hitak. Claveriak akordeoia jotzen du eta Hitak, pianoa. Taldea sortu zutenetik 20 abeslarik baino gehiagok parte hartu dute eurekin. Antzuolara abeslari berrie-kin datoz: Sonia Chueca eta Mari Carmen Hernandez tuterarrak eta Cortes herriko Eva Miñes eta Estela Solsona.



Acordes Navarros taldeko kideak.

ACORDES NAVARROS

#### ZALETASUNAGATIK

Claveriak eta Hitak musika egiten jarraitzeko asmoa dutela esan digute. Oscar Hita rock, jazz eta folk taldeetako kide izan da. Era berean, musika klasikoa egiten zuen talderen baten ere izan da. Baina,

guztiak probatu ondoren, jotarekin geratu zen. "Nafarroako jotak zaletasuna dira niretako. Askotariko estiloak probatu ditut eta guztiak atsegin ditut. Baina jotak beste mundu bat dira, zaletasuna baino gehiago".

Claveriak akordeoi ikasketak egin zituen kontserbatorioan. Lizarrako musikariek osatu zituen ikasketak. "Sakrifizio gogorra da musika eta lana uztartzea. Baina musika maite dugunok esfortzu berezia egiten dugu", dio.

## HARATEGIAK



Juan  
Joxe  
Agirre

Kalebarren 1. Antzuola.  
943 76 64 84

*Mari Kruz eta Juan Joxek  
jai zoriontsuak  
opa dizkizute  
antzuolar guztioi!*



Mari  
Kruz  
Iparragirre

Komenio kalea 2. Bergara.  
943 76 10 72



**ANTZUOLA  
JAIKETAN  
ONDO PASA!**



Antzuolako udala  
[www.antzuola.com](http://www.antzuola.com)

**ELKARRIZKETA** JOSELU RUIZ DE GORDOA JOSELU ANAYAK

# "Umeek, gazteek eta nagusiek egiten dute dantza Antzuolan"

OIHANA ELORTZA

**Joselu Anayak taldeak domeka gauean joko du herriko plazan. Hamar bat urtean etorri dira Antzuolako jaietara, eta aurten ere ez dute hutsik egingo. Joselurekin egin dugu berba.**

**Aurten ere bazatozte Antzuolara...**

Bai; pozik, gainera. Ez nago ziur, baina dagoeneko hamar bat urte pasako ziren lehenengo aldiz etorri ginenetik. Eta aurten ere bagatoz, Antzuolako plazara joaten direnak dantzan jartzeko asmoz.

**Zer moduzko plaza da Antzuolakoa?**

Ona. Nagusiek, adibidez, dantza asko egiten dute, eta hasieratik, gainera. Nafarroako nagusiei, esaterako, kosta egiten zaie dantzan hastea, baina Antzuolan azkar animatzen dira. Hori pozgarria da guretako, gustura egoten gara.

**Eta umeek eta gazteek nolako *martxa* dute?**

Haiek ere ona. Umeak emanaldiaren hasieran egoten dira; gehienak, behintzat. Ondoren herriko nagusiak batzen zaizkie eta azken orduan heltzen dira gazteak. Herri askotan gertatzen da hori.

**Euskal Herriko plaza gehienak ezagutuko dituzue honezkero.**

Bai. Batzuetara, gainera, urtero jotzen dugu, Araian eta Mutiloan, adibidez. Bergaran ere askotan jo dugu.

**Emanaldiekin batera afariak ere egingo dituzue, orduan.**

Bai. Lagun asko ditugu hango eta hemengo herrietan, eta joaten garen bakoitzean haiekin egon nahi dugu.

**Noiz hasi zineten jotzen?**

1978. urtean, duela 31 urte. Araiaokak gara gu, eta hango kasinoan eman genuen lehen kontzertua.

**Elkarrekin zaudete bost anaiok oraindik?**

Bai, bai. Javier, Joselu, Andoni, Felix eta Jesus. Oraindik ez zaizkigu pilak amaitu eta jarraitzeko gogoz gaude.



Joselu Anayak taldeko kideak Elkar-ekin kaleratutako *Ibili hadi* diskorako ateratako argazkian.

JOSEBA OLALDE

**Non eman duzue kontzerturik bitxiena?**

Urbian. Araiaok eta Oñatiko lagunek konbentzitu gintuzten, eta duela

urte batzuk Urbian jo genuen. Beste behin Katalunian jo genuen, Iruñeko Sanferminetan zebiltzan kataluniar batzuek gonbi-

datuta. Ondo ibili ginen, baina horixe izan da Euskal Herriatik kanpo egin dugun emanaldi bakarra.

**Ze kantu joko dituzue Antzuolako jaietan?**

Normalean hiru zatitan banatzen dira gure kantutak: batetik, betikoak daude, *Ay! Anselma* eta *Tximeleta maitea*, adibidez; bestetik, momentuan

modan daudenak jotzen ditugu; eta azkenik, dantzan dabilen jendearen arabera inprobisatzen ditugunak.


**Eta zein pieza inprobisatzen dituzue, normalean, Antzuolan?**

Rantxerak eta balsak, adibidez. Baina baita umeendako eta gazteendako piezak ere.

**"Araian eman genuen lehen kontzertua, duela 31 urte"**

**"Ay Anselma' ere joko dugu Antzuolan, nola ez!"**

## Kalebarren janari-denda



**Amaiak jai zoriontsuak opa dizkizute herritar guztioi!**

Kalebarren 11 ANTZUOLA Tel.: 649 66 27 91

# ILAIA

Ile apaindegia • Estetika

**JAI ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIOI!**

Kalegoi 20 behea ANTZUOLA Tel.: 943 76 63 33



ESPEZIALISTA BATEN BERMEAREKIN

# GOIZPER KOOP. ELK.

## MATABI IHINZTAGAILUAK

- NEKAZARITZAN, LORATEGIAN, INDUSTRIAN ETA ETXEAN TRATAMENDUA EGITEKO IHINZTAGAILU ETA HAUTSEZTAGAILUAK.

## GOIZPER TRANSMISIOAK

- ENBRAGEAK, BALAZTAK
  - PNEUMATIKOAK
  - HIDRAULIKOAK
  - MEKANIKOAK
  - ELEKTROMAGNETIKOAK
- ESPEKADUN ETENKAKO BIRAGAILUAK
- ESPEKA BEREZIAK


ANTIGUA 4 - 20577 ANTZUOLA (Gipuzkoa)  
211 POSTA KUTXATILA - 20570 BERGARA

TEL.: 943 78 60 00

FAXA: 943 76 60 08 - 943 78 70 95

E-MAILA: [goizper@goizper.com](mailto:goizper@goizper.com)

Webgunea: [www.goizper.com](http://www.goizper.com)



ERA GUZTIETAKO MARGOLANAK-FATXADEN GARBIKETA  
943 766407 616 277999 Antzuola

JAIALDIA > HIP-HOP EGUNA

# Mikel Escobalesek irabazi du grafiti lehiaketa

Gazteria Zerbitzuak bihar egingo duen Hip-hop Egunean margotuko du grafitia horman, Kurtzebarri eskolako jolaslekuan

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Grafiti lehiaketa deitu zuen Gazteria Zerbitzuak orain hilabete inguru eta dagoeneko badauka irabazlea: Mikel Escobalesek egindako irudia hautatu dute lehiaketara aurkeztutako bost zirriborroen artean. 300 euroko saria jasoko du berak eta bihar, hilak 11, grafitia margotuko du Kurtzebarri eskolako jolaslekuan.

Batxilagoa bukatu berri du Escobalesek eta orain Arte Ederak ikasteko asmoa dauka. Iaz hasi zen grafitiak egiten eta gustuko duela jakinarazi digu. Lehiaketa irabazi duen grafitia zelako

den ere esan digu: "Emakume baten aurpegia egin dut pop art estiloan marraztua".

BERTSOSOUND SYSTEM

Gazteria Zerbitzuak bihar egingo duen Hip-hop Egunean marraztuko du Escobalesek grafitia horman (11:00). Gainera, grafitiak zelan egin ikasteko aukera izango dute herriko gaztetxeek; ikasi eta egin, horretarako gertatutako oholak eta espraiak banatuko dituztelako. Horrekin batera scratch eta DJ tailerrak eta break dantza ikasteko tailerrak egingo dituzte goiz partean.



Mikel Escobales espraiak alboan dituela grafitia margotzeko gertu.

M.A.

Arratsaldean, osterara, hip-hopari eskainitako jaialdia egingo dute eta goizean ikasitakoa erakusteko aukera izango da. Scratch erakustaldia eta abeslari gazteen tartea izango dira lehenengo eta BertsoSound System jaialdia gero. Bertsolari ezagunak Xabier Silveira eta Unai Muñoa, Bilbo, Hernani eta Barakaldoko rap abeslari euskaldunak, Aritz Sound System disko jartzaile entzutetsua, eta Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako break dantzariak aparte-ko giroa jarriko dute Kurtzebarri eskola inguruan.

## Egitaraua

Goizean (11:00-14:00)

Grafiti tailerra.

Scratch eta DJ tailerra.

Break dantza tailerra.

Arratsaldean (16:00)

16:00, Dzen musika, scratch erakustaldia eta aurkezpena.

16:30, abeslari gazteen tartea.

18:00, BertsoSound System

Bertsolariak (Xabier Silveira, Unai Muñoa), rap abeslariak euskaraz, grafiti margolariak, disko jartzaileak (Aritz Sound System) eta break dantzariak.

> JAIK

## San Kristobal jaiak ospatuko dituzte Larrino auzoan

San Kristobal eguna da gaur, hilak 10, eta haren omenezko jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran Larrino auzoan. Kanpaiek egingo diete ongietorria jaiari eta meza esango dute gero (19:00), Aretxabaleta abesbatzak lagun eginda.

Bihar, zapatua, umeendako ekitaldiak egingo dituzte eliza inguruan: jolasak (17:00), txokolate beroa (17:30) eta buruhandiak (19:00). Bukatzeko, osterara, afaltzeko elkartuko dira auzoko bizilagunak San Kristobal elkartearen (21:30).

> TXAPELKETA

## Mus txapelketa egingo dute domekan Izartu tabernan

Iralabarri plazan dagoen Izartu tabernak mus txapelketa antolatu du. Etzi, uztailak 12, egingo dute. Izena egunean bertan eman behar da (16:00) tabernan eta ondoren txapelketa hasiko dute. Bikoteak 40 euro ordaindu beharko ditu izena ematerakoan.

Hain zuzen ere, txapelketaren irabazleek 1.000 euro jasoko dituzte.

## oharrak

ERRETIRATUAK

> Bizkairako txartelak salgai

Basotxo erretiratuen elkarteak kideek beste bidaia bat antolatu dute Bizkai alde-dera-Bakio, Armintza... Txartelak erosteko azken eguna gaur da (11:00-12:00). Irteera hilaren 15ean da, eguaztena.

ANTZERKIA

> 'Kanpaiek jo bitartean' antzezlan, domekan

Glu Glu antzerki taldeak *Kanpaiek jo bitartean* lana antzeztuko du etzi Arkupen (19:30). Sarrera, 8 euro.

IKUSKIZUNA

> Hipo eta Tomax pailazoak egunean

Hipo eta Tomax pailazoen *Herri kirola* eskainiko die- te umeei hilaren 16an Arkupen (17:30). Debalde da.

ZINEMA

> 'Noche en el museo 2'

Hilaren 15ean eta 17an (21:30) eta 20an (16:00) emango dute *Noche en el museo 2* filma Arkupen. Sarrera, 2 euro.

DEIA

> Bruce Springsteen ikustera joateko autobusa

Autobusa antolatu dute hilaren 26an Bilbon egingo duen kontzertura joateko. Interesatuok, deitu Belar Meta dendara (943 53 27 39).

KIROLAK > KARATEA

## Lehen Dan gerriko beltza lortu du Odei Vazquezek

Gerriko hori 16 urterekin lortu duen Debagoieneko lehen karateka da

M.A. > ARETXABALETA

Karateko Lehen Dan gerriko beltza eskuratu du Odei Vazquez aretxabaletarrak Anoetako arte martzialen zentroan jokaturako proban. Debagoieneko 16 urterekin lortu duen lehen gaztea da. Denboraldi gogorra izan da Vazquezendako, hainbat txapelketa jokatzear gain probarako gertatzen ibili da-eta.

Entrenatzaile eta aita duen Odilo Vazquezek ibilbidearen berri eman digu: "6 urte zitue-

netik dabil karatean, 1998an karate eskolan hasi zenetik. Karate eskola gero UDA barruan sartu zen, 2005ean, Jokin Antxiaren eskutik, eta bertan jarraitzen du". Era berean, zoriondu egin gura du semea: "Zorionak eta entrenatzen jarraitzea animatu gura dut. Lehenengo, baina, merezi dituen oporrak har ditzala, datorren denboraldia ere gogorra izango da-eta, eta beste helburu batzuekin".



Odei Vazquez, proba egin bitartean.

ODILO VAZQUEZ



Suhiltzaileak eta ertzainak zulatutako gas hodiaren inguruan.

M.A.

EZBEHARRA > LANAK

## Gas hodia apurtu zen eguaztenean Mitarte kalean

Gas usain handia zabaldu arren, ez zuen beste ondoriorik izan ezbeharrak

M.A. > ARETXABALETA

Ezbeharrak izan zen eguazten eguerdian Mitarte kaleko saneamendu lanetan. Gas hodi bat zulatu egin zen, eta izugarritzko gas usaina zabaldu inguruan. Ezbeharrak, baina, horretan geratu zen eta ez zuen beste ondoriorik izan.

Mitarte kale hasieran bizi den bizilagun batek ohartarazi zuen gas usaina zegoela, Amaral enpresako langileek ez zuten-eta ezer igarri. Larrialdi zerbitzuetara deitu eta ertzainak eta suhiltzaileak gerturatu ziren arazoaren berri izan eta konpontzeko asmoarekin. Zulatutako gas hodia itxi egin zuten gasaren arduradunek konpondu bitartean eta ordubete baino lehen bideratuta zuten arazoa.

Ikusmin handia eragin zuten ertzainek eta suhiltzaileek herri- tarren artean.

ZERBITZUAK &gt; USAKO

# Soroslea egongo da Usakon hilaren 15etik irailaren 15era

Igeriketa Lantzen SL enpresak eskainiko du zerbitzua bi hilabetez; uztailaren 15etik irailaren 15era egunero egongo dira 11:00etatik 20:00etara

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Azken asteotan batzarretan aztertu ondoren, Usakon sorosle zerbitzua jartzeko erabakia hartu du Udalak. Hain zuzen ere, hilaren 15etik irailaren 15era emango dute zerbitzua Igeriketa Lantzen SL-ko kideek.

Bainu denboraldia hilaren 15ean hasiko dute, eta abuztuaren 31ra arte sorosle zerbitzua eskainiko dute, astelehenetik domekara arte, 11:00etatik 20:00etara, hain zuzen ere. Era berean, hilaren 15era arte eta irailaren 1etik 15era zerbitzua eskainiko du Igeriketa Lantzen SL enpresak, baina ordutegi laburragoarekin; hain justu ere, 14:30etik 20:00etara. Dena den, soroslea egon arren, bainua harterako orduan norberak kontuan hartu beharrekoak garrantzitsuak dira: besteak beste, jan eta berehala uretan ez sartzea edo presa gainera salto egiterakoan kontu handiz ibiltzea.

## ZERBITZU BERRIAK APURTUTA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren agindua betetzeko, hainbat egokitzapen lan egin zituen Udalak iaz. Sorosle zerbitzua jartzeaz gain, iturria, duxak eta soroslearendako aldagela eta komuna egokitu zituen, besteak beste. Orduko lanak Construcciones Ugarte enpresak egin zituen 66.000 euroren truke.



Usakoko presagunetik salto ikaragarriak egiteko aukera dute bainulariek.

GOIENKARIA

Baina iaz Udalak egindako lanak eta erabiltzaile gehienek goraiatu zituzten berrikuntzak txikitu egin dituzte behin eta berriz, beheko argazkian ikus daitekeen moduan.

Aurreko asteko osoko bilkurak salatu egin zuen Usakoko zerbitzuen kontra egindako eraso. "Legea betetzeko ahalegina egin genuen iaz, eta Usakora doazen oñatiarrei eta Debagoienetik

datozen herritarrei zerbitzu onena emateko inbertsioa egin genuen. Baina, badirudi batzuei ez zitzaie gustatu", esan zuen alkateak. Gaineratu zuen, egun guztiok bizi dugun krisi egoerak arriskuan jar dezakeela Usakon bainatzeko dagoen baimena. "Herritarren dirua zertan gastatu badugu; hortaz, ezin gara behin eta berriz Usakoko txikizioak konpontzen ibili. Jarritako zerbitzuak errespetatu ezean, guztia kendu eta bainua debekatzeko erabakia hartu beharko dugu".

## SALAKETAK IPINI

Txikizioak geldiarazteko helburuarekin, dei berezia egiten die udalbatzak Usakoko erabiltzailei eta Zañartutik paseatzen ibiltzen direnei: "Norbaiz Usakoko zerbitzuak apurtzen ikusiz gero, salaketa egitera animatu gura ditugu herritarrek. Guztion artean zaindu behar dugu Usako".



Usakoko duxak eta aldagelak apurtu egin dituzte.

KONTZEJUPETIK

## oharrak

### DIRULAGUNTZAK

> **Udako ikastaroetarako laguntzak emango dituzte**

Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen dituen udako ikastaroetan parte hartzen duten herriko ikasleek eta langabeek jaso ahaliko dute dirulaguntza. Laguntza jasotzeko bete beharreko baldintzak dira: ikaslea edo langabea izatea, Oñatin errol-datua egotea eta ikastaroa ordaindu izanaren agiria izatea. Baldintza guztiak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte udal bulegoetan. Jasotako eskaeren arabera zehatutako dute dirulaguntza.

### LEHIAKETA

> **Jai egitarauko azalerako proposamenak, hilaren 13ra arte**

Lehiaketan parte hartzeko oñatiarra izan edo Oñatin bizi beharra dago. Parte-hartzaileek teknika librea erabili ahaliko dute. Lehiaketa irabazten duen irudiaren jabeak 250 euro eskuratuko ditu, eta irudia San Migel jaietako azalean agertuko da. Bigarren lan onenak 125 euro jasoko ditu.

Hilaren 13an itxiko dute San Migel jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketara proposamenak aurkezteko epea. Lanak Turismo Bulegoan edo kultura etxean utzi beharko dira. Saritu-

tako lanak Udalaren esku geratuko dira eta irudiak erabiltzeko eskubidea guztiak izango ditu.

### IZENEMATEA

> **Udako kirol kanpainako bigarren txandan lekua dago oraindik**

Astelehenean hasiko duten kirol kanpainako bigarren txandan lekua dute oraindik. Interesatuak kiroldegitik pasa beharko dute izena emateko bulego orduetan; hain zuzen ere, astelehenetik egubakoitzera 11:00etatik 13:30era; eta martitzenetan eta eguenetan 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara. Bigarren txanda hilaren 24an bukatuko dute.

## LANPOSTUA

### Gaztelekurako animatzailea kontratatuko du Udalak

Besteak beste, Gazte Informazio Puntua eta Topalekua koordinatuko ditu

M.B. &gt; OÑATI

Udalak Gaztelekuko animatzaile zerbitzua kontratatzeko deialdia egin du. Hain zuzen ere, kontratatzen duten pertsonak Gazte Informazio Puntuaren arduradun lanak, topalekuko guneen dinamizatzaile-lanak –hain zuzen ere, topaleku nagusia, kubo topalekua eta sotoko topalekuak–; eta eraikuntzaren mantenu lanak egin beharko ditu. Baldintzak Gipuzkoako Aldizkarian kaleratu ziren hilaren 2an, eta orain proposamenak aurkezteko epea zabalik dago hilaren 17ra arte.

## BALDINTZAK

Epaimahaiak kontuan hartuko dituenak dira: eskaintza ekonomikoa (gehienez orduaren prezioa 18,74 euro izan beharko da); suspertze proposamena; eta suspertze proposamenaren defentsa. Era berean, aintzat hartuko dituzte zerbitzua eskainiko duten begiraleen lan esperientzia, titulazioa –udalekuetako zuzendari titulua edo Giza Kultura animatzaile titulua–; eta euskara jakitea –EGAREN pareko maila egiaztatu beharko dute.

Baldintza guztiak baloratu eta puntu banaketa egin ondoren, eskaintza onena aukeratu dute udal arduradunek, eta lau urterako kontratua egingo diote. Lau urteren ondoren, bi aldeak ados egonez gero beste bi urtez luzatu dezakete kontratua.

## JAIK > TRIANA

### Astotrustok hasiko ditu gaur arratsaldean Trianako jaiak

M.B. &gt; OÑATI

Gaurtik domekara arte ospatuko dituzte Trianako jaiak. Askotariko ekitaldiak antolatuta dituzte umeendako eta helduendako; baina, urtero legez, Astotrustok hasiko ditu jaiak 19:00etan. Ondoren txorimaloek, erraldoiek eta txistulariek kalejira egingo dute. Titau taldearen musikak giroa du auzoa 20:30etik 21:30era eta 22:30etik aurrera.

## BIHAR ETA ETZI

Bihar, umeendako marrazki lehiaketa, mus txapelketa eta haurrendako jolasak egingo dituzte, besteak beste. Miren, Agur eta Gorka taldeak egingo du erromeria.

Domekan, meza egingo dute San Martin ermitan auzoko hildakoen alde. Auzo bazkariaren ondoren, 18:00etatik 23:00etara arte, Kuluxka taldeak erromeria egingo du.

AISIALDIA > MIKOLOGIA

# Perretxikotan hasi gura dutenendako berbaldia dago bihar Elixosten

Perretxikotan aditua den Jose Mari Larrañaga bergararrak egingo du hitzaldia, 17:00etan; horretarako sarrera librea izango da

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Inguruko basoetara joatea eta perretxikoak hartzea gustuko duten eskoriatzarrek hitzordu interesgarria dute aste bukarran. Elixoste elkarteak mikologian hasi nahi dutenendako berbaldia antolatu du biharko, zapa-tua, 17:00etan.

Perretxikotan aditua den Jose Mari Larrañaga bergararra arduratuko da horren gaineko azalpenak emateaz eta hitzaldira joaten direnen artean sor daitezkeen zalantzak argitzeaz. Elixoste elkartearen egingo dute ordubete inguru iraungo duen ekimena.

DASTATZEA

Elkarteko kide Iñaki Uribebebarriak azaldu du hitzaldia amaitzean hainbat perretxiko mota dastatu ahalko direla. Ardoa eta patea ere egingo dira probatzeko. Uribebebarriak jakinarazi du horretarako sarrera librea dela.

PERRETXXIKOTAN ADITUA

Esan bezala, Jose Mari Larrañagak eskainiko du hori. Perretxikoen gainean aurretik hainbat hitzaldi egin dituen bergararrak irudien bidez ematen ditu azalpenak: "Guztira, 300 bat irudi ditut, baina, guztiak ikusteko astirik

izango ez dugunez, aukeraketa egin beharko dut aurretik". Hasteko, perretxikoaren aurkezpena egingo du eta, jarraian, dauden mota ezberdinak azalduko ditu. Gainera, jateko onak eta txarrak direnak eta sukaldian aparteko baliorik ez daukatenen gainean ere jardungo du.

ESKORIATZA, ABERATSA

Larrañagaren arabera, "interesgarria da horren gaineko ezagutza zabaltzea. Zale gehienak ez dira konplikatzen; betiko perretxikoak hartzen dituzte. Ondo egongo litzateke jan daitezkeenak ere ezagutzea". Larrañagak, azkenik, azpimarratu du Eskoriatzan eta ingurunean perretxiko kopurua handia izateaz gain, espezieei dagokionez ere aberatsak direla toki horiek.

KIROLA > ESKORIATZA KIROL ELKARTEA

## Batzar orokorra egingo du kirol elkarteak astelehenean

Ibarraundin egingo den bileran, amaitu berri den denboraldia aztertuko dute, besteak beste

M.B. > ESKORIATZA

Eskoriatza kirol elkarteak urteko batzar orokorra egingo du astelehenean, hilak 13. Hitzordua 19:00etan jarrita dago, Ibarraundi museoan. Kirol elkartearen presidentea Manolo Muñozek jakinarazi digu batzar horretan, lehenik eta behin, 2008/09 denboraldiaren balorazioa egingo dela. Elkartearen dituen taldeen ibilbidea azter-

tuko dute. Gainera, balorazio ekonomikoa ere egingo dute.

2009/10 DENBORALDIA

Muñozek gogorarazi digu, bestalde, amaitu berri den denboraldian areto-futboleko bi talde mailaz igo direla eta horrek 2009/10 denboraldian eragina izango duela. Planen berri emango die elkarteak Ibarraundin biltzen direnei.

> URTEAK

### Carmen Aranburuzabalak Udaleko ordezkarien bisita jasoko du, 100 urte beteko dituelako

Datorren astean, uztailaren 16an, Carmen Aranburuzabala Azkoaga eskoriatzarrek 100 urte beteko ditu. Eskoriatzako Udala, adin horretara iristen direnekiko duen ohiturari jarraituz, Aranburuzabalaren etxera joango da egun berezi horretan, eskoriatzara zuzenean zoriontzera eta omenalditxoak egitera. Eskoriatzarako eguerdian hartuko ditu Udaleko ordezkariak.

## Udalekueetan ezin hobeto dabilta herriko umeak

Joan den astelehenean eman zieten herrian hasiera udalekuei. Aurten, izena eman duten 187 neska-mutikoak bederlatzi taldean daude banatuta. Lehenengo egunean, baina, batera ibili ziren guztiak; mozorrotu egin ziren, elkar ezagutzen joateko. Martitzenean, betiko moduan, San Fermin eguna ospatu zuten; zezenaren aurrean korrika egin ostean, herri kirolak izan zituzten. Dagoeneko sukaldaritza tailerra, kale jolasak, igerilekura irteera eta Uraren Eguna ere egin dituzte.



GOIENKARIA



Gustura egoteko!

Intxaurtxueta 8 ESKORIATZA

943 71 40 63



Bergarako igerilekuetara autobusez joaten direnei laguntzak emango dizkie Udalak.

MIREIA BIKUÑA

LAGUNTZAK &gt; LURRALDEBUSEKO TXARTEL BAKARRA

## Bergarako edo Urretxuko igerilekuetara joateko laguntzak

Udan Lurraldebuseko txartel bakarra erabiltzen dutenei txartela kargatzeko bonua emango diete

MIREIA BIKUÑA &gt; ANTZUOLA

Udako kanpaina Bergarako eta Urretxuko igerilekuak erabiltzen dituzten antzuolarrei dirulaguntzak emango dizkie Udalak; betiere, Lurraldebuseko txartel bakarra erabiltzen badute. Horixe onartu zuten eguaztenean egindako osoko bilkuran. EAJko zinegotziak abstenitu egin ziren eta gainerakoek alde bozkatu zuten. EAJko zinegotziek esan zuten ondo ikusten zutela proposamena, baina udako kanpaina hasita zegoela eta agian

"beranduegi" zela. Gainera, gogorazi zioten alkateari Antzuola-ko kultura taldeei dirulaguntza murriztu egin dietela; baina orain "beste laguntza batzuk" emateko dirua topatu dutela. Horregatik guztiagatik, abstenitu egin ziren.

**DIRUAREN TRUKE, BONUA**

Udalak gehienez 8.000 euro bideratuko ditu dirulaguntzak emateko. Hortaz, partidako dirua agortzen denean ez dituzte eskari gehiago onartuko. Dena den, Pedro Iturbe alkateak esan zuen

erabiltzaileek ez dutela dirurik jasoko: "Ez dugu dirurik emango. Egindako bidaien arabera kalkulatu dugu portzentajea eta dagokien diru kopuruarekin Lurraldebuseko txartela kargatzeko bonua emango diegu".

Udako igeriketa kanpaina bukatu ondoren, urriaren 2a baino lehen aurkeztu beharko dituzte dirulaguntza eskaerak Udaleko sarrera erregistroan. Horretarako, inprimaki ofizialak erabiliko dituzte. Laguntza eskaera egin dezakete Antzuolako haurrek, nerabeek eta gazteek. Gainera, gazteek ikasleak direla edo langabezian daudela ziurtatu beharko dute agiri bidez.

HEZKUNTZA &gt; EUSKARA

## Gaueko taldean euskara ikasi nahi dutenendako izenematea zabalik dute

Interesatuak Udalean eman beharko dute izena irailaren 15a baino lehen

M.B. &gt; ANTZUOLA

Denboraz egin dute deialdia. Irailaren hasiko duten ikasturtean gaueko taldean euskara ikasi nahi dutenek behin-behineko izenematea egin dezakete dagoeneko. Hain zuzen ere, irailaren 15era arte hartuko dituzte izenak. Interesatuak Udalean eman beharko dute izena astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 15:00etara.

Ikasturte berria 210 ordukoa izango da, urrutik ekainera arte. Eskolak 19:00etatik 21:00etara emango dituzte.

Behin-behineko izenematea bukatu ondoren erabakiko dute zenbat talde osatuko dituzten. "Gure asmoa da oinarriko mailako ikastaroak eta alfabetatze ikastaroak ematea; baina izena ematen dutenen beharren arabera osatuko ditugu taldeak. Dena den, gutxienez zortzi pertsona beharko ditugu", esan digu liburutegiko arduradunak.

**BALORAZIO POSITIBOA**

Bestalde, gaueko taldean euskara ikasten egon diren bederatzi lagunak ikasturte bukaerako afaria egin zuten, eta diploma jaso zituzten.

Ikasleek eta irakasleek gustura bukatu dute ikasturtea. Urrian ikastaroa hasitako guztiek bukatu dute.



Gaueko taldeko ikasleak, ikasturte bukaerako afarian.

GOIENKARIA

**Marilina**  
mertzeria

*Linak jai zoriontsuak opa dizkizue antzuolar guztioi!*

Herriko plaza 4  
Antzuola

**GOROSTI**  
Taberna

Zorionak Antzuola!

943 76 62 96  
Zurrategi plaza  
ANTZUOLA

**Itzar**

LIBURU DENDA  
ESTANKOA

JAI ZORIONTSUAK!

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel. / Faxa: 943 76 60 62

**MUJKA HARATEGIA**

Zorionak Antzuola!

**Berezitasunak:**  
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34

**LARREA**

TABERNA

Ondo pasa jaixetan!

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**DESKARGA**  
AUTOAK

*Jai zoriontsuak antzuolar guztioi!*

Antigua auzoa z/g Antzuola.  
Tf. 943 76 62 75

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak  
Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Zorionak guztioi!

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23





Txerria astelehen goizean Elgetatik Kanpanzarrerako bidean.

L.Z.

GERTAKARIA > ANIMALIA ERREPIDEAN

## Txerri bat ihes eginda ibili da Kanpanzarko bidean

Ertzainak astelehen eguerdian joan ziren harrapatzen laguntzera, baina ez zuten lortu

L.Z. > ELGETA

Txerri abenturazalea da, nonbait, esku artean duguna. Arrostatik Salvador ermitarako bidegurutze bitartean ikusi dute elgetar batek baino gehiagok aste hasieran. Ikustea gauza bat da; harrapatzea, berriz, beste bat.

Pedro Mari Uberarengana jo zuten lehenengo, txerria harena ote zen galdezka. Hurrengo, Joxe Arantzabalengana, baina ez bata ez besteak ez dute txerriarik hazten. "Txerriak ez du nortasun agiririk eta ez daki gu ziur norena den", adierazi digute Ertzaintzatik.

ERTZAINZTA

Txerriak errepidean arazoak sor ditzakeela konturatuta, hura harrapatzeko saiakeratan ibili dira. Bergarako ertzain etxeke ertzainen laguntza ere izan dute zeregin horretan. "Ez da erraza horrelako animalia atzematea", esan digute Ertzaintzaren prentsa bulegotik. "Saiaitu ginen, baina ez genuen txerria harrapatzerik izan".

Ertzaintzatik gogoratzen dute horrelakoetan 112 telefono zenbakira deitzea komeni dela, "behar diren baliabideak lehenbailehen jartzeko". Horixe, beraz, gomendioa.

INTERNET > KZGUNEA

## Ikastaro gehiago uztailean

Besteak beste, sare sozial, 'Skype', 'Google' tresna, 'Blogger', 'Youtube' eta 'Wikipedia'-n trebatzeko aukera

L.Z. > ELGETA

Datorren hilaren 13an eta 27an etorriko da tutorea, Aitor Madrid ziurrenik, Elgetako KZgunera, 16:00etatik 20:00etara. Tutoreari hainbat kontsulta egiteko aukera izango dute interesatuek. Gainera, bina orduko zortzi ikastaro egiteko aukera ere egongo da uztailean zehar.

IKASTARO BERRIAK

Sare sozialak, Skype, Google tresnak, Blogger, Youtube, Wikipedia, Google maps and earth eta zuhaitz genealogikoa; uztailean gai horietan guztietan trebatzeko aukera izango dute elgetarrek.

Sarearen bidez komunikatu, bideodeiak egin, materiala bilatu eta ikusi edo edozein herrialdeetako helbide, errepide, leku edo negozio bilatu... Norberaren antzinakoak ezagutu eta zuhaitz genealogikoa egiten ere erakutsiko dute.

Interesatuek esandako egunean eta orduan Kultura etxeke KZgunera jo besterik ez dute. Ikastaroak doan dira. Aukera polita egunotan denbora librean dutenendako.

AISIA > UDALEKUAK

# Askotariko ekintzekin martxan dira udalekuak

Mireia Berriozabal, Maialen Elortza eta Nagore Ojanguren dira hiru begiraleak, eta Xabier Gabiña Kultura teknikariaren laguntza izango dute

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Elgetako udaleku irekiak martxan dira. Astelehenean, hilaren 6an, zabaldu dituzte atea Torrealdeako ludoteka berria eta hiru astez askotariko ekimenak egingo dituzte.

Martitzenean, Sanfermin eguna, zuri eta gorri jantzi ziren umeak. Egunkaria eskuan zutela irten ziren kalera eta entzierroa egin zuten. "Zezenak ipurdian jo dit", zioen batek begiak handi-handi eginda.

Aurten, 2-16 urte bitarteko 40 bat ume eman dute izena udalekuotan eta hiru begiralek dihardute ekintzak dinamizatzen: Mireia Berriozabal, Maialen Elortza eta Nagore Ojanguren, hain zuzen ere. Elgetarrak dira hirurak eta umeek ondo ezagutzen

dituzte. Berriozabal neguko ludotekako begiralea izan da, eta Elortza eta Ojanguren gaztelekuko ekintzak dinamizatu dituzte orain gutxira arte.

EGOITZA BERRIA

Bi berrikuntza nagusi daude udalekuotan: bata, egoitza; izan ere, Torrealdeako ludoteka berriatik abiatzen dira ekintza guztiak. "Lokala oso ondo dago", adierazi du Mireia Berriozabalek. "Altzariak ipintzeke daude, baina instalazio polita da".

Bigarren berrikuntza udalekuen antolaketa da. Orain arte talde bakarra osatzen zuten ume guztiak. Aurten, bi dira; txikiak eta nagusiak. Lehenengo taldean 3-5 urte bitarteko umeak sartzen dira eta bi begirale dituzte. 5 urte-

tik gorakoek beste talde bat osatzen dute. "Adinera egokitutako ekintzak egiteko aukera emango digu honek", adierazi zuen udalekuen aurkezpen bileran Rebeke Ubera zinegotziak. Udal ordezkariak gaineratu zuen gehienbat kanpoko ekintzak egiteko baliatuko zutela denbora udalekuotan. Hala, martitzenean, esaterako, txikiak txintxaunetan jolastu diren bitartean nagusiek bizikleta irteera egin dute.

IGERILEKUAK MAALAN

Udalak ez du oraindik datarik eman, baina aurten ere Maala parkean igerilekuak ipiniko dituztela jakinarazi dute. "Eguraldia-aren arabera erabakiko dugu noiz ipini", esan du Ana Gillegi zinegotziak. Umeak zain daude.



Sanfermin eguna ospatu zuten martitzenean udalekuko umeek.

LUDOTEKA

> ZOZKETA

### Athleticen lagunarteko karretillaren irabazlea ez da agertu oraindik

Elgetako Lehoiak Athleticen lagunarteko karretilla bete genero du banatzeko. Zozketa domekako Ferixa Nagusian egin zuten, baina irabazlea, 633 zenbakiduna, ez da oraindik agertu. Pertsona horrek gaur arteko epea du saria Bolatoki tabernan jasotzeko. Horrela ez bada, bigarren saridunak eramango du.

> ERRETIRATUAK

### Gorrieriaren gaineko hitzaldia udaletxean hilaren 15ean

Datorren eguaztenean, hilak 15, gorrieriaren gaineko azalpenak emango dituzte udaletxean egingo den hitzaldi batean. Arazo horren sorrera, hartu beharreko prebentzio neurriak eta tratamendu posibleak izango dituzte berbagai, besteak beste. Hitzaldiak ordubeteko iraupena izango du eta 18:00etan hasiko da.

**Aperribay, s.l.**

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21  
**20690 ELGETA**

JAIK &gt; SANMARTINAK

# Sekulako giroa eta parte-hartze handia aurten ere San Martin jaietan

Behar den moduan amaitu zituzten aramaioarren jaiak, asteleheneko parranda itzelarekin

ARRITXU BARRUSO &gt; ARAMAIO

Joan den aste bukaeran sekulako giroa aurkitu genuen Aramaioko kaleetan barrena. Ez zen gutxiagorako: Pantxo eta Peioren kontzertua, tortilla txapelketa, umeendako jolasak, kale animazioa... Herritarrek, gainera, oso ondo erantzun zuten.

Asteburua pasata, baina, oraindik ere festarako egun bat gelditzen zitzaien aramaioarren. Astelehena egun handia izaten da, batez ere, bertakoendako. *Koadrilen arteko pikeak* izaten dira egun horretan ikusmin handien sortzen dutenak. Aurten ere koadrilen kolpe eta irristadek

barre algarra itzelak eragin zituzten parkera gerturatu zirenen artean. Sei taldek hartu zuten parte eta *Barianteko Burdela* taldeak irabazi zuen.

Herri afariak ere arrakasta handia izan du aurten. 130 pertsona inguru bildu ziren eta afa-lostean dantzaldi ederrak egin zituzten Zaparrada Batukada taldearekin. Herriko kaleetan barrena gustura ibili ziren mokorrek mugitzen.

ISTILUAK

Astelehen gauean, baina, ez zen guztia festa izan, ezustekorik ere izan zen-eta. Goizaldeko ordu bata aldera, papera eta ontziak birziklatzeko hainbat edukiontziri su eman zioten bi gaztek herriko hainbat lekutan. Lehenengo, Udaleko langileak hasi ziren sua itzaltzen, suhiltzaileak iritsi ziren arte. Udaletik azaldu digute Ertzaintzak dagoeneko identifikatu dituela gazte biak.

Ainara Inuntziaga &gt; Kultura zinegotzia

"Pozik nago: dena oso ondo joan da eta herritarrek ondo erantzun dute"

A.B. &gt; ARAMAIO

Ainara Inuntziagak 28 urte ditu. Jaietan festan ibiltzeaz gain gogor egin behar izan du lan dena ondo irten zedin.



GOIENKARIA

tu berezienak: batetik, Pantxo eta Peioren kontzertua. Ez nuen espero horrenbeste jende ikustea; bestetik, Bapatean taldearen kale animazio ekitaldia; eta azkenik, asteleheneko herri afaria. 130 pertsona elkartu ginen. Urteko urtera haziz doa.

Zer moduz jaiak?

Oso pozik gaude. Aurten ere herritarren parte-hartzea oso ona izan da eta antolakuntzan ere hobetu egin dugula uste dut.

Jaietako ze azpimarratuko zenuke?

Gauza mordoa. Baina, behar bada, hiru izan dira, nire ustez, momen-

Herritarrei zerbait esan nahi diezu?

Ondo egindakoak disfrutatu izana espero dudala eta gaizki egindakoak barkatu ditzatela. Eskerrik asko, herritarrei, izan duten parte-hartzeagatik.

ETA ASTEBURUAN, GEHIAGO

## Aste bukaeran honetan, pilota eta bertsoak

Aramaioren festa giroan jarraituko dute asteburuan. Barikuan, 20:00etan, bertso poteoa egingo dute eta ondoren bertso afaria. Sebastian Lizasok, Amaia Agirrek eta Andere Arriolabengoak jardungo dute bertsoan. Zapatuan pilota partiduen txanda izango da. Goizean pilota eskolako mutilek Arrasateko pilota eskolaren aurka egin beharko dute. Gauean ere pilota partiduak egongo dira, 20:00etan hasita: lehenengo, Aramaioko pilotariak arrasatearren aurka eta gero lau t'erdiko finala: Beñat Arregi eta Oihan Bideburu, Markel Moronen eta Beñat Iturriotzen aurka.



Koadrilen arteko pikeak aurten ere sekulako arrakasta izan dute. Parte-hartzaileek lurtean igaro zuten denbora luzean eta kolpe ederrak hartu zituzten batzuek.



MIREN ARREGI

SAN KRISTOBAL &gt; ERROMERIA

## Kurtzetagainen erromeria eta meza egingo dituzte domekan

12:00etan meza egongo da eta Bizente Goikoetxeakoek abestu egingo dute

A.B. &gt; ARAMAIO

Herri gehienetan autoak bedeinkatzen dira San Kristobal egunean. Aramaion, berriz, San Kristobal ermitan olio bedekatzeko dute eta olio, ondoren, belarrietan igurtzen dute belarrietako

gaitzak kentzeko. Horixe egingo dute, seguruenik, askok domekan honetan, San Kristobal eguna izanda meza berezia egongo da-eta. Horrez gain, auzo bazkaria, bolo txapelketa eta erromeria ere egingo dituzte.

KOPLAK

### Abesbatzak koplak bereziak prestatu ditu

Bizente Goikoetxea abesbatzak bertsoak abestuko ditu eta herritarrek animatu nahi dituzte eurekin batera abestera.

*Kristobal Deuna zīnan bide laguntari orain ere eiguzu lagun bidaiari. (bis)*

*Etzaigu asko kostatzen kotxea hartzea zailago egiten zaigu ondo gidatzea. (bis)*

*Bizitzako bideak bihurriak dira laguntza behar degu samurtzeko bira. (bis)*

*Zure laguntzarekin kotxea hartuta seguru joango gera ondo gidatuta. (bis)*



Udalekuetako umeak kamisetak margotzen, martitzenean.

M.A.

**AISIALDIA > UDALEKU IREKIAK**

## Landara doaz udalekuetako neska-mutikoak gaur

Eskulanak eta herri kirolak egin dituzte, baita Gatzagako auzoak ezagutu ere

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Astlehenean hasi zituzten udaleku irekiak Gatzagako neska-mutikoek: zortzik, hain zuzen -ez 17k, *Astleheneko Goienkaria*-n esandako moduan. 2 eta 8 urte artekoak dira guztiak eta gustura ibili dira lehen astean: San Fermin eguna; eskulanak

gatzarekin eta kamisetak margotu; herri kirolak; eta Gatzagako bazterrak ezagutzeko irteera oinez. Horiek guztiak egin dituzte lau egunetan eta gaur eguerdian Landara (Araba) joango dira arratsalde-pasa.

Begiraleek jakinarazi dute gatzaren inguruan antolatutako dituztela aurtengo udalekuak, horregatik ez daukatela herri-askorik aldentzeko asmorik. Hala, datorren astean Dorletara joango dira kanpin denekin eta gaua pasatuko dute hantxe.

**ZERBITZUAK > PILOTALEKUA**

# Pilotalekua ixteko 104.000 euro behar dira

Udalak dagoeneko eginda dauka proiektua eta Etorlur enpresari aurkeztu dio orain; Landagipuzkoak aurrekontuaren ia erdia jarriko du, 50.000 euro

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Landagipuzkoa egitasmoa aurkeztutako proiektuak hautatuta ditu dagoeneko Aldundiak eta proiektu horien inbertsio planak Etorlur Gipuzkoako Lurralde enpresak gertatu ditu. Gatzagako Udalak aurkeztutako bi proiektuak onartu egin dituzte: pilotalekua konpondu eta ixtea eta Arlaban gaineko plan barruan dagoen hornikuntza eta saneamendu proiektua egitea.

**FRONTOIA BERRITU ETA ITXI**

San Migel plazan dagoen pilotalekuaren estaldura berritu egin gura du Udalak, ez dagoelako batera egoera onean: "Zati batzuk erdi jausita ditu eta arriskutsua

izan daiteke", dio Eusebio Villar alkateak. Izan ere, kobrezkoa da estaldura eta dilatazioaren ondorioz apurtuta ditu zati batzuk. Hori horrela, euria egiten duene-

DATUA

**50.000**

EURO

Landagipuzkoa egitasmoaren bitartez 50.000 euro jasoko ditu Udalak pilotalekuaren proiektua aurrera eramateko, aurrekontuaren erdia baino zerbait gutxiago. Gainerakoa Udalak jarri behar du.

an ura sartzen zaio barrura eta egurra ustelduta dauka. "Orain dela hilabete batzuk konponketa lantxo batzuk egin genizkion, baina oso gutxi iraun dute. Hortaz, berritze lan serioaren beharra daukala argi geratu da", jakinarazi du Villarrek.

Pilotalekuaren estaldura berritu eta guztiz ixteko lanen aurrekontua egin du Etorlurrek: 103.965 euro. Erdia baino zertxobait gutxiago Landagipuzkoak jarriko du, 50.000 euro inguru, eta gainerakoa Udalak. Proiektua dagoeneko eginda daukate, Udaleko aparejadoreak egin du. Etorlurrera daukate bidalita proiektu hori eta oniritzia emandakoa arkitektoen zigorla jasotzera eroango dute. Horiek egindakoa, Udalak jarri beharreko dirua nondik bideratu erabakiko dute.

**ARLABANGO UR HORNIKUNTZA**

Arlaban gaineko plan berezia aurrera eramateko ur-deposituari beharra daukate. Hala adierazi zion Udalak Landagipuzkoari, eta hark onartu egin du hornikuntza eta saneamendu proiektua. Aurrekontuaren berri eman du Etorlurrek: 566.035 euro, hain zuzen. Proiektua, baina, oraindik egiteko dago; hortaz, alkateak uste du aurrekontu horrek gora egingo duela, "lursailen erosketak ere kontuan hartu behar direlako".

Dirutza horri aurre egiteko modurik ez dauka Udalak aurre; horregatik, datorren urterako utziko du kontua. Orduan erabakiko du zein pauso eman eta zelan bideratu.



Konponketa beharrean dago pilotalekua.

M.A.

**> INTERNET**

## Gaur eta hilaren 24an hainbat ikastaro egingo ditu Aitor Madrid begiraleak KZgunean

Gaur, egubakoitza, eta datorren hilaren 24an begiralea izango da KZgunean (16:00-20:00). Haizea Odria beharrean, lehen ibilitako Aitor Madrid etorriko da. Herritarren zalantzak argitzeaz gain, hainbat ikastaro egiteko asmoa dauka.

Interneten gaineko azken kontuak ezagutzeko ikastaroak dira, eta guztiak motzak -bi ordukoak-: sare sozialak, Internet bidez komunikatzen ikasteko; *Skype*, deia debalde egiteko; *Blogger*, blogak ezagutzeko; *Youtube*, bideoak bilatu eta ikusteko; *Wikipedia*, informazioa lortzeko; *Google* tresnak, *Google*-ek eskaintzen dituen tresnak ezagutzeko; eta beste hainbat kontu argituko ditu.

## Bernardo Atxagaren 'Zazpi etxe Frantzian' nobela berria sinatuta nahi?

Egin zaitetz harpidedun eta hartu parte hileroko zozketetan. Uztaileko zozketan liburu sinatua jasotzeko aukera izango duzu.

Harpidedun egiteko:

943 08 10 50

harpidetza@goiena.com

**Kuota: 20 euro**

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa



PAMIOLA

# Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

## Harpidedunen txokoa

### Ekaineko zozketa

Sariak irabazteko  
**HARPIDETU!**  
Tel.: 943 08 10 50  
[harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)  
Kuota: 20 euro

#### MUNDUMIRA KAMISETA

Mundumira

BIDALI AG MUNDUMIRA 5533 zkra.



#### ATXAGAREN LIBURUA

PAMIELA

BIDALI AG ATXAGA 5533 zkra.



#### UMEENTZAKO LIBURUAK

PAMIELA

BIDALI AG LIBURUAK 5533 zkra



#### RIP TALDEAREN DVD-A

Goiena

BIDALI AG RIP 5533 zkra



## SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA



BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK

J.L. Abuin eskutik

**J.L. ABUIN / PUY BIDEBURU**

25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen

Mendia jauregia  
639 02 47 14

S. Josepe, 10  
943 77 01 33

Kiroldegia  
943 77 16 77

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotari sartzeko, hain zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)

SASKIBALOIA > II. SORALUCE COOP. TROFEOA

## 56 talde izango dira hirunako saskibaloia lehiatzen aste bukaeran

Iaz baino lau talde gehiago izango dira bihar eta etzi Bergarako San Martin plazan jokatu duten saskibaloia txapelketan

**XABIER URTZELAI > BERGARA**  
Bihar 16:00etan hasiko duten hirunako saskibaloia txapelketan 56 taldek hartuko dute esku. Iazkoarekin alderatuta lau talde gehiago izango dira lehiatzen, eta alde horretatik antolatzaileak pozik geratu dira. Pena, emakumezko talde bakoitzeko talde banak baino ez dutela izena eman: "Horregatik gaude penatuta, aurtengo emakumezko gutxi animatu direlako. Dena dela, garrantzitsuena da izena eman duten horiek jokatu ahal izatea; hortaz, asmatuko dugu zerbait", adierazi du antolatzaile lanetan dabilen Mikel Etxeberriak.

**EGURALDI ONA, EZ IAZ BEZALA**  
Iazko txapelketan antolatzaileek buruhauste galanta izan zuten, euria hasi eta txapelketa San



Txapelketak saskibaloia giroa eramango du San Martin plazara.

KAPIETXE

Martin plazatik Labegarietara eramane behar izan zuten-eta: "Asteburuan, baina, badirudi eguraldi ona izango dugula, eta hori da behar duguna; izan ere, benetako giroa plazan egongo da, aire librean, eta kalean ibiliko diren herritarren bistara".

Txapelketa bihar 16:00etan hasiko dute. Plazan sei saski jarriko dituzte, eta arratsaldeko

saioan senior mailako kategoriek eta gazte mailakoek jokatu dute. Gainera, txapelketarekin batera hiruko jaurtiketen txapelketa ere egingo dute, eta parte hartu gura dutenek momentuan bertan eman ahal izango dute izena. Domekan, berriz, kadete, infantil eta alebin mailako jokalarien txanda izango da, 10:00etan hasita.

PILOTA > EUSKAL HERRIKO HERRI ARTEKO TXAPELKETA

## Bergarak Iruñearen kontra jokatu du herri arteko txapelketaren finalerdia

Bergarako mutilek joaneko partidua gaur, egubakoitza, jokatu dute Oberena pilotalekuan

**X.U. > BERGARA**  
Nafarroan Iruñea izan da herri arteko txapelketan onena, Araban Legutio, Bizkaian Galdakao eta Gipuzkoan Bergara. Baina galdakoztarrek ez dute txapelketa jokatzeko nahiko pilotari, ezta bigarren sailkatu zen Zaratamok ere. Hala, hirugarren sailkatu zen Markina izango da Bizkaiko ordezkaria bihar hasiko duten Euskal Herriko herri arteko txapelketan.

Bergarako pilotariek nahi zuten kontrarioa izango dute aurrean, Iruñea: "Eta ez kirol mailan besteak baino talde makalagoa dutelako. Baina bihar giro polita izango da Oberena pilotalekuan, Sanferminak ospatzen dabiltzalako, eta giro horretan jokatu gura genuen", adierazi du Reyes Azkoitiak. Biharko partidua 18:00etan jokatu dute, eta datorren egubakoitzean izango da itzulerako partidua, Bergarako pilotalekuan, 20:00etan: "Seniorretan atzean jokatzen duena ezagutzen dugu, bi urtetan Bergara Txapelketan izan

zelako, zeinekin eta Irujorekin bikotekide. Baina ez dakigu kadetetan eta infantiletan ze maila duten".

**TXAPELDUNEN ARTEAN, ONENA**  
Hori lortuko du, hain zuzen, txapelketa hori eskuratzen duenak: "Egia da lurralde bakoitzean egiten den txapelketari ematen diogula garrantzi handiagoga, Euskal



Mugurutzatarrak, garaikurrak.

J.A.

Herrikoan denok ez ditugulako arau berberak. Baina gu ilusio handiarekin goaz". Izan ere, Gipuzkoan ez bezala, beste lurralde batzuetan ez da derrigorrezkoa herriko pilotariekin jokatzeko.

**HO  
EI**  
EIBARKO  
HIZKUNTZA  
ESKOLA  
OFIZIALA




Eibarko HEOk matrikula ofiziala uztailak 7-24 eta irailak 1-7 artean izango dela adierazten du

• Maila Probak Eskolako webgunean egin ditzakete ikasle berriek

Informazio gehiago:  
943 20 06 18 telefonoan  
[eoieibar@euskalnet.net](mailto:eoieibar@euskalnet.net)  
[www.eoieibarheo.net](http://www.eoieibarheo.net)

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## AKUPUNTURA

### INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

### LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behe / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK

### ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK

### LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA

### IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

### ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

### BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

### LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## FISIOTERAPEUTAK

### ANDONI ETA MARIA BASTERRETXE

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

### ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

## HOMEOPATIA

### AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salvador 28 / 943 76 80 54

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

### ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

### INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

## ORTOPEDIA

### ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

### BENGOA NEREA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

### GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

### GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## UROLOGOAK

### LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Arrasate / Ferrerías 56 / 943 79 44 22

## YOGA

### AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

ZIKLISMOA &gt; 64. ANTZUOLA SARIA, IÑAKI LETEREN OROIMENEZKOA

# Iaz bezala, domekan esprintaren zain izango dira Antzuolan

09:30ean hasiko dute Iñaki Leteren oroimenez antolatu duten lasterketa

Lehendakari txapelketarako baliagarria, probak 125 kilometro izango ditu

X.U. &gt; ANTZUOLA

Denbora aurreikuspenak betetzen badira, domekan 12:30 pasatxoan jasoko ditu besoak lehenengo txirrindulariak Antzuolako plazan, iaz Aitor Ocamposek egin zuen moduan (3:03:42).

Eta, txirrindularizaleak iazko amaiera errepikatzeko desearazten izango dira, Ocamposek esprint estua egin baitzuen Adrian Legasarekin (Suminan) eta Markel Antonekin (Seguros Bilbao) batera. Antzuolara batera sartu eta lehenengoa izateko, plazako sarreran, etxe artean



Aitor Ocampos, iaz, Antzuolako plazan zegoen helmuga gurutzatzen, kontrarioak atzean utzita.

GOIENKARIA

kaleak ezker-eskuin egiten duen horretan ezinbestekoa da ondo kokatzea. Plazan aurreneko postuan sartuz gero, zaila da inork aurreratzea, eta iaz Ocamposek ondo zekien hori.

**SEGUROS BILBAOKOAK NAGUSI**

Gauzak ondo bidean, iazko irabazlea irteera puntuan izango da

domekan, baina Ibarraoari kosta egingo zaio garaipena errepikatzeko, Seguros Bilbao taldea indartsu dabil eta Lehendakari txapelketan (90 puntu). Baina oso gertu daude Naturgaskoak (84 puntu). Dena dela, bi talde horiek ez dira erreferentzia bakarra, Andranan Alejandro Cobo izan zen eta azkarrena (Ibaigane Opel)

eta Yelco Gomez (Caja Rural) bigarren. Panamako mutila sasoko dago, joan den astean Dorletako Ama saria irabazi zuen eta. Eta Caja Ruralek ere erakustaldia egin zuen Gatzagako maldean. Hala, aukera asko daude domekako lasterketarako, Antzuolako plazan besoak nork jasotzen dituen ikusteko.

**FUTBOLA**

## UDAk zortzi jokalaria berri izango ditu


X.U. &gt; BERGARA

UDako futbol taldeak astelehenean (19:00) aurkeztuko du 2009/2010 denboraldian hirugarren mailan lehiatuko den taldea. Hala, iazko denboraldian UDA hirugarren mailara igo zutenekin batera zortzi jokalaria berri aurkeztuko ditu Aretxabaletak.

**UDAN IBILITAKO HIRU**

Lehenago ere UDAn ibilitakoak dira Kerman Azkarraga (Elgoibar) eta Andoni Amutxastegi (Mondra) atzelariak eta Eibartik utzita etorriko den Aitor Perez erdilaria. Horiek aurpegi ezagunak dira, eta zale aretxabaletarrek astelehenean ezagutu ahal izango dituzte gainontzeko bost jokalaria, gehienak 23 urtez azpikoak: Gasteiztik datorren Jonan Vazquez atezaina, Laudiotik datorren Eden atezaina, Ordiziatik datorren Yasin Guti erdilaria, Ordiziatik datorren Aitor Irazortza aurrelaria eta Gasteiztik datorren Unai Biana aurrelaria.

### Gasteiz Salburua Brusela hiribidea



• Eraikin berria

Bi gelako etxebizitza  
34.441.902 pezetaletatik hasita  
**207.000€**

Hiru gelako etxebizitza  
40.764.570 pezetaletatik hasita  
**245.000€**

### Gasteiz Zabalzana Reina Sofia hiribidea



• Eraikin berria, etxebizitzak bukatuta daude

Bi logelako etxebizitza  
40.099.026 pezetaletatik hasita  
**241.000€**

Hiru logelako etxebizitza  
49.749.414 pezetaletatik hasita  
**299.000€**

Lau logelako etxebizitza  
52.744.362 pezetaletatik hasita  
**317.000€**

**ATE IREKIEK JARDUNALDIA**

Ordutegia: • Larunbatean, uztailaren 11n, 11:00etatik 13:30era eta 17:30etik 19:30era

• Igandean, uztailaren 12an, 11:00etatik 13:30era

**Tel.: 945 13 47 47, deitu eta erakutsi egingo dizugu**


Egunero, gehiago eskeintzen dizugu  
**945 15 15 15**

Hauei buruzko informazio gehiago eta beste promozio batzuk

**www.trivinsa.com**

SAN PRUDENTZIO, 12

**TRINOSA**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS



**> MUSIKA**  
Oñatiko Malenkonia taldeak diskoa grabatu du > 32



**> LE MANSÉN**  
Hanka Labankako bost lagun Le Mansen patinatzen izan dira > 40

**> AMAIA ALBES**  
19 urteko arrasatearrari betidanik gustatu izan zaio arropak diseinatzea. Batxilergo artistikoa egin zuen eta orain, buru-belarri ari da proiektu txikiekin > 36



# Mairuaren Alardea berrituta dator aurten

Eusko Ikaskuntzaren ikerketa izan da Mairuaren Alardea berritzeko abiapuntua

Hamalau lagunek jardun dute elkarrekin lanean alardea "gaurkotzeko"

**EDU MENDIBIL > ANTZUOLA**

Antzuolarren parte-hartzea jaitzen ari zela eta, Udalak eta Mairuaren Alardearen Kultur Elkarrekin eskatuta alardearen gaineko ikerketa egiteko eskatu zioten Eusko Ikaskuntzari 2006an. Antzuolarrek alardeari buruz zeukaten iritzia, nola ulertzen zuten ospakizuna eta zer-nolako identifikazio maila ematen zen jakitea zen ikerketaren helburua. Urte askoan alardean jeneralaren rola jokatu duen Jose Luis Kortabarriak martitzenean azaldu zuenez, "argi geratu zen alardearen bizi iraupena ziurtatzeko aldaketa batzuk egitea ezinbestekoa zela".

Hain zuzen ere, aurreko ikasturtean, 2008-09 kurtsoan, Antzuolako Udaleko Kultura batzordeak behar ziren aldaketak gauzatzeko talde irekia sortzea proposatu zion Mairuaren Alardearen Kultur Elkarteari. Hamalau lagunek jardun dute elkarrekin lanean eta bi ondorio nagusi atera zituzten Eusko Ikaskuntzak egindako ikerketatik: alde batetik, ikuspegi eta bizi-pen positiboak zituztela herritarrek Mairuaren Alardearekiko, mantendu beharreko tradizioa, harro egoteko moduko ospakizuna zela; eta bestetik, ospakizunarekiko lotura epeltzen ari zela, galtzeko arriskuan ere baze-goela alardea.

**LAU HELBURU MOLDAKETAREKIN**

Hain zuzen ere, zenbait jende ez zen alardearekin identifikatzen, besteak beste ospakizun milita-



Joseba Iparragirre alardeko jenerala Antzuolako plazan, iazko irudi baten.

ANTZUOLAKO UDALA

rra zelako eta mairuak berak simbolizatzen duen kultura gutxietsi egiten zelako. Gauzak horrela, alardea eraberritzearen aldeko apustua egin zuten. Xabier Legorburuk azaldu zuenez, lau izan dira moldaketaren helburu nagusiak: mairuaren irudia duin-

tzea (soldaduen buruzagiarekiko azaltzen duen mendekotasuna gaintuz, jeneralarekin parekatuz); bigarrenik, gaur egungo antzuolarrek konpartitzen dituzten hainbat balio integratzea (diskurtsoa leunduz eta hizkuntza eta kultura aniztasuna islatuz); bes-

metik, diskurtsoa historiarekin hobeto lotzea, lehengo anakronismoak saihestuz; eta, azkenik, eszenografia indartzea. Valen Moñux arduratuko da eszenografiaraz; "danborrada ukitua kendu nahi diogu, azken baten alardeak antzinako desfileen oroi-

mena dira-eta. Jantzetan, esaterako, igarriko da hori". Patxi Olabarria zinegotziaren arabera, aldaketok ez dute alardearen funtsa aldatuko: antzuolarrontzat autoafirmazio erritua izaten jarraituko du, baina inor zapaldu edo erasotu barik".



Mairuaren Alardea biziberritzeko lanean ibili den herritar taldea.

## Berritasun guztiak, alardearen egunean

Sorpresa mantendu nahirik, nobedade guztiak aurreratu ez badituzte ere, alardearen ibilbidea luzeagoa izango da aurten, Antiguako ermitara eta Eguzki auzora iritsiko baita. Iraupena ordu eta laurden ingurukoa izango da. Bien bitartean, dokumental bat erakutsiko dute plazan, irudi zaharrek. Mairua Abderraman III.a bezala karakterizatuta azaltzea da beste berritasunetako bat. Bestalde, musikak eta dantzak protagonismo handiagoa izango dute: alardearen betiko melodietan oinarrituta, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren konposizioa eta Segurako alborada entzun ahal izango dira. Era berean, diskurtsoa Antzuolako hizkeran esango da eta jantzi batzuetan aldaketak izango dira. Alarde berritua ikusteko hitzordua hurrengo zapatuan, hilaren 18an, 19:00etan. Aurretik, martitzenean, entsegu orokorra egingo dute frontoian, 20:00etan. Partaidetza handitu egin da eta 180 lagun aterako dira aurten. Aurrekontua 12.204 euro da.

MUSIKA &gt; MALENKONIAREN BIGARREN LANA

# Malenkonia talde oñatiarrak bigarren diskoa kaleratuko du irailean

'Hegazkadak dakar ekaitza' izenburua dauka taldearen bigarren lanak eta hamar kantu batzen ditu; Otxandioko Liant estudioan egin dute grabaketa Malenkoniakoek

EDU MENDIBIL &gt; BERGARA

*Hegazkadak dakar ekaitza* izenburuko diskoa kaleratuko du Oñatiko Malenkonia taldeak udako oporren bueltan, irailean. Otxandioko Liant estudioan egin dute grabaketa, Unai Osinaga teknikariaren laguntzaz. Taldearen estudioko bigarren lana 10 abestiz osatuta dago eta izenburua tximeleta efektuaren fenomenoan dago oinarrituta. "Diskoa entzuterakoan entzuleengan efektu hori eragin nahi dugu, belarriak astinduko duten 10 hegazkada eskaini, era batera edo bestera entzulea eraldatzeraino", diote Malenkoniako kideek.



Malenkonia taldeko kideak, zuzeneko emanaldi baten.

GOIENKARIA

Taldea orain dela zazpi urte sortu zuten eta gaur egun sei lagun dira Malenkonia osatzen dutenak: Iñigo Ugarte, Roberto Ferreiro, Iñaki Goitia, Erik Zubiria, Andoni Correas eta Aitor Lamas. Pop estiloa lantzen dute kantuetan eta pianoa, biolina eta

gitarra efektuak dira Malenkoniaren ezaugarrietako bat.

#### IRAILAREN 5EAN, OÑATIN

Oñatiarren zuzeneko ondo ezaugutzen dute Danbaka lehiaketako jarraitzaileek. Bi aldiz hartu dute parte eta 2007an finalera iri-

tsi ziren, Bergarako Aby Kem eta Belceblues taldeekin batera.

Irailean diskoaren promozioari ekingo diote eta Oñatin jotzeko hitzordua badaukate: Aurora Beltranekin batera izango dira irailaren 5ean, Kanean 09 egitarauaren barne.

#### > ESKORIATZA

### Bi kontzertu 'Errekan gora' ekimenaren barruan

*Errekan gora* kultura ekimena abian jarriko dute aurten Eskoriatzan. Hurrengo zapatuan, hilaren 18an, Alain Giroux & J. L. Mahjun bikotearen kontzertua izango da Azkoaga Enea hotolean, 23:00etan eta uztailaren 25ean Elkano Browning Cream hirukotearen emanaldia izango da Eskoriatzako plazan, 23:00etan. Aitzorrotz Kultur Elkarteak antolatu du *Errekan gora*, Udalaren eta Diputazioaren laguntzarekin.

#### > IRRATIA

### Arrasateko irratizaleak Bedoñan izango dira bihar

Arrasate Irratizale Kultura Elkarteak (AIKE) ekintza bat iragarri du biharko, zapatu-rako. Bedoñako eliza inguruan izango da. Ekipo batzuk probatuko dituzte eta irrati bidez kontaktuak egitea da asmoa. Besteak beste, jendarekin elkarriketak egingo dituzte eta Bedoñara gerturazten den jendeari erakutsiko diote zertarako balio duten irrati proba horiek. Hitzordua bihar Bedoñan, 11:00etan.

 **HIRU**  
ARROZTEGIA  
ATEAK - LEHIOAK - ZORUAK

Antigua auzoa z/g  
ANTZUOLA  
Tel./ Faxe: 943 76 63 59

*Jai zoriontsuak antzuolar guztioi!*







## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA  
943 79 24 58

[www.baster-aldejatetxea.com](http://www.baster-aldejatetxea.com)

### Eskaintza

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Igandeetan itxita



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE  
943 53 32 72

[www.errekajatetxea.eu](http://www.errekajatetxea.eu)

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI  
943 78 19 56

[www.etxeaundi.com](http://www.etxeaundi.com)

### Eskaintza

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

Egunero zabalik



## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE  
943 79 22 15

[www.larrinetxe.com](http://www.larrinetxe.com)

### Eskaintza

- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

### Berezitasunak

- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

Martitzenetan itxita

# Jatetxe Gida



## Santa Ana

Uribarri 37 (Udala bidean) / ARRASATE  
Tel.: 943 79 49 39

[www.santaanamondragon.com](http://www.santaanamondragon.com)

### Eskaintza

- Terraza eta barra
- Menu bereziak
- Karta
- Errazioak, pintxoak, bokatak eta gozoak enkarguz norberak etxera eramateko.
- Ezkontza, despedida eta kintoen bazkariak

Igande gauean itxita.



## Txondorra erretegia

Bizkaia etorbidea 9 / ARRASATE  
Tel.: 943 79 42 76

### Eskaintza

- Asteartetik Ostiralera menu berezia.
- Sagardotegiko menua.
- Menu pertsonalizatuak.
- Karta.
- Atsedeen eguna: Astelehena

Haragi eta arraina txingarretan erreta.



## Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO  
945 44 50 95

### Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

Egunero zabalik



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI  
943 78 35 45

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

### Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita

## 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. ETXEBIZITZA SALDU

**Arrasate.** 65 m<sup>2</sup>ko etxeberritua, 3 logela (1 jantzia), egongela, sukaldajantzia eta bainugela. Oso argitsua, den dena kanpokalde-bera begira, bizitzera sartzeko prest. Nafarroa etorbidea. Prezio ezinhobea: 165.280 € (275 milioi pezeta). 695 78 32 93.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdialdean. Sukaldea, egongela, bi logela, bainugela eta tras-

telekua. 169.900 euro. Oso aukera ona. 618 44 38 44.

**La Mongie.** Apartamentua salgai La Mongien, eski pistetan bertan. Logela literekin, komuna, bainugela, egongela-sukaldea sofa-oherekin eta balkoia pistei begira. Aparkalekua eta trastelekua ere badu. Hegoaldera orientatua. 629 32 84 53.

**Oñati.** Etxebizitza jantzia salgai Olakuan. Hiru logela, bi bainugela, sukalde berritua eta jantzia, jangela eta garajea. 943 53 36 74 edo 635 06 24 79.

## IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarriak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldatetarik eta ezta iragarria bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com <http://www.goiena.net/sailkatuak>

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.

Iragarri partikularretan astebeite baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarrien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Estreinatzeko dagoen etxea errentan ematen da. Urribarriko eliza atzean dago. Sukaldea, egongela, bi komun eta hiru logela. Denek kanpora ematen dute. Igoailua eta garajea ere bai. 685 72 78 23 edo 670 84 52 46.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitate gertu. Hiru logela, egongela eta sukaldea guztiz hornitua. Berogailuarekin. 310 01 31 80 edo 943 03 78 20

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan, lau edo bost pertsonarentzat, unibertsitate ondoan. 605 77 51 71.

**Arrasate.** Erdialdean, Juan Carlos Guerra kalean, lau logelako pisua ematen da errentan ikasleentzat. Prezio negoziagarria. 616 50 67 28 edo 943 79 56 42

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logelarekin. Guztiz jantzia. 669 66 54 99.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat Jokin Zaitegi plazan. Hiru logela, bi bainugela eta egongela. Arratsaldean deitu, mesedez. 646 68 05 86

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat. Unibertsitate oso gertu. 656 73 48 48.

**Arrasate.** Zerrajera kalean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela eta bi komun ditu. Deitu 15:30etik 23:00etara bitartean. 685 73 29 94 edo 943 03 78 56.

**Conil.** Apartamentua ematen da errentan. 615 75 11 47 edo 659 36 88 75.

**Donostia.** Guztiz jantzia. Alde Zaharrean. Ikasleentzat, 2009-2010 ikasturterako. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berogailuarekin. 943 21 97 50.

**Jaca.** Apartamentua ematen da errentan erdigunean, abuztutarako. Kirologunea, igerileku, jacuzzi, sauna, paddle leku eta squasharekin. 609 47 86 91

## 104. ERRENTAN HARTU

**Donostia.** Familiako baten ospitale ingresoa dela eta, uztailean eta abuztuan etxea hartuko nuke errentan. Rosi. 649 55 48 10.

## 105. ETXEA OSATU

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen bi gelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da, Arrasate erdialdean kokaturik dago. Baldintza ekonomikoki onak. 605 76 07 59.

**Bergara.** Logela ematen da errentan Bolun, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 250 euro. 670 85 86 68.

**Bergarako** erdialdean gela errentan ematen da. 170 euro gehi gastuak. Deitu 15:00etatik 21:00etara. 670 40 74 53 edo 696 02 68 30.

## 3/ LOKALAK

## 301. SALDU

**Aretxabaleta.** 40, 80 edo 120 metro koadroko lokal berriak saltzen dira. Erdigunean. 635 72 59 40.

## 4/ LANA

## 401. ESKAITZAK

**Antzuola.** Emakume nagusia zaintzeko emakume euskalduna behar da, irailetik aurrera. Deitu 649 31 42 42 telefono zenbakira.



30 urtetik gorako esperientzia duen eta MONDRAGON Taldean dagoen Teknologia Ikertegiak behar du

## Ing. Elektrikoa

- Ingeniari elektriko/elektronikoa edo antzerkaria.
- Produktu elektronikoko-mekanikoko diseinuan aditua.
- 5-10 urteko esperientzia minimoa.
- Produktu-diseinuan ezagutzak (CE markaketara zuzendua, arau-eskakizunak).
- Tentsio ertaineko diseinu elektrikoan ezagutzak.
- Zirkuitu inprimatu diseinuan, simulazioan eta testean ezagutzak.
- Ingelesko maila erdi/altua behar da. Euskara baloratuko da.

## Eskaintzen dugu

Kualifikazio handiko talde teknologikoan integrazioa. Ordainsaria adostuko da.

CVa bidaltzeko helbideak:  
J.M.Arizmendiarieta, 2 20500 Arrasate  
[per@ikerlan.es](mailto:per@ikerlan.es)

## 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu nagusiak zaindu edo beselako lanetarako. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu ebeko lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko. 680 49 11 45.

**Bergara.** Emakume pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Erreferentziaduna. Orduka nahiz etxean bertan bizi izateko. Deitu 630 88 54 46 telefonora.

**Debagoiena.** 25 urteko eskarmentudun boliviarrak igeltsero lan egiteko gertu. Gilberto. 654 24 13 27.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu 696 48 42 50 telefonora.

**Debagoiena.** Desbrozadore lanak egiteko gertu esperientzia duen mutil euskalduna. 658 73 79 02.

**Debagoiena.** Emakume gertu garbiketarako egiteko (etxe zein atari) edo nagusiak zaintzeko, orduka zein egun osoz. Deitu 628 40 58 27 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume gertu garbiketara lanak egiteko, umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko edo supermerkatuetan lan egiteko. Paperak dauzkat. 666 01 13 42.

**Debagoiena.** Emakume gertu garbiketarako egiteko. 5 euro ordua. 669 53 02 92.

**Debagoiena.** Emakume gertu gaez nagusiak zaintzeko. Deitu 646 77 85 31 telefonora.

**Debagoiena.** Emakume gertu haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko. Gaez ere bai. Arrasaten, Aretxabaletan nahiz Eskoriatzan. Esperientziaduna. Deitu 618 00 08 28 zenbakira.

**Debagoiena.** Gizona gertu soldatzaile edo igeltsero lan egiteko. 666 01 13 42.

**Debagoiena.** Mutil gaztea lanerako gertu. Makinen mantentze-lanetan eta garraioan eskarmentua. Roberto. 638 10 29 63.

**Debagoiena.** Neska gertu umeak zaintzeko edo ostalaritzan lan egiteko. 666 21 82 94.

**Debagoiena.** Emakume gertu nagusiak zaintzeko baita gaez edo ospitalean ere. Deitu 943 88 85 14 zenbakira.

**Delinatzaile.** dekoratzaile eta hirugarren ikasturteko arkitekturen ikaslea edozein lanerako gertu. Autocad programarekin esperientzia. Deitu 676 61 15 47 telefono zenbakira.

**Oñati.** Neska euskalduna umeak zaintzeko prest uztaile eta abuztuan. 660 77 87 65

## OHARRA

## Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibaren EGOITZA SOZIALAREN ALDAKETA

Indarrean dagoen legediak xedatutakoaren arabera, jakitera ematen da:

2009ko maiatzaren 20an egindako Errektore Kontseiluan honako erabakia hartu zutela kontseilu-kideek, aho batez:

Egoitzaren helbide soziala Arrasateko Otarola Lizentziaduna, 31 zenbakira aldatzea.

Arrasaten, 2009ko uztailearen 6an.



**Tornularia,** konbentzionalekoa, 20 urtetik gorako esperientziarekin. 655 71 47 41.

## 5/ IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Solfeoa.** Solfeoko eskola partikularrak jaso nahiko nituzke, azterketatara libreki aurkeztu ahal izateko prestakuntza jasotzearen. 653 72 43 19.

## 502. EMAN

**Udarako eskola partikularrak.** Arrasateko mutil gaztea gertu udan eskola partikularrak emateko. Lehen Hezkuntzako gai guztiak (ingelesa barne). Irakasle ikasketetan diplomaduna eta Arrasateko eskoletan esperientziaduna. 635 75 05 26 edo 943 08 14 25.

## 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Audi 80** 2.0 15V - autoa salgai. SS-1707-AS matrikula. Oso egoera onean. Kontxi. 943 76 18 95 edo 687 04 19 18.

## 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Alpine kargadorea** Alpine markako kargadorea saltzen da, egoera ona eta merke-merkea. 679 10 95 23.

**Angozar.** 1.500 metro koadroko lursaila salgai, bi familiako etxea egiteko aukerarekin. 647 51 52 54.

**Egongelako mahaia** salgai. Gerezi kolorekoa. Kajoiekin. Deitu 943 79 79 34 telefonora.

**Metallica** taldeak uztailearen 14an Madrilen egingo duen kontzerturako bi sarrera dauzkat salgai. Deitu 648 01 32 45 telefono zenbakira.

**Umeen arropa** (3-6 hilabete) eta umeen artikulua salgai. Deitu 943 79 79 34 telefonora.

**Urazpiko** arrantzarako tresnak: neoprenoa, berunak, aiztoa, fusila eta abar saltzen dira, merke-merke. Deitu 679 10 95 23 telefono zenbakira.

## 806. GALDU

**Bizikleta.** Bizikleta desagertu zaigu, ekainaren 30ean, eguerdian, atarian. Arrasateko Juan Carlos Guerra 5ean. Ikusi baduzu, edo zuk badakazu, deitu mesedez: 699 78 87 36.

## 807. AURKITU

**Urrezko katea.** Kalebarrean urrezko katea aurkitu dut. AB 8-5-83/14-9-73 dauka idatzita. 687 83 12 13.

## 808. BESTELAKOAK

**Autorako** umeen aukila beharko nuke. 650 96 23 08.

**Berogailu elektriko** bat beharko nuke. Deitu 650 96 23 08 telefono zenbakira.

## DEBA GARAIA

INMOBILIARIA  
Telefono Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

## ETXEBIZITZAK SALGAI

## BERGARA

- Arte kalea, 89 m<sup>2</sup>, ondo.
- Arrizuri, 97 m<sup>2</sup>, garajearekin.
- Matxiategi, 65 m<sup>2</sup>, berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m<sup>2</sup>, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m<sup>2</sup>, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai 81 m<sup>2</sup>, berria, eguzkitsua, garajearekin.
- Aranerrek, 90 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, oso ondo.
- Zubiaurre, 55 m<sup>2</sup>, 84.142 euro. Negoziagarriak.
- Martoko, 87 m<sup>2</sup>, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m<sup>2</sup>, ondo.
- Ibargarai, 80 m<sup>2</sup> oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m<sup>2</sup> oso ondo.
- Urdangarin pasealekua, 132 m<sup>2</sup>, berrituko.
- Zabalotegi 80 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m<sup>2</sup>, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artzamendi 80 m<sup>2</sup>, 2 terrazekin 60+30 m<sup>2</sup>, eguzkitsua.
- Matxiategi, 73 m<sup>2</sup>, berrituko.
- Simon Arrieta, 57 m<sup>2</sup>, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m<sup>2</sup>, berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m<sup>2</sup>, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m<sup>2</sup>, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erakuntza Maduran, San Pedron, Martokan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubieta, Martokan eta San Lorentzon.**

## SORALUZE

- Bategieta, 83 m<sup>2</sup>, berria.
- Sagarrerrek, 58 m<sup>2</sup>, aukera ona.

## ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, 85 m<sup>2</sup>, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m<sup>2</sup>, erdi berritua.

## ELGETA

- San Roke, 75 m<sup>2</sup>, ia berria.



INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
[www.inmokorosti.com](http://www.inmokorosti.com)

## ETXEBIZITZAK SALGAI

## BERGARA:

- Matxiategi 82 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 m<sup>2</sup>. Berritua. Ganbarearekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m<sup>2</sup>. Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m<sup>2</sup>. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Barrenkale 82 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Aranerrek, 95 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Masterrek, 46 m<sup>2</sup>. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m<sup>2</sup>. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- San Pedro 65 m<sup>2</sup>. Ganbarearekin.
- Osintxu 64 m<sup>2</sup>. Berritua. 114.192 €.
- Zubiaurre 58 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Aranerrek, 90 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Osintxu 62 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- San Lorenzo 68 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Zubiaurre 55 m<sup>2</sup>. Berritua. 114.192 €.
- **Etxebizitza berrien erakuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

## Antzuola:

- Buztinuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m<sup>2</sup>. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135.000 €.

## Elgeta:

- San Roke 72 m<sup>2</sup>. Berritua.
- San Roke 80 m<sup>2</sup>. 80 m<sup>2</sup>-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m<sup>2</sup>. Berritua.

## Soraluze:

- Atxuri 49 m<sup>2</sup>. 117.618 €.

## bono fotoa

Garmendia Ardoak

Larchago Ardoek emandako **Ardo botila packa\*** zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

\* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008 bi botila. Larchago krianza 2006 botila bat.

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

HERRIA .....

TEL: .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

**Bergarako hamarriak hiru elementu nagusi ditu: izarra eta ilargia, Zabala etxeak; hiru makildun Aragoiko aldarea, Ozaetakoa; eta giltzak, Bergarako ze elizatakoak?**

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkorobereziar

## AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Arrasateko Bego Arrieta.  
Zorionak!  
Erantzun zuzena: Besaide.





**Yoana** aretxabaletarra eta **David** arrasatearra bihar, zapatua, ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Ondoren, Mexikora joango dira eztei-bidaian. Zorionak, bikote, Copreciko lankideen partetik!




**Itziar Larrea** eta **Iñigo Kortabarría** oñatiarrak bihar, zapatua, ezkonduko dira Urrexolako parrokian. Eztei bazkaria Azpeitiko Kiruri jatetxean izango dute eta bidaian, berriz, Thailandiara doaz. Zorionak, bikote, lagun partetik!



**Irantzu Lizarralde** eta **Angel Ortiz** bergararrak bihar, zapatua, ezkonduko dira Bergaran. Zorionak eta oso ondo ibili eztei-bidaian. Besarkada eta muxu handi bana Arrasateko familiako guztien partetik!



**Maria Fernandez** eta **Asier Larrañaga** bergararrak bihar, zapatua, ezkonduko dira Bergarako udaletxean. Ondoren, familia giroan ospatuko dute Zarautzen. Ezkon bidaian Brasilerara joango dira. Lagunen eta familiaren partetik, ondo ibili eta pozik bizi!



**Kontxi Heriz** eta **Jesus Mari Lasaga** uztailaren 14an ezkondu ziren, orain dela 25 urte. Zilarrezko ezteiak familiarekin ospatuko dituzte, bazkari ederra eginda. Zorionak eta ondo pasatu eguna, familiako guztien partetik!




Arrasateko **Ainhoa** eta Astigarraga-ko **Kike** zapatuan, uztailaren 11n, ezkonduko dira Hondarribian. Afaria Donostiako Mirador de Ulia jatetxean egingo dute eta bidaian Maia Erriberara joango dira. Familiakoen eta lagun partetik, zorionak, bikote!



**Itziar Osa** eta **Jose Maria Dorda** uztailaren 7an ezkondu ziren, orain dela 25 urte. Orain, zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte bihar, zapatua, bazkaria eginda. Zorionak, aita eta ama! Muxu handi-handi bana, zuen alaba Maitaneren partetik!



Arrasateko **Luis Manuel Martins** eta Boliviako **Yina Torrico** zapatuan, uztailaren 11n, ezkonduko dira Arrasateko Eliza Ebanjelikoan. Eztei bazkaria, berriz, Oñatiko Etxeberria jatetxean egingo dute. Zorionak, bikote, etxeko guztien partetik!



**Iker Agirrebaltzategi** eta **Arantza Urtzelai** oñatiarrak zapatuan ezkonduko dira Zañartuko ermitan. Eztei-bazkaria, berriz, Etxe-Haundin egingo dute eta bidaian Indonesiara doaz, 38 egun. Bi koadrilen partetik, zorionak eta ondo ibili!



**Eneritz** arrasatearra eta **Ruben** irurtzundarra bihar, zapatua, ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Bazkaria Aretxabaleako Baster-Alden izango dute eta bidaia Vietnam eta Thailandiara. Zorionak eta ondo ibili, familiakoen eta lagun izenean!


ESKER ONA

**Consuelo Etxabe Arana**

Anton Martinez de Agirreren alarguna

Aretxabaletan hil zen 2009ko uztailaren 4an, 83 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.




Aretxabaletan, 2009ko uztailaren 10ean.

ESKER ONA

**Felipe Lasaga Larrañaga**

Bergaran hil zen 2009ko uztailaren 25ean, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko uztailaren 10ean.

OROIGARRIA

**Paco Ferreira Barquero**

Arizmendi Ikastolako gurasoa

2009ko uztailaren 6an hil zen, 47 urte zituela.

*Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.*

Arizmendi Ikastolako ikasle, guraso eta langileek. Bat egiten dugu sendileen saminarekin.



Arizmendi Ikastola

Arrasaten, 2009ko uztailaren 10ean.

ESKER ONA

**Esteban Aiastui Aiastui**

Oñatin hil zen 2009ko uztailaren 5an, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2009ko uztailaren 10ean.

ESKER ONA

**Gregorio Leibar Urkia**

Oñatin hil zen 2009ko uztailaren 1ean, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2009ko uztailaren 10ean.

URTEURRENA

**Rufina Igarza Loidi**

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

**ESKELAK**

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkarietara batera.

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150 euro.**

**Goienkaria: astero, 44.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**



Babeslea:



**Euskalduna**

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia  
Etengabeko zerbitzua  
Lore koroak  
Eskelak  
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
e-posta: [euskalduna@harrespil.net](mailto:euskalduna@harrespil.net)

Amaia Albes &gt; Moda diseinatzailea

# "Txikitatik izan naiz marrazkilari trebea eta diseinua gustuko dut"

Amaia Albes 19 urteko arrasatearrari betidanik gustatu izan zaio diseinua. "Haurra nintzen la ere, etxean nituen panpinei arropak diseinatzen nizkien, eta, hain zuzen ere, orduan konturatu nintzen diseinua benetan gustatzen zitzaidala". Bada, horretaz ohartuta, batxilergo artistikoa egin zuen Albesek eta orain, buru-belarri arit da proiektu txikiekin.

AMAIA ARANZETA > ARRASATE

Goi mailako patroigintza heziketa zikloa bukatu berri du Albesek eta orain dela gutxi aurkeztu du urte amaierako proiektua. Nahiz eta beti garbi izan duen diseinua ikasi nahi zuela, 19 urteko gazteak ondo daki mundu hori ez dela pentsatzen den besteko erraza.

**Zer diseinatzen duzu, gehienbat, eta zeinentzat ekoiztu dituzu orain arte egin dituzun diseinuak?**


Gehienbat, lagunentzat edo ahizparentzat diseinatzen dut. Oraindik ez dut proiektu askorik egin, baina gehienbat gazte jendea zentratu naiz, niretzat errazagoa baita. Hala ere, amak edo beste norbaitek galdetzen badit ea beretzat ere zerbait diseina dezakedan, duda barik egiten diot arroparen bat edo beste.

**Euska Herrian aukera onak daude diseinua ikasi eta hortik bizi izateko?**

Euskal Herrian ez askorik, hemen nahiko zaila da. Nire familian, adibidez, ia gehienek ingeniari-tza ikasia dute. Hemen, gehienbat, industria da nagusi, bigarren sektorea batez ere, Debagoien aldean. Garrantzi handia eman ohi izan zaio betidanik industriari eta horrek bultzatzen duen bizimoduari. Hala ere, beste sektore batzuk azken urteotan indartzen ari dira: moda eta turismoa, besteak beste. Eta jendea geroz eta gehiago erakartzen duten gaiak dira horrelako zerbait ikasi eta hortik bizi izateko, industriarekiko dagoen dependentzia horretatik kanpo.

**Nola sentitu edo ikusi duzu Euskal Herri edo Espainia mailan modak izan duen eboluzioa?**

Jendea, ikasleak beti joan ohi izan dira kanpora. Barcelona, Madril eta Italia beti izan dira arrakastatsuak modagile eta diseinatzaileen artean. Azken finean, hemen ez dago aukera handirik horretatik bizi ahal izateko, eta, beraz, jendeak kanpora jo izan ohi du. Garai bateko moda ezin da oraingoarekin alderatu, moda, historia bezala, momentuz antzaldatzen baitoa gizartean, inguruan eta modak azken urteotan izan duen garapen osoan. Niri, moda garai-kidea gustatzen zait, ezberdin janzteko aukera gehiago eskaintzen baititu. Ez ditut arropa kla-



GOIENKARIA

PERTSONALA

**Herria:** Arrasate bera. **Adina:** 19 urte ditut. **Orain arte egindako ikasketak:** Goi mailako patroigintza heziketa zikloa eta ebaketa eta jantzigintza industrialak. **Zaletasun nagusiak:** Musika entzutea, lagunekin egotea eta kontzertuetara joatea. **Gus-**

**tuko musika talde bat:** The Clash. **Azkenekoz irakurritako liburua:** *Luna Nueva*, Stephenie Meyer idazle estatubatuarrena. **Bizioren bat:** Tabakoa, duda barik. **Bidaitzeko leku bat:** Kalifornia (AEB). **Azken hitza:** Auskaloi!

sikoak atsegin eta gaur egungo teknologiaren aurrerapenek aukera ugari sortzen dituzte diseinatzaileok ere beste tela edo arropa estiloekin lan egin dezagun. Lan egiteko modu hau antzina ezinezkoa zen eta, gainera, gizarteak ere moda estilo bat markatzen zuen, estatus sozial eta ekonomikoa nabarmentzen zituena.

**Gustatuko litzaizuke zure diseinuak Cibeles edo halako pasarelaren batean presente izatea?**

Esperientziagatik agian bai, baina herrian bertan ere lan egitearekin konformatzen naiz. Azkenean, hau bokazioa da eta ez dut, momentuz, gerorako plan berezirik.

**Baduzu dendaren bat irekitzeko asmorik?**

Hori da, oraingoz, esku artean dudana proiektuetako bat. Gainera, arropaz gain ere, gurako nuke osagarriak edo beste zerbait diseinatu. Azken baten, denda bat irekiz gero, arropaz gainera beste gauza batzuk diseinatzeko aukera izango nuke eta, jakina, bide batez nire diseinuak hedatzeko.

**Moda beti lotu izan dugu balio edo estereotipo finko batekin. Nolabait ere, gure janzkerak gure izatea islatzen du, baita gizartean finkatu diren balio horiek ere.**

Nork bere ikuspuntu propioa dauka. Publizitateak eragin handia izan du modan eta orain maiz esaten da guztiok berdin janzten garela. Hala ere, estereotipo jakin bat ez da gizartean islatzen. Nik jendea nahi edo izan nahi duen moduan janztera bultzatuko nuke, eta nor bere moda estiloa ezartzera, ez imitazioagatik.

**Baduzu gerorako planik?**

Espero dut dendaren bat ireki eta, apurka-apurka, diseinu grafikoa ikastea eta pixkanaka nire eremuak hedatu eta nire lanak ezagutzera ematea. Ez dut modan bakarrik zentratu nahi, gustatuko litzaizake beste proiekturen bat ere egunen batean egin ahal izatea.

**Eta udarako ezer pentsatu duzu?**

Uda ondo aprobetxatu eta lasai hartu! Izan ere, bederatzihilabete gogor igaro ditut lanarekin eta ikasketekin.

# Markel Olano ahaldun nagusia egunean GOITBn

Eneko Azkaratek,  
Monika Belastegik eta  
Goiatz Aranak  
elkarrizketatuko dute

**ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA**  
Markel Olano ahaldun nagusia izango da platoon egunean. Eneko Azkaratek, Goienako Informazioaren kudeatzaileak, Goiatz Aranak, GOITB-ko erredaktore buruak eta Monika Belastegik, egubakoitzetako GOIENKARIA-ko erredaktore buruak, elkarrizketatuko dute.

Agintaldiaren erdialdera iritsi dela kontuan hartuta, orain arteko bi urteetan egindako lanaren balorazioa egiteko eskatuko diote ahaldunari. Gainera, politika orokorraz gain, gure ibarreko kontuak ere izango dituzte berbagai.

Bestalde, martitzenean Esnearen Ligako Ruth Gutsens izango da platoon; eta eguaztenean, Miren Arregik bainu denboraldiaren berri emango du.

**GOITB, 'Goiena magazinea'**

> Eguena, 19:45



Markel Olano, AP-1 autobidearen inaugurazio ekitaldian.

LEIRE KORTABARRIA

## telebegi

Gorka Etxabe  
> 'getxabe@arteman.org'

### Entzierroen zirrara!

**T**xikia nintzenetik gustuko izan ditut Sanferminetako entzierroak. Uztaileko Almeneko errekupezioak eta entzierroa nire memoriaren parte dira, eta esango nuke nire inguruko memoria kolektiboan ere badutela presentzia. Uztailean Almen ikastolara joaten ginenean komentatzen genituen entzierroak, haren adarkada Santo Domingo kalean gora, udaletxe-ko plazan eta Estafetan. Txikitatik ezagutu ditugu Iruñeko kale horiek, nahiz eta Iruñera gutxitan joan. Urteek aurrera egin duten arren, tradizioa mantentzen dut, eta goizeko 8etan telebistaren aurrean jartzen naiz. Lankideak joaten gara entzierroa ikustera. Zezenak Santo Domingo kaletik gora, lehenengo lasterkariak zain, erorketak, adarkadak, zirrara berezia dute entzierroek. Cuatro telebista kate espainiarrak eskaintzen ditu entzierroak, Raquel Sanchez Silvak aurkeztuta. Gustatzen zait estiloa.

## Bidaiak eta beste, irratan

**UBANE MADERA > ARRASATE**  
Udako kontuak lantzen segituko dute Arrasate Irratian. Besteak beste, bidaiak esperientziak kontatuko dituzte; oraingo honetan Islandia bisitatu dute, eguaztenean, uztailaren 15ean. Eta abuztura arte, astero proposatuko dute ezohiko leku edo esperientziaren bat, bidaiekin lotutakoa. Bestalde, Lezetxikiko indusketak, osoko bilkura, baserriarren azoka eta beste landuko dituzte datorren astean.

**Arrasate Irratia, 'Uda giroan'**

> Astelehenean egubakoitzera, 10:00etatik 12:00etara.



JOSETXO ARANTZABAL

### Kantari karaoke ikuskizuna egunero Goiena Telebistan

Ekainaren 13an eta 14an Bergarako Zabalotegi aretoan grabatutako saioak ikusteko aukera egongo da, gaurtik hasita. 8 eta 12 urte arteko 270 neska-mutikok parte hartu zuten; hain zuzen ere, 243 bergararrek, 23 antzularrek eta lau elgetarrek.

Bestalde, umeendako *Kalabaza magikoa* filma emango dute zapatuan eta domekan. Zapatuan 15:30ean eta domekan 08:00etan.

**GOITB, 'Kantari'**

> Egunero, 13:45 eta 20:45

> Zapatua 11.30 eta domeka 15.45

## arrasate irrata

FM 107.7

### Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.

### Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

### Astelehenean egubakoitzera

10:00-12:00 Uda giroan

Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Astelehenean Kiroiak  
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)  
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin  
Udal Gazte Bulegoa  
Sexologia Zerbitzua  
Astearren errepasoa (Goienkariarekin)  
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak  
Zozketa (egubakoitzean)  
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com))

11:55 Arrasateko albisteak, labur.

12:05 Euskadi Irratiko albistegia.

12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak.

14:00 Uda giroan

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

## astea GOITBn

Egubakoitza, 10	Zapatua, 11	Domeka, 12	Astelehena, 13	Martitzena, 14	Eguaztena, 15	Eguena, 16
13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	08:00 Trikitraka trikiton.	13:15 Marrazki bizidunak : Alex eta Alexis	13:15 Marrazki bizidunak: Cloud Trotters.	13:15 Marrazki bizidunak Alex eta Alexis	13:15 Marrazki bizidunak: Cloud Trotters.
13:45 Kantari	13:45 Kantari	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.
14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa.	11:30 Zinea: Kalabaza magikoa.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa: Bakailua	14:15 Ikusmira: Bird migration center.	14:15 Estetika.
14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	12:30 Solaskide.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
15:15 Elgeta eta Aramaioko jaiak.	15:15 Elgeta eta Aramaioko jaiak.	13:00 Erreportajea.	15:15 Mugaz kanpo.	15:10 Harmailatik.	14:45 Berriak.	15:15 Ikusmira: Bird migration center.
16:15 Ikusten.	16:15 Ikusten.	13:45 Elgeta eta Aramaioko jaiak.	15:45 Elkartasunaren bidean.	15:50 Solaskide.	15:10 Ilunpean: Josune Ariztondo.	15:45 Mugaz kanpo.
16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	14:30 Eltze beroa.	16:15 28 Klip.	16:20 Itsasoari begira. Zarautzeko XXII Triatloia.	15:50 38 gradu: Ura.	16:15 28 Klip.
17:15 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	15:30 Zaharrak berri.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:20 28 Klip.	16:45 Berriak.
18:00 Ilunpean: Iban Garate.	18:00 Ilunpean: Iban Garate.	15:45 Kantari: Arrasate	17:15 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	16:45 Berriak.	17:15 Marrazki bizidunak.
18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:15 Trikitraka trikiton.	17:45 Wasemak	17:35 Erreportajea.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.
19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Erreportajea.	18:15 Musikantoi	18:05 Harmailatik.	17:45 Solaskide.	18:00 Elkartasun bideak.
19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	20:15 wasemak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:15 Ur eta lur.	18:45 Berriak.
20:45 Kantari: Bergara	20:45 Kantari: Bergara	21:15 Elkartasun bideak.	19:15 Marrazki bizidunak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	19:15 Marrazki bizidunak.
21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	21:45 Musikantoi.	19:45 Goiena Magazinea.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:45 Goiena Magazinea.
22:15 Solaskide.	22:15 Solaskide.	22:45 Golb tb.	20:45 Kantari: Bergara	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	20:45 Kantari: Bergara
22:45 Musikantoi.	22:45 Musikantoi.	23:15 Ilunpean: Iban Garate.	21:15 Goiena Magazinea.	20:45 Kantari: Bergara	20:45 Kantari: Bergara	21:15 Goiena Magazinea.
23:45 Goiena Magazinea.	23:45 Goiena Magazinea.	00:00 Itsasora begira.	22:15 Harmailatik.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	22:15 Solaskide.
00:45 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	23:00 Erreportajea.	22:15 Ilunpean: Josune Ariztondo.	22:15 Solaskide.	22:45 28 Klip.
			23:30 Goiena Magazinea.	23:00 Lamién artean.	23:15 Goiena Magazinea.	23:15 Goiena Magazinea.
			00:30 Emisio amaiera.	23:30 Goiena Magazinea.	00:15 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.

# Uztailak 10-17

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

## Dantza



ARRASATE

### > Kukai dantza taldearen 'Soka' ikuskizuna gaur Arrasateko plazan

Kaleko ikuskizuna da *Soka*, dinamikoa eta indar handikoa. Bost dantzarik eta bi perkusio jotzailek hartzen dute parte. Euskal sustrai tradizionaleko dantza eta gaur egungoa batzen ditu. Gaur, egubakoitz, Arrasateko plazan, 20:00etan.

## Musika



BERGARA

### > Mamassita Pro taldearen kontzertua gaur gauean Espoioiko kioskoan

Amaia Cantero eta Virginia de la Casa (ahotsak), Carmen G. Diez (perkusioko eta bibrafonoa) eta Maria Jose Estivariz da Silva (baxu elektrikoa) dira Mamassita Pro. *Ostiral musikalak* egitarauaren bigarren hitzordua gaur Espoioan, 22:30etan.

## Antzerkia



ARETXABALETA

### > 'Kanpaiak jo bitartean' antzezlan domekan Zaraia aretoan, 19:30ean

Emakume gazte batek amatasunaren deia jaso du eta medikuarengana doa intseminazio artifiziala egin diezaioeten. Semen emaila, hilerio bezala, bere dosia ematera doa... Ugaitz Alegria eta Libe Aranburu aktoreekin. Sarrera, 8 euro.

margotuko dute grafiti horren egileek Bergarako azokako paretan. Lehiaketan 2009an gutxienez 16 urte beteko dituzten debagoiendarrek edo Debagoieneko ikastetxeetan edo unibertsitateetan ikasten dutenek hartu ahal izango dute parte, bakarka nahiz taldeka. Teknika librea izango da, eta gaia, berriz, Bergarako azoka edo azokako produktuak. 5. Grafitiaren zirriborroa 34 zm x 29 zm neurrian aurkeztu beharko da, formatu bertikalean, eta euskarri gogor baten gainean. Era berean, lana CD batean ere aurkeztu beharko da. Proiektu irabazleak 500 euroko diru saria jasoko du.

Lanak Bergarako Kultura Etxean aurkeztuko dira, uztailaren 27ko 13:00ak baino lehen. Argibide gehiago kultura etxean edo 943 77 91 59 telefono zenbakian.

OÑATI

### > Paperezko hegazki lehiaketa

Datorren egubakoitzean, uztailaren 17an, Gaztelekuko topalekuan, 17:00etan. 12-18 urte bitartekoei zuzenduta. Interneten aurki daitezkeen hainbat gune eta forotara sarbidea erraztuko zaie partaideei, hegazki modelo egokia aurkitu eta eurek paperez egin ahal dezaten. Lehiaketan hegazkinek egingo duten hegaldiaren luzera, airean emango duten denbora eta diseinua bera ere kontuan hartuko dira. Uztailaren 18an 8-11 urte bitarteko gaztetxoek

## Musika

BERGARA

### > Kupela taldearen emanaldia San Kristobalgotzian

*Pagotxa* da Kupela trikiti taldearen azken diskoa.

Bihar, zapatua, San Kristobalen, 23:30ean.

ARETXABALETA

### > Bertosound System jaialdia

Xabier Silveira eta Unai Muñoa bertsolariak, rap abeslariak, grafiti margolariak, Aritz Sound System disko jartzailea eta break dantzariak.

Bihar, zapatua, Kurtzebarri eskolan, 18:00etan.

## Ikuskizunak

ARRASATE

### > The Graffiti Classics, datorren egubakoitzean

Frances Grime (ahotsa eta biolina), Alice Pratley (ahotsa eta biolina), Stephen Kennedy (ahotsa eta biola) eta Cathal O'Duill (ahotsa eta kontrabaxua) dira The Graffiti Classics.

Datorren egubakoitzean, hilaren 17an, Monterronen, 22:30ean. Sarrera doan.

ARETXABALETA

### > Hipo eta Tomax pailazoak egunean

*Herri kirola* izenburuko ikuskizuna ekarriko dute.

Datorren egunean, hilaren 16an, Zaraia aretoan, 17:30ean. Sarrera doan.

## Erakusketak

ESKORIATZA

### > Felix Likiniano Herizi eskaintako erakusketa Ibarraundin

Eskoriatzako familia bateko semea, Felix Likiniano zenaren bizitzako pasarte adierazgarrienak eta haren

sormen lan batzuk batzen ditu erakusketak.

Ibarraundi museoa, irailera arte. Aste barruan zabalik, astelehenean egubakoitzera 09:00etatik 14:00etara.

BERGARA

### > Txiki Agirre 'Keixeta'-ren margo erakusketa

Artista zumaiarrak formatu askotariko hainbat lan jarri ditu ikusgai.

Uztailaren 19ra arte Barrenkaleko Aroztegi aretoan. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30. Zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30. Domeka eta jaiegunetan: 12:00-14:00.

ARETXABALETA

### > Margo erakusketa Arkupen Pintura ikastaroko lanen erakusketa.

Uztailaren 15era arte Arkupen izango da ikusgai erakusketa.

BERGARA

### > Virginia Loperaren margoak Nahikarin

Formatu ertaineko 10 bat lan zintzilikatu ditu Virginia Loperak. Gasteizkoa da eta ibilbide luzea egin du dagoeneko margolaritzan.

Uztailaren bukaerara arte izango da erakusketa zabalik.

## PROPOSAMENA



BERGARA

### > Bergarako Orfeoia kalera zapatuan

Begarako Orfeoia Irala kalean emanaldia egingo du bihar, zapatua, 20:00etan. Garai baten kalean kantuan egiteko zegoen ohitura berreskuratu nahi du Orfeoia. Aitor Biainen zuzendaritzapean, abesti herrikoiek eskainiko dituzte Orfeoiko kideek: *Isil-isilik dago*, *Kalian gora kalian behera*, *Hegoak ebaki banizkio* eta beste hainbat. Horrez gain, kantu espiritualak eta irlandarrak abestuko dituzte. Ordu erdi inguruko emanaldia izango da.

Bihar, zapatua, Irala kalean, 20:00etan.

## ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

### PLANETARIUM BERRIA

**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa. Igandean, uztailak 12, 12:00tan euskaraz.

**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonistak dituen ipuin animatu bat. Igandean, uztailak 12, 15:30ean frantsesez.

**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa. Larunbatean, uztailak 11, 12:00etan euskaraz.

**Infinity Express:** Unibertsua eta Eguzki Sistemaren zehar bidaiak. Larunbatean, uztailak 11, 13:00etan gaztelaniaz eta 15:30ean frantsesez. Igandean, uztailak 12, 13:00etan gaztelaniaz.

**Kartoizko suziriaren sekretua:** Haurrei zuzendutako saioa. Larunbatean, uztailak 11, 18:00etan euskaraz. Igandean, uztailak 12, 19:00etan gaztelaniaz.

**Eboluzioa (Berria!)** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu. Larunbatean, uztailak 11, 19:00tan gaztelaniaz eta igandean, uztailak 12, 18:00tan euskaraz.

### BESTE EKIMENAK

**Elektrizitate ikuskizuna:** Ileak puntan jarriko dizkizun esperientzia Uztailak 11an 12:15 eta 13:45ean eta Uztailak 12an, 12:45 eta 16:15ean.

**Planetarium Txikia:** 4-8 urte bitartekoek ere izarrak ikus ditzaten. Uztailak 11an 13:15, 17:00 eta 17:30ean eta uztailak 12an, 12:15, 17:00 eta 17:30tan.

**Esperimentuak zuzenean.** Uztailak 11 eta 12an, 18:15ean.

**Simulagailuak:** Errusiar mendia eta tranbia gidatzailearekin disfrutatzeko aukera. Goizez: 11:30 - 14:00 eta arratsaldez: 16:30 - 19:30 asteburu eta jai-egunetan.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA  
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramón-Donostia Tel.: 943 01 24 78  
[www.miramón.org](http://www.miramón.org)



# Hanka Labanka, Le Mansen

**BOST LAGUN** Bergarako Hanka Labanka patinaje taldeko bost kide izan ziren joan den astean Le Mans zirkuituan lehian

**ERRELEBUKA** Frantziako zirkuituan egiten duten txapelketak 24 orduko iraupena du, gau eta egun patinatzen

**SEI MILA** patinatzaile batu dira aurtengo edizioan; Bergarakoek 102 itzuli egin zituzten 24 orduan

XABIER URTZELAI > BERGARA

Bergarako Hanka Labanka patinaje taldeko bost kide Frantziako Le Mans zirkuituan izan ziren joan den asteburuan, Europa mailan egiten duten patinaje txapelketa esanguratsuenan esku hartzen: 24 Heures du Mans Roller txapelketan, hain zuzen.

Egubakoitz eguerdian furgoneta hartu eta ilunkeran iritsi ziren Jon Ander Egaña, Eguzkiñe Uribesalgo, Gurutz Linazisoro, Jose Luis Gallastegi eta Ruben Oural Mansera. Lasterketa, berriz, zapatuan zen: "Sekulako jendetza zegoen han, 6.000 patinatzaile izan gara aurten eta esperientzia moduan oso ondo egon da. Hori bai, gogorra ere bada", adierazi du Egaña.

Lasterketak 24 ordu irauten du, eta denbora tarte horretan itzuli gehien egiten duen taldeak irabazten du: "Ikustekoa zen patinatzaile profesionalak zelan ibiltzen ziren. Haiek sei minutu inguru behar zituzten zirkuituari itzuli bat egiteko, eta guk hamar minutu behar genituen gure itzu-



DUNLOPEKO MALDAN Hanka Labanka taldeko kideak, zirkuituko gunerik esanguratsuenan.

HANKA LABANKA

li azkarrena egiteko". Hori bai, talde gehienak 8-10 patinatzailez osatuta zeuden, eta Bergaratik bost baino ez ziren joan. Noski, horrek gogortu egin zuen proba. Gallastegiren esanetan, datorren urterako bi gauza dituzte garbi: "Donostiko eta Gasteizko patinatzaileek esan ziguten erotuta geundela, bost lagun gutxi zirela. Eta bai, hala da. Datorren urtean joango gara berriro ere, baina bost lagun baino gehiago, seguru. Bestela, errelebuak motz geratzen dira".

### DOMEKAN, LEHER EGINDA

Zapatuko lehenengo itzuliak fresko-fresko egin zituzten, baina, orduak aurrera egin ahala, geroago eta neke handiago nabaritzen zuten: "Goizaldean bi orduz atsedean hartu genuen denok, eta lo egiteko aprobetxatu. Ondoren, berriro ere hotzean hasi eta Dunlopeko maldari aurre egitea oso gogorra izaten zen".

Hala, datorren urterako Bergarakoek badute erronka berria: 102 itzuliko marka ontzea, alegia.

### ahobero

"Harro nago nirea izan delako historiako fitxaketa rik garestiena"

Cristiano Ronaldo > Futbolaria

Aste barruan aurkeztu du Real Madril taldeak Cristiano Ronaldo; Bernabeu futbol zelaia beteta, Florentino hasi da fitxaketa amortizatzen. Eta birritan pentsatu gabe, portugaldarrak esan zuen beragatik ordaindu dutena ondo ordainduta dagoela, balio due-la horrenbeste. Amen.

### iturri onetik

Abuztuaren 30ean hasiko du UDak liga; egunotan egingo dute egutegiaren zozketa

Aretxabaletak abuztuko azken asteburuan hasiko du liga txapelketa, baina oraindik ez dute egutegiaren zozketa egin. Futbol federazioak egunotan egingo du zozketa hori, eta orduan erabakiko da noren kontra eta etxean ala kanpoan hasiko duten liga.

UDAKo ordezkariak dagoeneko esan dute datorren urtean ze jokalar berri izango diren taldean, eta astelehenean aurkeztuko dituzte.

### piperrautsa

Mikel Irizar > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

## Mendiz mendi, mendez mende

Laneko arduren artean ingurumenarena egokitu zait. Nire zorionerako egokitu ere. Gaian murgiltzerakoan egin ditudan harremanetan asko ari bainaiz ikasten. Paisaiaz, esaterako.

Kaletarrok, gure ezjakinean, natura deitzen diogu mendi inguruneari, gaur daukan itxura betidanik eta berez baleuka moduan. Eta oldartzen gara delako natura hori alda lezakeen edozein ekimenen aurka. Ez dakigu natura hori orain dagoeneta gizakiak sortua dela, zuhaitzak moztu zirela larreak sortzeko, edo pagoa - berez lerdena- gizakiak behin eta berriro moztu ahala bihurtu dela Kanpazarren pagomotza, esaterako. Ikasi dut mendi bakoitza liburu bat dela, eta mende bakoitza kapitulu bat. Eta irakurgaia bakoitza dela: natura bezainbat historia.

### ai, ene!



### Zapata itxuradun etxea, arraroetan arraroen

Gero eta bizileku bereziagoak ikusten ditugu. Zapata itxura dauka horrek; hanka usainik egongo da barruan?

www.dogguie.com

**C**arrascal aroztegia

SUKALDERAKO ALTZARIAK  
BAINURAKO ALTZARIAK  
HORMA ARMAIRUAK  
BESTELAKO ARMAIRUAK

Ekutio 4, Pab. 14-15  
Uribarri Auzoa  
20500 Arrasate  
Tel./Faxa: 943790182  
scarrasc\_1@infonegocio.com

## ESKAINITZA BEREZIAK!



Sukalderako altzari eta etxetresna elektrikoak erosita 16"-ko LCD telebista opari!